

Jakin185

uztaila-abuztua
2011



*Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskararen
Normalkuntzako Zuzendaritza Nagusiaren laguntza jaso du*

.....



KULTURA SAILA

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



ZENBAKI HONETAN

7

GAIAK

11 Euskal digitalizazioa 2009-2011

GERARDO LUZURIAGA

ROBERTO KEREXETA

43 Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politikari
buruzko liburu zuria

DANIEL ESCRIBANO

59 Postmodernitatea, gaurko mundurako
filosofia berria

IRAITZ URKULO

EGUNEN GURPILEAN

93 **HAIZEA BARCENILLA**

INAKI IRAZABALBEITIA

GOIZALDE LANDABASO

LIONEL JOLY

JOSU LARRINAGA

© **Jakin**

JAKINeko idazlanez inon baliatzerakoan
aipa bedi, mesedez, iturria

Jakin

aldizkari irekia da eta ez dator nahitaez
idazleen iritziekin bat

ZUZENDARIA

Joan Mari Torrealdai

ERREDAKZIO-ARDURADUNA

Xabier Eizagirre

KONTSEILU EDITORIALA

Paulo Agirrebaltzategi, Joxe Azurmendi, Joseba Intxausti

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Tolosa Hiribidea, 103-1.C / 20018 Donostia
Tel. 943 21 80 92 / Fax 943 21 82 07
jakin@jakingunea.com
www.jakingunea.com

2011ko PREZIOAK

BARRUAN	HARPIDEDUNA	EZ HARPIDEDUNA
Harpidetza	55 €	—
Ale arrunta	9,20 €	12 €
EUROPAN		
Harpidetza	70 €	—
Ale arrunta	11,70 €	15,50 €
EUROPATIK KANPO		
Harpidetza	85 €	—
Ale arrunta	15 €	18 €

Jabegoa: Jakinkizunak, S.L. Donostia. Lege gordailua: S.S. 25/1977. ISSN: O211/495X
Inprimaketa: Leitzaran Grafikak, S.L., Gudarien Etorbidea, 8. Andoain (Gipuzkoa)

SUMMARY



BASQUE DIGITALIZATION 2009-2011

The documentalists Gerardo Luzuriaga and Roberto Kerexeta explain about the new features that have been introduced in the area of libraries and digital collections in the Basque Country during the period 2009-2011, thus lending continuity to a further two articles published in this same magazine in 2007 and 2009. Now, as then, they provide the electronic addresses and general features of these digital projects. **GERARDO LUZURIAGA / ROBERTO KEREXETA**

THE WHITE PAPER ON LANGUAGE POLICY PURSUED BY THE BASQUE COUNTRY

Daniel Escribano, a graduate in Sociology, provides critical comments about the book *Babeli gorazarre* (Homage to Babel) written by Patxi Baztarrika, the Deputy Minister for Language Policy in the Basque Government during the period 2005-2009. The author of the article considers the book to be nothing more than a defence of the language policy pursued by successive Basque Governments and the legal-language framework for the Basque Autonomous Region and the Kingdom of Spain. **DANIEL ESCRIBANO**

POST-MODERNISM: THE NEW PHILOSOPHY FOR THE MODERN-DAY WORLD

Iraitz Urkulo, a graduate in Basque Philology, after pinpointing the concept of post-modernism within its historical context, explains the main features of this trend and the reasons for describing the current era in which we live as post-modern. He then goes on to refer to the main contributions made by post-modern philosophers and thinkers or those who have influenced this school of thought. Lastly, he adds his own reflections about the present and future of our post-modern society. **IRAITZ URKULO**

NEWS TODAY

This section gathers together cultural information focusing on the present from various areas and perspectives. Current affairs in the field of art, technoscience, literature, socio-linguistics and globalization will be analyzed this year. This section draws on various specialists: Haizea Barceñilla, Inaki Irazabalbeitia, Goizalde Landabaso, Lionel Joly, and Josu Larrinaga. **VARIOUS AUTHORS**

ZENBAKI HONETAN



Eskuetan duzun hau bigarren aldiko 185. zenbakia da eta 2011. urteko laugarrena.

Zenbaki honetan ez da gai nagusirik lantzen. Horren orde, *Gaiak* saillean, elkarren artean lotura zuzenik ez duten hiru artikulua aurkezten dizkizugu. Honako gaiak lantzen dira, hain zuzen, artikulua horietan: euskal liburutegi eta proiektu digitalen bilakaera 2009-2011 urteetan; Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politika; postmodernismoa egungo mundurako filosofia berri gisa.

Lehenengo artikuluan, bada, Gerardo Luzuriagak eta Roberto Kerexetak, 2007an eta 2009an argitaratutako bi artikuluri jarraipena emanaz («Liburutegi digitalak», *Jakin* 160; «Euskal liburutegi digitalak: 2007-2009», *Jakin* 172), azken bi urteotan Euskal Herriko liburutegi digitalen panoraman agertu diren proiektu berriak aurkezten dituzte. Aurreko bi artikulua horietan bezala, liburutegi digital horien helbide elektronikoak eta ezaugarri nagusien deskribapena eranstean dituzte.

Daniel Escribanok, bigarren artikuluan, Patxi Baztarrika Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuorde ohiaren *Babeli gorazarre* (Alberdania, 2009) liburuaren iruzkin kritikoa eskaintzen du. Liburu hori, Escribanoren aburuz, Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politikaren eta EAEko zein Espainiako Erresumako marko juridiko-linguistikoaren defentsa hutsa baino ez da.

Hirugarren artikuluan, azkenik, Iraitz Urkulok, postmodernismoaren kontzeptua bere testuinguru historikoan kokatu ondoren, korrante horren ezaugarri behinenak azaltzen ditu, bizi dugun garaiari postmoderno deitzeko arrazoi sendoak daudela argudiatuz. Ondoren, zenbait filosofoen ekarpenak biltzen ditu, bai postmodernitatean jardun direnenak, baita horretan eragina izan dutenenak ere. Azken lerroetan, postmodernitatearen etorkizuneko irauteaz dihardu.

Egunen gurpilean saileko idazlanak datoz azken orrialdeetan. Azken hilabeteotako berrien iruzkin labur eta biziak egin dituzte Haizea Barcenillak Arteari buruzko atalean, Inaki Irazabalbeitiak Teknozientzian, Goizalde Landabasok Literaturan, Lionel Jolyk Soziolinguistikan eta Josu Larrinagak Glokalian. ¶



- 11** GERARDO LUZURIAGA
ROBERTO KEREXETA
Euskal digitalizazioa 2009-2011
- 43** DANIEL ESCRIBANO
Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politikari
buruzko liburu zuria
- 59** IRAITZ URKULO
Postmodernitatea, gaurko mundurako
filosofia berria

Euskal digitalizazioa 2009-2011

GERARDO LUZURIAGA
ROBERTO KEREXETA

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako
saileko dokumentalista
Eusko Jaurlaritzako Dokumentu Ondarearen Zentroko
(Iragi) teknikaria

Askok jakingo duzueenez, artikulua hau euskal digitalizazioari buruzko hirugarrena da. Hiruretan Euskal Herriko proiektu digitalen ezaugarriak eta sarean aurki daitezkeen digitalizatutako funts garrantzitsuenak aztertu ditugu. Sortu ahala proiektuen bertuteak eta edukia azpimarratu ditugu. Horrez gain, 2007koan («Liburutegi digitalak», *Jakin* 160, 2007, 11-46), liburutegi digitalari buruzko gogoeta eta Europako liburutegi digitaletan egindako lehendabiziko urratsak deskribatzeari eman genion lehentasuna. 2009koan («Euskal liburutegi digitalak: 2007-2009», *Jakin* 172, 2009, 11-46), berriz, liburu elektroniko merkatuan irten berriari buruz aritu ginen, eta euskal digitalizazio esparru honetan proiektu bateratuaren eta koordinatuaren premia nabarmendu genuen.

Azken bi urte hauetan digitalizazioaren garapena moteldu omen da. Oro har, esan dezakegu digitalizazio kopurua, aurreko urteekin konparatuz, murriztu egin dela, nahiz eta egitasmo berri batzuk sortu, erakunde batzuek atalen bat edo beste digitalizatu eta beste zenbaitzuek digitalizazioaren gainean hobekuntza ugari egin. Krisia dela-eta digitalizazio-

zatzeko euforia bukatu omen da, edo behintzat komunikabideetan lehen baino berri gutxiago agertu omen dira.

Azken urteetako garapen teknologiko etengabeen gaineko errepasoa

Katalanek 2005ean lortu zuten .cat domeinua bereganatzea; eredu horri jarraituz beste herri batzuek ere lortu dute: .gal (galegoek), .bzh (bretoiek), .cym (galesek). 2009ko urtarriaren 29an Bilboko Euskaltzaindiaren egoitzan PuntuEus¹ elkarteak .eus domeinua sortzearen aldeko lehenengo urratsak egin zituen, euskarak eta euskal kulturak Interneten eremu propioa eduki zezan. Ikur hori euskara eta euskal kultura sustatzeko tresna izango da, Interneten daukan presentzia nabarmentzeko eta dagokion protagonismoa hartzeko.

Blogen modak Twitter, Facebook, Tuite eta abarrei eman die bidea. Blogen bitartez —testu, argazki, bideo edota multimediaz lagunduta— norberak nahi duena idatz eta argitaratu dezake, dirurik ordaindu barik informazioa zabal daiteke. Liburu elektronikoen gaineko euskarazko bi blog nabarmenduko ditugu: Andoni Sagarnaren *Iparorratza*² eta Igor Leturiaren *e-gorblog*.³ Orain modan dauden tresnekin (Twitter, Facebook, Tuite, Tuenti...), berriz, edukia mugatuta dago, mezuek asko jota 140 karaktere onartzen dituzte; hori dela-eta ideiak jende askorengana zabaltzeko tresna ezin egokiago bihurtu dira, nahiz eta ez izan oso baliagarriak informazioa sortzeko edota garatzeko.

Paperezko egunkarien edizioak gero eta garestiagoak dira; paperezko egunkari gehienek ez dituzte ateratzen orain arte ateratzen zituzten etekinak, salmenten eta publizitatearen bidez lortzen dituzten diru-sarrerak gero eta eskasagoak baitira. AEBetan egunkari batzuek dagoeneko eskaintzen dute harpidetza iPaden bitartez. Enpresa horiek espero dute bide horretatik edukiak sarean doan jartzen hasi zirenetik hona izan dituzten galerak geldiaraztea. Egunkariak iPaden bitartez irakurtzea iragarrita zegoen, eta iristear omen dago.

IPad eta antzeko tabletek argitaratzaileei honez gero egunkarien berriak zabaltzea ahalbidetu diete. *The Daily* izan da lehenbiziko egunkaria iPaderako diseinatua izan dena. Soilik iPaden irakur daiteke, ez baitago ez inprimatutako bertsioan ezta sarean ere. Aste osoko harpidetza oso merke jarri dute gainera, euroko 72 zentimotan. Euskal Herriko egoerari erreparatzen badiogu, dagoeneko egunkari guztiek edizio digitalak argitaratu dituzte, eta badirudi etorkizunean ere bide hori jorratzen jarraituko dutela.

Egun, informazio gehiena era digitalean azaltzen eta gordezten da, baina, arazoak arazo, arrisku handia daukagu orain ekoizten dugun guztia hurrengo belaunaldiei ez helarazteko. Dokumentuak irakurtzeko erabiltzen dugun teknologia desagertzen bada, edo fitxategi digitalak degradatzen badira, hau da, hondatzen badira, dokumentu horietan dagoen informazio guztia betiko galduko litzateke. Hori dena ekiditeko, 2009tik aurrera Frantzia, Alemania eta Herbeheretako Liburutegi Nazionalak eta Cross Czech A. S. txekiar enpresak KEEP⁴ (Keeping Emulation Environments Portable) proiektuari ekin diote.

CodeSyntax eta Deli enpresek, Artxibo Irekietarako Eki-menari esker (OAI: Open Archive Initiative), OAC proiektua sortu dute, trukerako protokolo eta katalogo irekien bitartez edukien sorkuntza, eguneraketa eta kontsumo elkarlana bideratzeko. OAI estandar irekiak Interneten liburuak datuak libre trukitzea bideratzen du. Hortaz, liburuak datuak trukitzeaz gain, liburuak saltzeko, faksimil digitalak sarean jartzeko, artikulua argitaratzeko, liburutegiko katalogoak kontsultatzeko eta hamaika eginkizun gehiago egiteko ere balioko du. Azken finean, Luistxo Fernandezek dioen moduan, tresna hori Interneteko liburutegi nazionala sortzeko abiapuntua izan daiteke, jakintza akademikoaren katalogazio, hedapen eta argitalpenerako baliagarria baita.

EHUK UZEIrekin batera elkarlanean itzuli du OJS software libreko produktua,⁵ aldizkariak euskarri digitalean sortzeko tresna egokia dena. Horren bitartez EHUK honako aldiz-

kariak digitalizatu eta Interneten eskuragarri jarri ditu: *Ars bilduma*, *Ekaia*, *Revista de Psicodidáctica / Journal of Psychodidactics*, *International E-Journal of Criminal Sciences*, *Theoria*. *Revista Internacional de Teoría, Historia y Fundamentos de la Ciencia*.

Eusko Jaurlaritzak 2011ko otsailean metaposta.com proiektua aurkeztu zuen. Fakturak, banku-agiriak eta beste mota askotako dokumentuak —erabateko segurtasunez eta lege-baliozkotasunez— Interneteko postak bidaltzeko eta gordetzeko aukera ematen du. Administrazioek eta enpresek bidaltzen dituzten agiriak buzoi elektronikoa bakarrean gordetzeko eta edozein momentutan erabiltzeko doako aukera ematen du. Laburbilduz, metaposta Interneteko postontzia eta dokumentu-gordailua da.

Ezbairik gabe, material berriek ez dituzte lehendik zeude-nak desagerrarazi, baina bai aldarazi. Paperezko materialak protagonista izaten jarraitzen du, liburu elektronikoak gero eta espazio handiagoa lortu arren. Liburutegi espezializatuetan, adibidez, paperak sareko aldizkarietara utzi die bide libre, oso leku gutxitan jarraitzen dute paperezko harpidetza jasotzen. AEBetan liburu elektronikoaren merkatuak 2009tik 2011ra %3tik %7ra iristea lortu du. Europako eta Euskal Herriko mugimendua askoz motelago doa, aldaketan hastapenak baino ez dira sumatu. Liburu sektorean —salmenten krisi ekonomikoa dela eta— azken urte hauetan hasi zen beherako joera areagotu egin da. Egoera horren aurrean, Xabier Mendiguren Elizegik dio liburu elektronikoak egun ez duela irtenbiderik, teknologian eta marketinean egin beharreko inbertsioak salmentatik ateratako etekina baino askoz handiagoak direlako.

Euskal Herriko hainbat erakundek azkenaldian digitalizazio arloan egindako lan solte batzuk

Leitzako Udalak eskuragarri jarri ditu artxiboan gordeta zeuden lau dokumentu: *Libro de Armas de la Villa, Casa de*

Leiza, Convenio entre Leiza y Ferrones eta Título a la iglesia parroquial de Leiza (1475). Inondik inora, agiri garrantzitsuak bezain bereziak dira; adibidez, azken horretan jasotzen da elizaren jabegoa herriarena dela. Halaber, Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzak medio, Artaxona, Atarabia, Iruñeko Katedralaren eta Orreagako Kolejiataren agiri zaharrak ere sarean daude. Lizarrako Udalak 88 dokumentu garrantzitsuenak —1164 eta 1812 urteen artekoak— digitalizatu ditu, besteak beste *Lizarrako Forua* (1164), Antso Jakituna erregeak emandakoa.

Euskaltzaindiaren eta Bordeleko Michel de Montaigne III Unibertsitatearen arteko hitzarmenari esker, Jean Saroihandiren artxiboa digitalizatu dute; Pirinioetako hizkuntza eta hizkera guztiei buruzko materialak jasotzen ditu. Guztira 74.000 irudi dira. Saroihandik soinean zeramatzan esku-kaieretan idatzi zituen bi isurialdeko Pirinioetako artzain eta baserritarrek ahoz kontatutako berriak, ahoskerak, hitz bereziak, ohiturak, toki-izenak. Halaber, Sebastian Gartzia Trujillo euskaltzain urgazleak *Domingo Agirre. Gutun bilduma* liburua —103 gutunez osatua— euskarri digitalean eskainiko du Euskaltzaindiaren webgunean.

Urte hauetan Eusko Legebiltzarrak⁶ jarraitu du liburu zaharrak digitalizatzen, besteak beste Betolazaren *Doctrina christiana* —euskarazko lehen katiximaren ale ezagun bakarra— eta Axularren *Guero*. Argitalpen horiekin, ikertzaileek dagoeneko 300.000 irudi baino gehiago edukiko dituzte eskura.

Antso Jakituna Fundazioak Pierre Urteren *Grammaire cantabrique* eta *Dictionarium latino cantabricum* eskuizkribuak digitalizatu ditu; bi lan horiek Euskal Memoria Digitala webgunean⁷ eskuragarri daude.

Koldo Mitxelena Kulturuneko liburutegiaren webgunean Pello Mari Otañoren *Bertso guziak* liburua zintzilikatu dute.

Euskal prentsan ezinbesteko erreferente den *Eskualduna* asteakaria —1887an sortua— digitalizatu eta Interneten jarri

du Susa argitaletxeak, Armiarma webguneko Euskal Prentsa-
ren Lanak atalean.

Eusko Ikaskuntzaren eskutik, jadanik, euskal gaien inguru-
ruko entziklopediarik osoena sarean dago. Milioi erdi bat
agiri daude eskura (150.000 artikulua, 1.300 euskaratuak,
60.000 irudi, 350.000 dokumentu). Bernardo Estornes Lasar-
ren lana oinarri hartuta, 1933an ekindakoa eguneratu, osa-
tu eta euskaraz ere eskaintzea da entziklopedia berriaren xe-
dea. Egun 300 kolaboratzaile inguru ari dira artikulua ber-
ritzen, osatzen, euskaratzen eta ekarpen berriak egiten,
Iñaki Martinez de Lunaren zuzendaritzapean.

Eusko Jaurlaritzak Kulturklik⁸ webgunea zabaldu du, he-
rritarrek, sortzaileek, eta bitartekariak parte har dezaten.
Kultur ekitaldien berri ematen duen agendaz gain, albistek,
dokumentuak eta kultur edukiak eskaintzen ditu atari digi-
tal horrek.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gipuzkoako Museoen
webgunea⁹ bisitariei zuzenduta dago eta gaika (historia, ar-
tea, gastronomia, itsasoa...) sailkatuta.

Digitalizazioen hobekuntzaren aldeko ekimen batzuk, adibide gisa

Euskaltzaindiak *Eusker*¹⁰ agerkarian egindakoak lekuko.
Orain arte digitalizatutako 3.000 artikulua ingururen testuak,
OCR (karaktere ezagutze optiko) teknikari esker, askoz
errazago eskuratzen dira eta askoz errazago egiten dira bila-
ketak. Halaber, Euskaltzaindiak e-AEB¹¹ zerbitzuaren edu-
kia (arau-erabakiena) eguneratu egin du, eta webgunean
kontsultagai dago eta norberaren ordenagailura jaits daitez-
ke arauak eta gomendioak.

Euskomedia¹² Fundazioaren webgunea berri du. 2002an
sortu zen orrialdeak diseinu garbiagoa du eta batez ere bila-
keta sistema berri du. Helburu nagusia Eusko Ikaskun-
tzak eta kanpoko lagunek sortutako eduki zientifiko eta kul-
turalak baliabide telematikoen bitartez zabaltzea da, euskal

kultura eta gizarteaz interesa duten pertsonentzat baliagarriak izango direlakoan.

Koldo Mitxelena Kulturuneak¹³ ere berritu egin du bere liburutegiaren webgunea. Bilaketak azkartzeaz gain, iradokizun grafiko batzuk ere ematen dizkigu orrialde berrian.

Weba euskarazko corpus gisa kontsultatzea ahalbidetzen duen zerbitzua da CorpEus.¹⁴ Internet euskarazko corpus erraldoi bat balitz bezala kontsultatzeko aukera ematen du zerbitzu honek. Sartutako hitzaren lema bidezko bilaketa egiten du Interneteko euskarazko orrien artean.

Eroskik *Consumer*¹⁵ aldizkariaren corpora sarean jarri du. Elhuyarrek eta Elekak garatu dute baliabide garrantzitsua den corpus eleaniztuna (euskara, katalana, galiziera eta gaztelania).

Artikuluaren ikus daitekeenez, liburuaren sektorea aro berri batean murgiltzen ari da eta aldaketa sakonak gertatzen ari dira: teknologiaren bitartez papera beste euskarri batzuei lekua uzten ari zaie, besteak beste liburu elektronikoei. Aro berri honi aurre egiteko, Alberdania eta Erein argitaletxeek, Bitarte banatzaileak eta Adimedia teknologia enpresak Libenet¹⁶ sortu dute. Liburu elektronikoen eta digitalizazioaren inguruko aholkularitza ematea da enpresa horren helburua, eta hasiak dira banatzeko tresnak antolatzen, argitalpen digitalen azterketak lantzen, dauzkaten gaitasun digitalei buruzko prestakuntzak sortzen, digitalizatzeko planak burutzen eta merkaturatzeko proposamenak aurrera eramaten.

Enclave¹⁷ proiektuak 80 argitaletxe baino gehiago biltzen ditu; horietatik bederatzi Euskal Herrikoak dira, eta haren xedea da, Liburutegi Nazionalaren webguneko interfazearen bidez, egile-eskubideen menpe dauden dokumentuetara iristeko aukerak ematea.

Bubok¹⁸ edizio, diseinu eta teknologia sektoreko pertsonen munduan sortutako gune bat da. Edozeinek argitara dezake sarean edozein lan era merke eta errazean. Argitaratzea bost urratsetan egiten da: obra pdf dokumentu batean igo, liburuaren informazioa bete (izenburua, egilea, sinopsia, etab.),

azalezkatzea aukeratu, izenburu orrialdea aukeratu eta azkenik prezioa jarri (pdf formatuan salduko da e-booka eta paperezkoa). Halaber, European best antzerako proiektu bat zabaltzen ari da, Espresso Book izenekoa. Liburua minutu batzuetan inprimatzen, kolatzen eta azalez hornitzen duen tresna baten bitartez lortzen da. Erabiltzaileek milioika titulu minutu batzuetan eskuratzeko aukera dute.

Bukatzeko, mundu osoan sobera ezagunak diren bi enpresa aipatuko ditugu: Amazon enpresari lehiakidea irten zaio Google eBooks liburu denda sortu zenetik; liburu denda digital horretan hiru milioi produktu baino gehiago daude salgai.

Koordinazioari dagokionez, aurreko urteetako gabeziekin jarraitzen dugu. Aspalditik aldarrikatzen dugun erakunde nagusia sortzeko oraindik ez gara gai izan. Erakunde horren beharra, berriz, gero eta premiazkoagoa da. Azken urteetan, Joana Albret Bibliotekonomia Mintegiak eta beste mugimendu batzuek egindako aldarrikapen eta proposamenek fruituak eman zituzten 2007an, eta Euskadiko Liburutegiei buruzko 11/1007 Legea indarrean jartzea lortu genuen. Oraindik lortu ez duguna Euskadiko Liburutegia da, nahiz eta Legeak propio ezarri Legea indarrean sartu eta gehienez ere 18 hilabetera eratuta egon beharko lukeela. Hortaz, 2009ko maiatzetik hona, dagoeneko bi urteko atzerapena daramagu. Noiz arte?

Ez dugu errepikatuko horren ganean *Jakin* aldizkariko aurreko bi artikuluetan jasotakoa. Digitalizazio-alor horretan bizi dugun kaosarekin bukatzeko ezinbestekotzat jotzen dugu Euskadiko Liburutegia ahalik eta azkarren abian jartzea, digitalizazio-eremuari dagozkion eskumenak erakunde horrek har ditzan. Biblioteka guztien burua eta koordinatzailea izan dadin, alegia.

Euskal Herriko digitalizazio politikaren ezaugarri nagusia koordinazio ezak izaten jarraitzen du. Erakunde gehienek —bakoitzak eskura dituen baliabideen arabera— beraien funts bibliografikoak sarean jartzen jarraitzen dute, aldame-

neko erakundeak egiten duena kontuan hartu barik. Hortaz, ez da harritzekoa dokumentu berdina hamaika tokitan digitalizatuta ikustea, horrela denbora eta aurrekontu urriak alferrik xahutuz.

Irtenbidea Liburutegi Nazionalaren sorreran datza, Euskal Herriko digitalizazio prosezuari dagokion koordinazioa eta erantzukizuna bere gain har dezan. Tristeza da, gaur egun ere, euskal liburu edo aldizkariren bat kontsultatu nahi izanez gero, hamaika erakunde desberdinetan, erakundez erakunde Interneten kontsultatzen ibili beharra izatea; eta oraindik askoz okerrago, Frantzia edo Espainiako Liburutegi Nazionaletara jo beharra izatea.

Bitxia da, Euskal Herria liburutegi eremuan duela urte batzuk mundu osoan aitzindaria izanda, gaur egun hain deskoordinaturik eta atzeraturik egotea. Jon Bilbaoren Eusko Bibliographiaren proiektuak oihartzun eta arrakasta eduki zuen; proiektu hori oraingo balizko euskal liburutegi digitalarekin konpara genezakeen, euskal ekoizpen guztien erreferentzia bibliografikoak bildu baitzituen. Egun erreferentzia bibliografikoen bilketa zaharkiturik geratu da; baina baditugu baliabide egoki eta nahikoak digitalizatutako euskal bibliografia funts guztia zerbitzari baten bidez biltzeko eta dena kontrolpean edukitzeaz gain kontsultagarri ere jartzeko.

Halaber, esan behar dugu euskal liburutegi digitala sortzeko ez legokeela oztoporik, ez alor teknikoaren aldetik, ez alor kulturaletik, ezta alor politikotik ere. Merkatuan badaude baliabide teknikoak —zeinek dokumentu digital baten datuak identifikatzen dituzten, automatikoki datu-base batean sartzen dituzten eta datu horiei esker jatorrizko orriak aurki ditzaketen— agiriak kontsultatzeko. Bilatzaile horrek erakundeen zerbitzari desberdinetan dauden agiri digitalizatuak aurki ditzake; bilaketa xehe batez erakunde desberdinetako agiri guztiak eskuragarri leudeke. Software hori munduko erakunde askok erabiltzen dute, besteak beste, Minnesotako Unibertsitateak, Danimarkako Liburutegi Nazionalak, Boston Collegek eta Oxfordeko Liburutegiak.

Dena den, euskal liburutegi digitala Euskal Liburutegi Nazionalaren atal gisa ikusten dugu, eta horren sorrerak, orain arte behintzat, arazo asko ekarri ditu; izan ere, liburutegi atalaren eskumenak gure esku izan arren eta dagoeneko 30 urte iragan arren, ezin izan dugu lortu. Egia esateko ez dakigu zer gertatu den epe luze horretan; temati eta gogor saiatu arren, Euskal Herrian ezin izan dugu lortu gainerako leku guztietan aspalditik lortuta daukatena. Egitasmo kulturelek berez ez lukete politika kontuekin lotuta egon behar, politikaren gainetik eta politikatik at egon beharko lukete. Baina, ikusitakoa ikusita, susmoa daukagu ez ote den ezinezkoa izango erakunde hori sortzea egoera politikoa aldatu arte, hau da, gobernuak eremu propio batean sinesten duen arte. Une aproposena bizi omen dugu, arestiko ilusio eta elkarlana egiteko gogoia gizartean piztu omen da, liburutegi eremu horretan ere Frantziako eta Espainiako ereditik at marko juridiko propioa eta eraikuntza propioa sortzeko.

Une honetan Euskal Herriko liburutegi eremua Espainia eta Frantziaren interesen mende dago, eta erabat estatu horien esku dago irtenbideak erabakitzeko, garapena lantzeko edota erabakiak ahalbidetzeko orduan. Euskal Herriak badauka nortasun kulturala, soziala eta ekonomikoa, baina ez dauka ez eskumenik, ezta eskubiderik ere Euskal Herritik kanpo nazioarteko harremanetan beste estatuekin aritzeko.

Dokumentazioaren sektoreko filosofia gure alde daukagu

Sektore digitala lankidetzan eta sarean oinarritzen da. Alde horretatik, esan dezakegu sektore digitalaren filosofia gure alde daukagula. Munduko liburutegi digitalen eta Europeanaren —Europako Liburutegi Digitala— koordinatzaileak eta oinarriak ezartzen dituztenak nazioetako liburutegi nazionalak dira. Beste era batera esanda, herri guztiak arduratzen dira beraien funts bibliografikoak digitalizatzeaz. Euskal Herria bere funts bibliografikoaz arduratzeko

garaia ere bada, horrela nazioarteko proiektuetan parte hartu ahal izango luke.

Europako Batzordeak bultzatu du Europako Liburutegi Digitala,¹⁹ eta horretarako iaz EBko lehendakariak kultur ondarea bultzatzeko adituen batzordea sortu zuen, Europako funts bibliografikoen digitalizazioaren gaineko hausnarketak, plangintzak eta arazoak konpontzeko. Aurten adituen batzordearen txostena argitaratu dute. Hamaika kontuz aritzeaz gain, argi eta garbi adierazi dute 2016rako Europako Batasuneko jabari publikoko lan guztiak digitalizatuta izan beharko lituzketela, Europeanan libre eta eskuragarri izan daitezen. Hala-ber, europar politikariek adierazi dute digitalizazioa belaualdi honen eginbeharra dela, eta ahalik eta azkarren ekin beharko diogula etorriko diren belaunaldien mesedetan.

Europako estatu batzuen ekarpenekin Europeana proiektua aurrera doa; egun, Europa guztiko liburutegi, artxibo eta museoetako 15 milioi dokumentu (liburu, argazki, margo, film, musika...) daude digitalizatuta. Kopuru handia eta garrantzitsua izan arren, European gordetzen den ondarearen zati bat baino ez da, eta Europako Batzordeak estatuei eskatu die liburutegietan, artxiboetan eta museoetan gordetzen dituzten agiriak digitalizatzeko ahaleginak handitzea. Ezbairik gabe, oso proiektu interesgarria da, eta urteak joan ahala munduko sareko kulturaren erreferentzia bihurtuko da.

Egitasmo berriak

- *Ahotsak – Euskal Herriko Ahotsak* (www.ahotsak.com). Proiektu honen helburu nagusia da Euskal Herriko ahozko ondarea eta herri hizkerak bildu eta hedatzea; hau da, gure herrietako adineko jendea elkarrizketatu eta euren euskara eta bizipenak jasotzea eta herritarren artean zabaltzea. Webgunea 2008ko apirilean aurkeztu zuten, baina proiektuak aurrera jarraitzen du, etengabe biltzen ari dira materiala eta datu-basea eguneratzen. Ondoren, grabazio zaharrak zein

berriak antolatu, etiketatu, landu, kodifikatu eta digitalizatu dituzte. Jaso eta landu ahala, Interneten jartzen dituzte herritarren esku. Hauek dira 2011ko apirileko datuak: 192 herri; 3.348 hizlari; 4.583 zinta; 27.990 pasarte, transkribatutakoak 5.081; 1.882 audio eta 6.651 bideo.

- *Anaitasuna aldizkaria* (www.euskaltzaindia.net/anaitasuna). Bilboko udalaren eta Euskaltzaindiaren artean *Anaitasuna* aldizkariaren (1953-1982) zenbaki guztiak (420), ia 7.000 artikulua, digitalizatu dituzte. Digitalizazio prozesua Joan Mari Torrealdaik zuzentzen duen *Jakin* aldizkariaren taldeak egin du, eta prozesu horretan zehar sortutako zenbait ohar tekniko eta metodologiko erantsi dituzte egileek, egitasmoaren burutzapenak eman dituen datu eta arazo nagusiak bildu eta argitze aldera.

- *Azkue Fundazioa* (www.azkuefundazioa.org). Teknologia berrien bidez euskararen erabilera sustatzea du helburu; hortaz, euskararen aldeko ekimenak bideratuko ditu, euskarazko wikipediari bultzada ematea, konparazio baterako. Euskaltzaindiak, Bizkaiko Foru Aldundiak, Bilboko Udalak, Deustuko Unibertsitateak eta EHUK parte hartzen dute egitasmo honetan. Halaber, wikipelazan komunitate propio bat sortzeko aukera eman dio Azkue Fundazioak Euskal Kultur Erakundeari (EKE), bere ekimenak ezagutarazteko helburuarekin. Wiki plataforma honetan dokumentu biltegiak, blogak, foroak eta wikiak sortzeko eta erabiltzeko aukera dago.

- *Badihardugu Euskara Elkarteak* (www.badihardugu.com). Badihardugu Euskara Elkarteak Deba Ibarreko euskalkiaren inguruan dihardu lanean eta hainbat ekintza eta proiektu gauzatu ditu bere sorreratik, besteak beste: Deba Ibarreko ahotsak; hitzaldiak; mahai-inguruak; aholkularitza elkarte eta udalei; euskalkien inguruko ikerketak; liburugintza eta bilketa bibliografikoa. Argitaratutako hainbat liburu sarean eskuratu daitezke pdf formatuan: *Deba Ibarretik euskararen herrira, Berbeta berua...*

- *Badok.info* (www.badok.info). Euskal kantagintzari buzurko atari hau musikaren gaineko kontsultarako gune ezin interesgarriagoa da. Bertan musikariaren biografia, kantu, disko, argazki, DVD eta bideoen informazioa aurki dezakegu.
- *Bilboko Udal Artxiboa* (www.bilbao.net/cs/Satellite/archivosMunicipales/Sareko-baliabideak/eu/100016747/Contenido). Webgune honetan 1902 eta 1988 urte bitarteko Osoko Bilkuren akta-liburuen irudi digitalizatuak kontsultatu daitezke pdf formatuan.
- *Bizkaiko Elizaren Histori Arkibua* (www.aheb-beha.org/index.html?&no_cache=1&L=2). Bizkaiko 190 parrokia historikoen sakramentu-liburuetan jasotako bataio-, ezkontza- eta heriotza-agirien informazioa jasotzen duen datu-basea Interneten kontsultatu daiteke, baina oraingoz ezin daitezke irudi digitalak sarean kontsultatu. 1501etik 1900era arteko sakramentu-liburuak osorik kontsultatu nahi izanez gero, artxibora joan behar da. Datu-basea inplementatu ahala, behar diren datuak bilatzeko aukerak gehituko dira.
- *Dadun. Depósito Académico Digital de la Universidad de Navarra* (<http://dspace.unav.es/dspace>). Nafarroako Unibertsitateko ekintza akademikoaren gordetegia da; hortaz, lan akademiko ugari (biltzarren testuak, aurkezpenak, azterketak, apunteak, lanak, memoriak, aldizkariaren artikulak, doktorego-tesiak...) aurki ditzakegu.
- *Donostiako Elizbarrutiko Artxibo Historikoa* (<http://mendezmende.org/eu>). Gipuzkoako 164 parrokia historikoen sakramentu-liburuetan jasotako bataio-, ezkontza- eta heriotza-agirien informazioa jasotzen duen datu-basea Interneten kontsultatu daiteke, baina oraingoz ezin daitezke irudi digitalak sarean kontsultatu. Sakramentu-liburuak osorik kontsultatu nahi izanez gero, artxibora joan behar da.
- *Donostiako Prentsa Historikoa* (<http://liburutegidigitala.donostiakultura.com/Liburutegiak/index.php?LANG=eu>). 36 argitalpenetako 211.529 orrialde daude digitalizatuta,

1830-1937ko data-mugen artekoak: *Aurrerá* (1868-1870); *Bai, Jauna, bai* (Iruñea, 1883); *Bizkaitarra* (Bilbo, 1894-1895); *La Constancia* (1903-1936); *El Correo de Guipúzcoa* (1899-1912); *El Correo del Norte* (lehen garaikoa soilik); *El Correo del Norte* (II. aldia: 1912-1916); *El Cuartel Real* (1873-1876); *El Día* (1930-1936); *Diario de San Sebastián* (1874-1887); *Diario Vasco* (1916-1919); *El Diario Vasco* (1934-1936); *Domingo* (1937)...

- *Donostiako udal liburutegien sarea* (<http://liburutegikoalbisteak.donostiakultura.com/eu>). Testuak ez ezik, beste agiri motak ere daude kontsultagai hainbat euskarritan (argazkiak, mapak, grabatuak, partiturak...). Udal liburutegiak 4.000 partituren digitalizazioaren hastapenari eta zabalkundeari ekin dio eta Raimundo Sarriegi eta Eusebio Basurkoren obrak sarean eskuragarri daude: *Música euskara para trío de silbos*, *Herriko semeen eraso*, *El carnaval en San Sebastián*, *Oilar zaldieriaren konpartsa*, *Atso zaldieriaren konpartsa*, besteak beste.

- *eDTB. Euskal Doktorego Tesien Bilduma* (Euskomedia Fundazioa) (http://edtb.euskomedia.org/cgi/set_lang?langid=eu&fromurl=http://edtb.euskomedia.org). 1993tik hona irakurri dituzten doktorego-tesien erreferentzia bibliografikoen datuak jasotzen ditu proiektu honek.

- *Eibarko Kultura Ondarea* (http://egoibarra.com/home-eu?set_language=eu). Egoibarra batzordearen webgune honek atal hauek biltzen ditu, besteak beste: Eibarko argazkiak, Eibarko idazleen datu-basea, Eibarko liburuak (Julen Zabaltaren *Eibar, tintaz eta lumaz*; Jose Luis Goikoetxearen *Sostoa, Maestoso Primo Tempo*; Gotzon Iparragirreraren *Debarroko oasi liberala*; Antxon Narbaizaren *Muguruza aita-semeak*, *Eibarko Agirre medikuak* eta *Eibarko lore jokoak 1908*; Satur Peñaren *San Andrés de Eibar*; Jesús Gutiérrez Arosaren *La Guerra Civil en Eibar y Elgeta*, Joxe Azurmendiren *Humboldt: hizkuntza eta pentsamendua...*), eta Eibarko aldizkariak (*Eibar* eta *Goi-Argi*).

- *Ekolurra aldizkaria* (www.eneek.org/eus/act_ekolurra.asp). Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluak (ENEK) argitaratzen duen hiruhilabetekariaren 42 zenbakiak (1999-2011) kontsultatu daitezke sarean.
- *elgoiBARREN astekaria* (www.elgoibarren.net/component?option=com_barren/Itemid,22). Webgune honetan Elgoibarko Izarra Kultur elkarteak 1992tik argitaratzen duen aldizkariaren zenbaki guztiak kontsultatu daitezke.
- *Eliburuak* (www.artxibogipuzkoa.gipuzkoakultura.net/libros-e-liburuak/index.php). Gipuzkoari buruzko historia eta alboko zientziak lantzen dituzten foru erakundeen argitalpen batzuk formatu digitalean eskaintzen ditu Gipuzkoako Artxibo Orokorrak webgune honetan. Lehen fasean, Artxiboko argitalpen digitalak daude eskura. Batzuk aurretik paperean argitaratutako liburuak dira, tartean agortutako zenbait, eta beste batzuk Interneten bakarrik dauden baliabide elektronikoak. Oraingoz daudenak lau bilduma haue-takoak dira: *Elkarlanak / Encuentros* (ikastaro, erakusketa eta antzekoetatik jasotako lanak), *Ikerlanak / Estudios* (batez ere, doktorego-tesiak), *Iturriak / Fuentes* (transkripzioak, ulertzeko eta erabiltzeko behar dituzten azterlanak barne) eta *Bekak / Becas* (Gipuzkoari buruzko ikerketa historikoak egiteko Gipuzkoako Foru Aldundiak ematen dituen bekekin burututako lanak).
- *...eta kitto! astekaria* (www.etakitto.com/index.php?id=0&aukera=etakitto&urtea=2008). Webgune honetan, 1992an sortutako Eibarko ...eta kitto! Euskara Elkarteak 2008tik argitaratutako aldizkariaren zenbakiak kontsultatu daitezke.
- *Euskal Etxeak* (www.euskaletxeak.net/index.php?lang=eu). Euskal etheen eta euskal etxeentzako sortutako Interneteko atari bat da, eta kanpoko hiru euskal erakundeen arteko harremanak (euskal etxeak, Federazioak eta Eusko Jaur-larritza) hobetu, indartu eta sustatzeko helburua du. Webgune honek atal hauek ditu:

- *Urazandi digitala* (www.euskaletxeak.net/index.php?option=com_content&task=view&id=161&Itemid=274). Egitasmoa Eusko Jaurlaritzaren Euskal Gizataldeekiko Harremanetarako Zuzendaritzaren ekimena da, eta XIX. mendetik aurrera eta batez ere Ameriketara argitaratu ziren aldizkari euskaldunen ahalik eta zenbaki gehienak biltzeko helburua du. Ekoizpen honek Urazandi bilduma osatzen du, euskal etxeen historia kontatzen duena. Digitalizatutako aldizkarien zerrenda ugari daude eta ezin interesgarriagoa da. 82 aldizkari daude digitalizatuta, hona hemen hurrenkera alfabetikoan lehenbiziko aldizkarien izenburuak: *Aberri* (Mexiko, 1946-1947), *Aberri* (New York, 1925-1928), *Aberri Aldez* (Mexiko, 1937), *Aitor* (Rosario de Santa Fe, 1915-1916), *Alkartu* (Mexiko, 1946), *Alkate'ko Berriak* (Boise, 1974), *Almanaque La Baskonia* (Buenos Aires, 1915?-1956), *Ambos Mundos* (New York, 1946), *Anuario Almanaque Vasco* (Rosario, 1941-1942), *Argia-Luz* (Mexiko, 1934), *Arrecifes Euskaldunak Denak Bat* (Arrecifes, 1962), *Asociación Vasco Navarra de Beneficencia* (Habana, 1890-1972), *Aurrera* (Rancagua, 1907-1910), *La Baskonia* (Buenos Aires, 1978-1980)...
- *Euskaldunak prentsa amerikarrean* (www.euskaletxeak.net/index.php?option=com_content&task=view&id=163&Itemid=276). Euskal gizataldeak errotu zireneko Ameriketako hirietan argitaratzen ziren egunkarietan euskaldunei buruz egindako aipamen guztiak digitalizatzea du helburu. Orain arte 15.000 aipamenetik gora digitalizatu dira, ondoren zerrendatzen diren egunkarietatik: *El Argentino* (Chascomús, 1887-1888, 1900-1901), *El Argentino* (La Plata, 1906), *Arrecifes* (Arrecifes, 1952), *Bahía Blanca* (Bahía Blanca, 1898-1900, 1903-1916), *Brisas* (Bahía Blanca, 1919), *La Capital* (Mar del Plata, 1918-1921, 1923-1927), *La Capital* (Rosario, 1900-1910, 1912), *El Comercio* (Bahía Blanca, 1902-1905), *El Diario de la Noche* (Montevideo, 1924), *El Diario Ilustrado* (Santiago, 1902, 1907-1908)...

- *Euzkadiren Prentsa Bulegoa* (www.euskaletxeak.net/index.php?option=com_content&task=view&id=162&Itemid=275). 1947-1977 urteen artean *Euzko-Izpar-Banatzearen* —erbesteko Eusko Jaurlaritzak izan zuen komunikabidea— testuak eskuragarri daude. Digitalizazio lan honek 32.000 orritik gora ditu.
- *Euskal Kazeta* (<http://euskalkazeta.com/ek>). AEBetako euskaldunei zuzendutako aldizkaria da. Albiste gehienak ingelesez daude.
- *Euskal legezalea* (<https://sites.google.com/site/euskallegezalea>). Zuzenbidearen profesional euskaldunen txoko digitala da, eta euskaratuta dauden lege-testu ugari biltzen ditu: artikulua interesgarriak, baliabide erabilgarriak, kontaktu baliagarriak eta, oro har, euskara eta zuzenbidea uztartzen duen guztia aurki daiteke. Euskal Herrietako testu historiko, aurreautonomia, Euskal Herrietako autonomia-estatutu, foru-zuzenbide zibil, ekonomia-itunen legeak kontsulta daitezke, besteak beste.
- *Euskal Memoria Digitala (EMD)* (www.memoriadigitalvasca.es/?locale=eu). Sancho el Sabio Fundazioak ekoizten, eskuratzen eta Gasteizen duen egoitzan gordetzen dituen euskal kulturari buruzko digitalizatutako funtsen gordetegia da, eta sarbide irekia du.
- *Euskarari ekarriak* (Armiarma) (<http://ekarriak.armiarma.com/?i=254>). Armiarmak Euskarari ekarriak izeneko beste atal bat jarri du abian. Munduko literaturatik euskarara itzulitako obretatik hileru hiruzpalau liburu berri jarriko dute sarean hainbat hizkuntzatatik ekarritakoak.
- *Gasteizko Elizbarrutiaren Artxibo Historikoa* (www.ahdv-geah.org/eusk/inter.html). Gasteizko Elizbarrutiko 531 parrokien sakramentu-liburuetan jasotako bataio-, ezkontza- eta heriotza-agirien informazioa jasotzen duen datu-basea Interneten kontsultatu daiteke, baina oraingoz ezin daitezke irudi digitalak sarean kontsultatu. Sakramentu-libu-

ruak osorik kontsultatu nahi izanez gero, artxibora joan behar da. Gogoratu Arabako probintzia guztiak, Urduñak (Bizkaia) eta Trebiñuko Konterriak (Burgos) osatzen dutela Gasteizko Elizbarrutia.

- *Gipuzkoa 1936* (www.gipuzkoa1936.com/index.php). Gipuzkoan argitaratutako eguneroko prentsarik berri bat, iragarki bi eta argazki biren bitartez, eguneroko errealitatea erakusten digu Gipuzkoako Foru Aldundiaren web interesgarri honek. Bestalde, *Frente Popular* egunkaria eta Pedro Barrusoren *Verano y revolución: la Guerra Civil en Gipuzkoa* liburua osorik digitalizatuta daude eta kontsulta daitezke.

- *Google Art Project* (www.googleartproject.com). Munduko 17 museoetako 1.000 artelan ikus daitezke bereizmen handiz eta xehetasun osoz.

- *Google Books* (<http://books.google.es>). 2007an abian jarri zen proiektu pribatu hau iraultzailea izan da. Dagoeneko milioika liburu daude digitalizatuta datu-base honetan. Liburuen datu garrantzitsuak (egilea, izenburua, argialetxea, inprimatutako urtea...) bilatzeaz gain, testuan dauden hitzez ere bilaketa egin daiteke. Mundu osoko 20.000 argialetzek eta 28 liburutegik hartzen dute parte (Michigan, Harvard, Stanford, Oxford, New Yorkeko Liburutegi Publikoa, Kataluniako Liburutegia, Salamancako Unibertsitateko Liburutegia, Santiagoko Unibertsitateko Liburutegia, Madrilgo Complutense Unibertsitateko Liburutegia...). Bi liburu motak osatzen dute datu-basea: alde batetik, osorik digitalizatuta dauden liburuak; eta, bestetik, soilik orrialde batzuk kontsulta daitezkeenak, gaur egungoak eta jabetza intelektuala libre ez daukatenak, hain zuzen ere.

- *Griso. Biblioteca Digital del Griso* (<http://griso.cti.unav.es/WebSonar/principal.html>). Nafarroako Unibertsitateak urrezko mendeko literaturari buruzko testu kritikoak jasotzen ditu webgune honetan, eta edozein kontsulta-mota egin daiteke.

- *Gurebook.com* (www.gurebook.com). Euskarazko liburu digitalen zabalkunderako gunea da Gurebook denda digitala. Alberdania, Elkar, Erein, Pamiela, Ttarttalo, Txertoa, Desclee, Mezulari, Sua eta Arrain argitaletxeen 300dik gora liburu elektronikora jarri dituzte salgai, eta %60 euskarazkoak dira. Zuzenean jaitz daitezke ordenagailura edo norbere liburu elektronikora e-pub eta pdf formatuetan. Gurebook proiektua Plazagunea eta Libenet enpresei esker jarri da abian.

- *GureGipuzkoa.net* (www.guregipuzkoa.net/index-int.php?lang=eu). Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamentuaren egitasmo honetan Gipuzkoa gaitzat duten argazkiak aurki daitezke, norberaren ordenagailura jaitsi eta norberak ere igo ditzake besteekin partekatzeko. Gipuzkoako iragana eta oraina irudi biziz gogorarazteko aukera paregabea ematen digute argazki horiek.

- *Hispana* (<http://roai.mcu.es/es/inicio/inicio.cmd>). Espainiako Kultura Ministerioaren eta autonomia erkidegoen ekimen honek Espainian digitalizatzeko dauden proiektu eta ekimenei buruzko oinarritzko informazioa biltzen du. 142 erakundek parte hartzen dute eta honez gero ia hiru milioi agiri digitalizatu dituzte. Kultura Ministerioa da koordinatzailea. Hortaz, Hispana Europeanaren oinarria da. Proiektu honetan Euskal Herriko erakunde ugari parte hartzen dute: Aretxabaleta, Irun, Durango, Pasaia, Urnieta eta Gasteizko udal artxiboak; Koldo Mitxelena Kulturunea; Euskomedia Fundazioa; Hegoa Liburutegi Digitala; Bizkaiako Foru Aldundia; Nafarroako Unibertsitateko Biblioteca digital del Griso; Euskal Liburutegi Digitala; Zahartzarora; Nafarroako Liburutegi Digitala; Nafarroako Gobernuako Osasun Departamentuko Liburutegia; Dadun; Egoibarra Batzordea (Eibarko Kultura Ondarea); Euskal Etxeak; Gipuzkoa 1936; Irargi; Gipuzkoako Artxibo Orokorra; Euskal Memoria Digitala (Antso Jakituna Fundazioa); Eusko Jaur-laritzako Osasun Saileko Liburutegia; Donostiako Prentsa Historikoa (Donostiako udal liburutegien sarea); Donostia,

Gasteiz eta Bizkaiko elizbarrutietako artxibo historikoak; eta eDTB (Euskal Doktorego Tesien Bilduma).

- *Ignacio Aldecoa Kulturetxea* (www.bibliotecaspublicas.es/vitoria/bpes_colaborar.htm). Kultura Ministerioaren lan-kidetaz, Gasteizko Liburutegiak honako bilduma hauek digitalizatu ditu: *Heraldo Alavés* (1915-1923), *La Libertad: diario de Vitoria* (1897), *La Libertad: el diario más antiguo de Vitoria* (1915-1923), *El Debate* (1917-1923).

- *Iragarkilaburrak.com* (www.iragarkilaburrak.com). Euskarazko 20 egunkari, aldizkari eta agerkari digitalek abisuak sarean jartzeko webgunea da.

- *Irungo Udal Artxiboa* (www.irun.org/archivo/home.asp?opcion=3). 1337 eta 1960 arteko agirien aurkibidea kontsultatu daiteke, bereziki 1645 eta 1960 arteko udal akordioak.

- *ItzulTerm* (www.elhuyar.org/hizkuntza-zerbitzuak/EU/Itzulterm). Elhuyar Fundazioak ItzulTerm web zerbitzua sareratu du. Erabiltzaileak bidalitako itzulpen-memoriatik termino baliokideen bikoteak automatikoki erauzten dituen doako zerbitzua da.

- *Jesus Elozegi* (www.aranzadi-zientziak.org/index.php?id=54&L=4). Aranzadi Zientzia Elkarteak Jesus Elozegi Iratzusta elkarteko sortzailearen 15.000 argazki jarri ditu Interneten. Argazkilari profesionalak hainbat egunkari eta aldizkaritan (*El Día, Argia, El Pueblo Vasco, Euzkadi...*) argitaratutakoak, hain zuzen ere. Bilduma honetan pertsona ezagunak, artzainak, baserritarrak, kirolariak, mendien irudiak, Tolosako uholdeak... azaltzen dira. Irudi horiek guztiak digitalizatuta eta datu-base batean bilduta daude, bakoitzari dagokion azalpenarekin. Kontsultatu daitezke, eta behar izanez gero, kopia digitalizatu bat atera daiteke.

- *Liburu-e bilduma* (Armiarma) (<http://armiarma.com/liburu-e>). Susa argitaletxearen inguruko idazle, editore eta eragileek sortu dute liburu elektronikoaren bilduma Armiar-

ma atariaren barruan. Egun euskarazko 249 liburu daude sarean eskuragarri; euskal literaturako klasikoak dira liburu gehienak, XVI. mendetik hasi eta XX. mendearen hasiera arte, besteak beste: Shakespeareren *Hamlet*, Cervantesen *Rinkonete eta Kortadillo*, Dideroten *Hau ez da ipuina*, Balzacen *Goriot zaharra*, Baudelaireren *La Fanfarlo*, Pessoaen *Mariñela*, Unamunoren *Abel Sanchez...* Hortaz, paperezko liburuen merkatutik kanpo dauden liburuak eskaintzen ditu doan, e-pub eta pdf formatuetan.

- *Liburutegi Nazionalaren Hemeroteca Digitala* (Espainia) (www.bne.es/eu/Catalogos/HemerotecaDigital/index.html). Webgune honetan Euskal Herriko honako aldizkari hauek daude digitalizatuta: *El Bascongado* (Bilbo, 1813-1814), *El Centenario* (Bilbo, 1900), *Correo de Vitoria* (Gasteiz, 1813-1814), *Papeleta de Oyarzun* (Oiartzun, 1814), *Pliego ordinario de Oyarzun* (Oiartzun, 1813), *Revista musical* (Bilbo, 1909-1913), *La Semana de San Sebastián* (Donostia, 1889).

- *Manuel Irujo Funtza* (www.euskomedia.org/iruj). Eusko Ikaskuntzak Manuel Irujo funtseko 30.000 orrialde baino gehiago sareratu ditu. Gerra Zibilean Justiziako ministro izan zenaren dokumentuen herena dagoeneko sarean jarri dute. Honako atal hauek osatzen dute funtza: Irujoren idatzi eta gutunak, Jose Antonio Agirre, Telesforo Monzon, Gonzalo Nardiz, Salvador Madariaga, Vitoriano Lacarra, EAJ, ETA, PSOE, CNT, UGT...

- *Mintzola Fundazioa* (www.mintzola.com). 2008an Villabonako Udalak, Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak eta EHUK sortu zuten euskararen ahozkoatasunaren esparruan erreferentziazko ikerketa eta bilgune izateko. Xenpelar Dokumentazio Zentroarekin batera, ahozkoaren dokumentazio mapa osatu nahi da, ahozkoatasunaren inguruan existitzen diren liburutegi, artxibo eta dokumentazio-zentroen berri eman eta informazio beharra duten ikerlariek nora joan berehala jakin dezaten.

- *Munduko liburutegi digitala* (www.wdl.org). 2009ko apirilaren 21ean aurkeztu zuten Parisko Unescoren egoitzan, eta sarean kontsultatu daiteke. Sortu zenetik soilik bi urte eskas iragan diren arren, hamarkada bat igaro dela dirudi. Entziklopedia erraldoia izateko helburuarekin sortu dute AEBetako Kongresuko Liburutegiak, Unescok eta beste erakunde publiko eta pribatu askok. Milaka argazki, eskuizkribu, liburu, mapa, irudi, soinu eta grabaziok osatzen dute funts bibliografikoa. 50 hizkuntzako dokumentuak daude, eta kontsultak eta argibideak zazpi hizkuntzatan aurki ditzakegu: arabiera, txinera, errusiera, ingelesa, gaztelania, frantsesa eta portugalerara. Proiektu honen helburua munduko kulturaren harribitxiak jasotzea da. Hasieran munduko 32 erakundek parte hartu zuten. Zerbitzuak eta kontsultak doakoak dira.

- *Muskizko Udal Liburutegia* (www.muskiz.com/biblioteca/archivofoto.htm). Antzinako argazkien udal artxiboa sortu zen; egun 1.000 argazki baino gehiago daude.

- *Nora aldizkaria* (www.nora-aldizkaria.info). Bidaia eta astialdiaren gaineko euskarazko lehen aldizkaria da. Gipuzkoako Foru Aldundiarekin sinatutako hitzarmenari esker, Interneten irakur daiteke.

- *Orotariko Euskal Hiztegia* (www.euskaltzaindia.net/oeh). Koldo Mitxelena hasi zuen eta beste egile askok jarraitu dute haren lana. Euskaltzaindiak *Orotariko Euskal Hiztegia* (OEH) denon esku jarri du sarean. Hiztegegintzan ari direnentzako nahitaezko erreferentzia da. Hiztegi historiko honetan jaso dira euskaraz idatzitako liburu esanguratsu gehienak, aro eta euskalki ezberdinetakoak.

- *Replika* (<http://issuu.com/comicreplika>). Gasteizko *Replika* komiki aldizkaria ere Interneten kontsulta daiteke.

- *Tesiker* (www.inguma.org). Euskal Herriko unibertsitateetan euskaraz aurkeztutako tesien erreferentziak biltzen dituen informazio iturri publiko bakarra da Inguma. 1976 eta 2009 bitartean sortutako 325 euskarazko doktorego-tesi

daude katalogatuta. Euskaraz egindako dokumentazio akademiko unibertsitarioaren argitalpen digitala eta kontsulta publikoa ahalbidetzeko proiektua da, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren eta UEUren arteko lankidetzaren bidez abian jarriko da.

- *Zehazki hiztegia* (<http://ehu.es/ehg/zehazki>). Ibon Sarasolak zuzendutako gaztelania-euskara hiztegia da eta EHUren eskutik sarean dago jadanik kontsultagarri.

Aurkibidea

Hona hemen orain arte aipatutako hiru artikuluen aurkibidea. Aurreko bietan proiektuen helbide elektronikoak jarri genituen. Kasu honetan, ostera, proiektuen eta erakundeen izenak soilik adierazi ditugu —azken horiek parentesi artean—; eta, ondoren, proiektua *Jakin* aldizkariaren zein zenbakitako artikuluan deskribatuta dagoen.

- 3digitala* (Euskomedia Fundazioa, Eusko Ikaskuntza) (172)
- ADEVE - Iraungitzeko Zorian Dauden Espezieak Defendatzeko Elkartea* (Eusko Ikaskuntza) (172)
- Administrazioa euskaraz* (HAEE/IVAP) (160)
- Agiri fondoak (Irujo-Apr aiz-Lekuona-FEVA)* (Eusko Ikaskuntza) (160)
- Ahotsak - Euskal Herriko Ahotsak*
- Ahozko Ondarearen Artxiboa* (Nafarroako Unibertsitate Publikoa) (160)
- Albuma* (Eusko Ikaskuntza) (160)
- Aldizkariak eta aldizkarien artikulua* (Antso Jakituna Fundazioa) (172)
- Aldizkarien eta egunkarien katalogoa* (Antso Jakituna Fundazioa) (160)
- Alephandria* (160)
- Anaitasuna aldizkaria*
- ANTIC (Komunikaziorako eta Informaziorako Teknologia Berrien Agentzia)* (160)

- Antso Jakituna Fundazioaren katalogoen kontsulta* (160)
Antzerti aldizkaria (Armiarma) (172)
Antzezlanak (160)
Arabako Artxibo Historiko Probintziala (172)
Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala (172)
*Aranzadi Zientzia Elkarte*a (160)
*Araua*k (Euskaltzaindia) (172)
Argia (160)
*Argitalpen Fondo*a (Eusko Ikaskuntza) (160)
Armiarma (160)
*Artikulu*en katalogoa (Antso Jakituna Fundazioa) (160)
*Artxibo pribatu*ak (Antso Jakituna Fundazioa) (172)
Artxiker (160)
Atsotitzak (160)
Auñamendi Entziklopedia - Bernardo Estornes Lasa (Eusko Ikaskuntza) (160)
Aurki (160)
Azkoaga. Cuadernos de Ciencias Sociales y Económicas (Eusko Ikaskuntza) (172)
*Azkue Fundazio*a
Azpilcueta. Cuadernos de Derecho (Eusko Ikaskuntza) (172)
Badator (Iragi) (160)
*Badihardugu Euskara Elkarte*a
Badok.info
Bagera.net (172)
*Baliabide pedagogiko*ak (Eusko Ikaskuntza) (172)
Barandiaran bilduma (Eusko Ikaskuntza) (172)
Basqueliterature.com - Euskal literaturaren ataria (160)
Basquepoetry.net - Euskal poesiaren ataria (Armiarma) (160)
Basque Studies Library - Renoko euskal liburutegia (160)
Behinola: haur eta gazte literatura aldizkaria (172)
*Bergarako Udal Artxibo*a (172)
Bertso eta olerkien hemeroteca (Armiarma) (160)
Bertsolaritza (160)
Bertsolaritzaren liburutegi digitala (172)
Biblia Interneten (160)

- Bidegileak bilduma* (160)
Bilboko Udal Artxiboa
BiNaDi – Nafarroako Liburutegi Digitala (172)
Bizkaiko Aldizkari Ofiziala (172)
Bizkaiko Elizaren Histori Arkibua
Buruxkak liburutegi digitala (160)
CiberBiblio (160)
Corpusa - XX. mendeko euskararen corpus estatistikoa (Euskaltzaindia) (172)
Dadun. Depósito Académico Digital de la Universidad de Navarra
Dantzak (160)
Donostiako Elizbarrutiko Artxibo Historikoa
Donostiako Izkera ta Iztunde Ikastola 1915-1981 (160)
Donostiako idazleen liburutegia (172)
Donostiako idazleen testuak (160)
Donostiako Prentsa Historikoa
Donostiako udal liburutegien sarea
Durangoko euskal liburu eta disko azoka (160)
E-Campus Gipuzkoa (160)
E-Lis (160)
eDTB. Euskal Doktorego Tesien Bilduma (Euskomedia Fundazioa)
Eduki (172)
Ego Ibarra Batzordea (160)
Egunkariak (160)
Eibar aldizkaria (172)
Eibarko Kultura Ondarea
Eibartarren ahotan ahozko artxiboa (160)
Eibarko kantutegia (160)
EIBZ - Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide Zentroa (172)
EIZIE (160)
Ekolurra aldizkaria
Elai Alai kulturgunea (172)
Elebila euskarazko bilatzailea (172)
Eleka Ingeniaritza Linguistikoa (172)

elgoiBARREN astekaria
Elhuyar (160)
Eliburuak
Elkar (160)
Emakunde (160)
Erein (160)
Eskualduna astekaria (Armiarma) (172)
Eskuizkribuak (Antso Jakituna Fundazioa) (172)
...eta kitto! astekaria
Euskadiko elizbarrutietako artxibo historikoen sakramentu
erregistroak (Irargi) (160)
Euskadiko Filmatagia (172)
Euskal Abestien kantutegia (160)
Euskal bertso eta olerkien bibliografia (160)
Euskal bibliografia (Eusko Ikaskuntza) (160)
Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria (160)
Euskal Herriko Ahotsak (172)
Euskal Herriko Natura aldizkaria (Eusko Ikaskuntza) (172)
Euskal Idazleen Elkarte (160)
Euskal Jakintza (172)
Euskal Kantutegia (Euskomedia Fundazioa) (160)
Euskal Kazeta
Euskal Kultura prentsan 1900-1975 (Eusko Ikaskuntza) (160)
Euskal Kulturaren hari@ (160)
Euskal legezalea
Euskal Liburutegi Digitala (160)
Euskal Memoria Digitala (EMD) (Antso Jakituna Fundazioa)
Euskal Natura (172)
Euskal testuen gordailua (160)
Euskaldunak prentsa amerrikarrean (Euskal Etxeak)
Euskal Etxeak
Euskalkien liburutegia (160)
Euskara Institutua (Euskal Herriko Unibertsitatea) (172)
Euskarabidea - Nafarroako Euskararen Institutua (172)
Euskararen Berripapera (172)
Euskararen Donostiako Patronatua (160)

- Euskararen Etxea* (160)
Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide Zentroa (Nafarroako Gobernu) (160)
Euskarari ekarriak (Armiarma)
Euskarazko teatro testuak (160)
Eusko Bibliographia (Bizkaiko Foru Aldundia) (160)
Eusko Ikaskuntza (160)
Eusko Ikaskuntzaren Kongresuak (172)
Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila (160)
Eusko Jaurlaritzako Kultura saila (160)
Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila (160)
Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Herri Administrazio Saila (160)
Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila (160)
Eusko Legebiltzarra (172)
Euskomedia Fundazioa (Eusko Ikaskuntza) (172)
Euskonews & Media (Eusko Ikaskuntza) (172)
Euzkadiren Prentsa Bulegoa (Euskal Etxeak)
Eustat (160)
Fontes Linguae Vasconum (160)
Formula. Cuadernos de Ciencias Físico-Químicas y Matemáticas (Eusko Ikaskuntza) (172)
Galtzagorri elkarte (160)
Gasteizko Elizbarrutiaren Artxibo Historikoa Gipuzkoa 1936
Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala (172)
Gipuzkoako dantzak (160)
Glosategia Komunikazioaren gainean (172)
Goi-argi aldizkaria (160)
Google Art Project
Google Books
Gozatuz (160)
Griso. Biblioteca Digital del Griso
Gurebook.com

GureGipuzkoa.net
HABE (160)
Harluxet hiztegi entziklopekikoa (160)
Hedatuz - Euskal zientzia eta kulturaren liburutegi digitala
(Euskomedia Fundazioa, Eusko Ikaskuntza) (172)
Hiru argitaletxea (160)
Hispana
Hizkuntza Zerbitzuak Elhuyar (172)
Hiztegi Batua (Euskaltzaindia) (172)
Hiztegiak (160)
Hiztegiak eta entziklopediak (160)
IATE - InterActive Terminology for Europe (172)
Ibiñagabeitia Proiektua - Euskal literaturaren gordailua (Ar-
miarma) (160)
IDABA (160)
Ignacio Aldecoa Kulturetxea
Ikas (160)
Ikasbil (HABE) (160)
Ikastaria. Cuadernos de Educación (Eusko Ikaskuntza) (172)
Iker bilduma (Euskaltzaindia) (172)
Iker/Jagon-Tegiak (Euskaltzaindia) (172)
Ikusgaiak. Cuadernos de Cinematografía (Eusko Ikaskuntza)
(172)
Inform (160)
Inguma (160)
Iragarkilaburrak.com
Irakurketa gida (160)
Irargi Artxibistika aldizkaria (160)
Irungo Udal Artxiboa
Itzulpengintza (160)
ItzulTerm
IXA taldea (160)
Izendegiak (Euskaltzaindia) (172)
Isturitz. Cuadernos de Prehistoria-Arqueología (Eusko Ika-
skuntza) (172)
Jagonet (Euskaltzaindia) (172)

Jaien egutegia (Eusko Ikaskuntza) (172)
Jakin (160)
Jentilbaratz. Cuadernos de Folklore (Eusko Ikaskuntza) (172)
Jesus Elozegi
Joana Albret Bibliotekonomia Mintegia (160)
Jose Maria Arizmendarreta (Eusko Ikaskuntza) (172)
Juan Garmendia Larrañaga (Eusko Ikaskuntza) (172)
Julio Caro Baroja Nafarroako Museo Etnologikoa (160)
Kaixo! Internet Euskadiko ataria (160)
Kantak (160)
Kantutegiak (160)
Katalogatzeko terminologia (Joana Albret) (160)
Klasikoak (160)
Klasikoen Gordailua (160)
Koldo Mitxelena Kulturuneko irakurketa gidak (160)
Kritiken hemeroteka (Armiarma) (160)
Kulturaldi (160)
Labayru hiztegia online (172)
Lanbide (160)
Larrun pentsamendu aldizkaria (172)
Legeria (Eusko Jaurlaritza) (172)
Liburu (Antso Jakituna Fundazioa) (172)
Liburu-e bilduma (Armiarma)
Liburuak (160)
Liburuak eta bibliografia (160)
Liburuak on line (160)
Liburutegi digitala (Bizkaiko Foru Aldundia) (160)
Liburutegi Nazionalaren Hemeroteka Nazionalea (Madril)
Liburutegiak (160)
Liburutegien haria (160)
Literatur emailuak (Armiarma) (160)
Literatura aldizkariak (160)
Literatura Unibertsala bilduma (160)
Literaturaren Zubitegia (Armiarma) (160)
Lizardi Xabierren idazlanak (160)
Luis de Salazar y Castro (Irargi) (172)

- Manuel Irujo Funtsa* (Euskomedia Fundazioa, Eusko Ikaskuntza)
- Mapen katalogoa* (Antso Jakituna Fundazioa) (160)
- Marjinalia bilduma* (160)
- Mediateka - Nafarroako Euskararen Mediateka* (172)
- Mediatika. Cuadernos de Medios de Comunicación* (Eusko Ikaskuntza) (172)
- Merkatari.net* (172)
- Mintzola Fundazioa*
- Multimedia galeria* (Eusko Ikaskuntza) (160)
- Munduko Liburutegi Digitala*
- Musiker. Cuadernos de Música* (Eusko Ikaskuntza) (172)
- Muskizko Udal Liburutegia*
- Nafarroako Aldizkari Ofiziala* (172)
- Nafarroako Fonoteka* (160)
- Nafarroako Julio Caro Baroja Museo Etnologikoa* (160)
- Nafarroako Gobernua, Hezkuntza Saila* (160)
- Nafarroako Toponimia Ofiziala* (172)
- Naturaren Ahotza aldizkaria* (Eusko Ikaskuntza) (172)
- Naturzale. Cuadernos de Ciencias Naturales* (Eusko Ikaskuntza) (172)
- Navarra agraria aldizkaria* (172)
- Nora aldizkaria*
- Oiartzuarren baitan* (172)
- Oihenart. Cuadernos de Lengua y Literatura* (Eusko Ikaskuntza) (172)
- Olerkariak eta beren olerkiak* (160)
- Olerkilariak euskaraz* (160)
- Ondare. Cuadernos de Artes Plásticas y Monumentales* (Eusko Ikaskuntza) (172)
- OndareNet - Euskal ondare digitala* (172)
- Orotariko Euskal Hiztegia*
- Osasunaz. Cuadernos de Ciencias de la Salud* (Eusko Ikaskuntza) (172)
- Pamiela argitaletxea* (160)
- Replika*

- RIEV - Revista Internacional de los Estudios Vascos* (Eusko Ikaskuntza) (172)
RIEV 100 urte: 1907-2007 (Eusko Ikaskuntza) (172)
Santurtziko Udal Euskaltegia (160)
Sarean zer? (Le Journal du Pays Basque, Euskal Herriko kazeta) (172)
Senez aldizkaria (160)
Susa (160)
Sustatu Interneteko albistegia (160)
Sustrai aldizkaria (160)
Teatro testuak (172)
Tesiker
TK aldizkaria (160)
Txalaparta argitaletxea (160)
Txistulari (160)
Urazandi digitala (Euskal Etxeak)
Uztaro: giza eta gizarte-zientzien aldizkaria (172)
Vasconia. Cuadernos de Historia-Geografía (Eusko Ikaskuntza) (172)
Vilaweb biblioteca (160)
Wikipedia (160)
Wordtheque (160)
Xenpelar Dokumentazio Zentroa (160)
XX. mendeko euskal liburuen katalogoa (160)
Zainak. Cuadernos de Antropología-Etnografía (Eusko Ikaskuntza) (172)
Zaldi Ero idazleekin (Armiarma) (160)
Zehazki hiztegia
Zibertso (172)
Zientzia eta Teknologiaren Corpusa - ZT Corpusa (172)
Zientzia.net (172)
ZuZeu albistari digitala (172)¶

1. www.baietz.org/modules.php?op=modload&name=News&file=article&sid=3245
2. <http://andonisagarna.blogspot.com>
3. <http://eibar.org/blogak/e-gorblog>
4. www.keep-project.eu/ezpub2/index.php
5. www.ehu.es/ojs
6. www.kultura.ejgv.euskadi.net/r46-9238/eu/q56War/q56consulta.jsp?idIdioma=e&fuente=2
7. www.memoriadigitalvasca.es/handle/10357/2105
8. www.kulturklik.euskadi.net
9. <http://gipuzkoakomuseoak.net>
10. www.euskaltzaindia.net/euskera
11. www.euskaltzaindia.net/eaeb
12. www.euskamedia.org/
13. w390w.gipuzkoa.net/WAS/CORP/DBKBibliotecaDigitalKMWEB/Index_es.jsp
14. <http://corpeus.elhuyar.org/cgi-bin/kontsulta.py>
15. <http://corpus.consumer.es/corpus/>
16. www.libenet.net/presentacion.php?lang=eu
17. www.bne.es/es/Catalogos/BibliotecaDigital/enclave/index.html
18. www.bubok.es/
19. <http://europeana.eu>

Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politikari buruzko liburu zuria

DANIEL ESCRIBANO

Soziologian lizentziaduna

Afirma que el nou ordenament jurídic al nivell *nacional i autonómico* resol ja el problema de llengües dins el mateix Estat; no hi hauria, segons això, enfrontament d'aquestes i, sobretot, ningú no fóra discriminat per raons lingüístiques. És a dir, accepta tàcitament que tothom ho serà, de discriminat, però només a través de l'espanyol, dels coneixements que n'acrediti i de l'aptesa que demostrï a servir-se'n en qual-sevol situació i circumstància; i predica estentòriament que ningú no podrà ser-ho a través de cap altra llengua diferent de l'única amb què s'identifica en exclusiva l'Estat, sots pena de lesa constitucionalitat. [...] [D]iu fixar els màxims valors en la convivència social —amb deliberat oblit de les claudicacions a què es veuen obligats en tots els àmbits els usuaris de llengües altres que l'espanyola—, i [...] identifica reductivament i abusiva el discurs de la radicalitat conseqüent amb les opcions polítiques de caire independentista[.]

Josep Murgades (1996 [1993]: 101-102)

Karguan ordeztua izan eta gutxira, berriro dugu plazan arduradun politiko ohia; oraingo honetan, liburu bidez, bere gestioaren berri emateko. Aipagai dugun lanari dagokionez (Baztarrika, 2009), Patxi Baztarrikak bere buruari eza-

rri dion eginkizuna are handiagoa da, ez baitu nahikoa izan bere ohorea defendatzearekin Juan Jose Ibarretxe lehendakariaren azken gobernuaren Hizkuntza Politikarako sailburorde gisa. Aitzitik, autonomia berrezarri zenetik EAEko gobernu ororen hizkuntza-politikaren gorazarrea egin nahi izan du Baztarrikak. Hori dela-eta, ez da ustekabea bigarren aitzinsolasa Pedro Miguel Etxenike berrezarritako autonomiako estreinako Jaurlaritzako Hezkuntza eta Kultura sailburuak idatzi izana. Egileak berak adierazi du liburuak «Eusko Jaurlaritzako erantzukizunetatik hizkuntza politikaren kudeaketan lau urtean izandako eskarmentuan» duela oinarri (23. or.). Horren ondoriorik nabarmenena dugu liburuak academia-lana ez izatea, saiakera politiko hutsa baizik: bere jarduna zurrizko arduradun politiko ohiaren argudio-sorta, hain zuzen ere. Izan ere, sailburuordeak espainolaren gizarte- zein legezko nagusitasuna auzitan jartzen sekula saiatu ez den hizkuntza-politika defendatu nahi duenez, diskurtso ideologiko hutsari heldu beharrean dago, zuzentasun politikoaren betiko leloak errepikatzea kontrako errealitateak nahiz argudio deserosoak gainditzeko nahikoa balitz bezala. Horregatik 40 aldiz baino gehiago aipatu ditu *bizikidetza* edo *elkarbizitza* hitzak, dena zurrizko baliagarriak direlakoan. Hala ere, zilegitasun politikoa lortzeko «bizikidetzara» jotzea bide huts-hutsa da informazio-ikuspegitik, gobernu-politika orok bizikidetza-motaren bat baitakar. Dena den, ukaezina da erretolika hori *statu quo*aren aldeleen diskurtso-baliabiderik erabilienetako bat dela, bertzeak bertze, funtsezko auzia ezkutatzeko balio duelako, alegia, ezarritako elkarbizitza zer baldintzatan oinarritzen den afera saihesten duelako. Baztarrikak, gainera, «hizkuntzen bizikidetza» eta gizarte-bizikidetza zuzen parekatu ditu (157., 217. or.), eta hori gizarte-gatazka hizkuntza-gatazkara mugatzea bezalakoa da.

Ez dago erran beharrik sailburuordeak hizkuntza-minorizazio prozesuek dakartzaten gatazka-dinamikak estaltzeko «elebitasunaren» moztarroari heltzen diola. Horren arabera,

«bi hizkuntza» ditu EAEko gizarteak (283. or.), nahiz eta EAEko hizkuntza-aniztasuna hizkuntza ofizialetatik harago doan, eta bi hizkuntza ofizialak biztanleen zati batek baino ez dakizkien. Jakina da hiztunen zein funtzioen galera, edota superestratuaren bidezko hizkuntzaren berezko ezaugarrien urtzea, honako kasu hauetan baizik ez direla gertatzen: (a) hiztun oro bigarren hizkuntza berean elebidun bihurtu dutenean, edo (b) hiztun guztiek bigarren hizkuntza komunik izan ezean, hiztunak zein bere bigarren hizkuntzaren lurralde-eremuaren arabera banaturik daudenean. Baztarrika, ordea, ez omen da «gai elebakartasunaren onuzeretz ohartzeko, ez baitiogu atzematen ez onura pertsonalik ez *onura sozialik* ere» (282. or., azpimarra gurea da). Setati, honela argudiatu du sailburuordeak: «Euskararen historiak erakutsi digu euskal elebakar asko izateak ez duela eragotzi urte askoko euskararen atzerakada etengabea» (141. or.); euskaldunek euskara uzten ahal izateko erdara ikastea nahi-taezko baldintza izan ez balitz bezala, harik eta euskaldunen erkidegoa espainol zein frantses hizkuntza-komunitateen azpimultzo soila bilakatu arte. Inplikazioz, Baztarrikak berak aitortu du gizarte-elebitasuna funtzionala dela hizkuntza-ordezkapenerako honako egitate hauek nabarmendurik: «gaztelaniaz dagoen guztia euskaraz eduki nahi izatea ez d[el]a eraginkorra» (238. or.), «euskaraz jakitea ez dela *beharrezkoa*» (225. or.), edota «euskal hiztunak, elebiduna denez gero, hizkuntzaren hautua egin behar duela euskaraz jardun nahi badu» (198. or.). «Elebitasun-mota ezberdinen artean gogokoena, elebitasun simetrikoa» omen du sailburuordeak, alegia: «arlo pribatu nahiz publikoan bi hizkuntzetan gaitasun beraz jarduteko gai diren eta jarduten diren herritarrek osaturiko gizarte». Alta, Baztarrikak berak onartu du «munduan» ez dagoela «halakorik» (233. or.). Soziolinguistikaren baitan, aspalditik da ezaguna inexistentzia hori ez dela kontingentea, eta «elebitasun simetrikoko» sasikon-tzeptu bera entelekia hutsa dela. Sailburuordearen iritziz, baina, «[g]urea bezalako egoera batean oso zaila —ezinez-

koa kasik— badirudi ere, [...] elebitasun simetriko edo erabatekoa eraikitzearen idealari eutsi egin behar zaio» (233. or.). Hala ere, ahalbide-baldintzetatik kanpo preskribatzea ez dator bat «errealitate *erreal[era]* —ez errealitate irudikatu[ra] edo amestu[ra]—» (221. or.) hitzetik hortzera jotzea rekin, partekatzen ez duen helburu duten proposamenei sinesgarritasuna kentzeko, Baztarrikak egin bezala.

Hizkuntza-aniztasuna kudeatzeko ereduak ezin zakarra go ezaugarritu ditu sailburuordeak, zertarako eta Espainiako Erresumako marko juridiko-linguistikoa zein EAEko gobernuak egindako garapena hoberena dela ondorioztatzen. Baztarrikaren aburuz, lurralde-ereduak nahiz eredu pertsonalak «hizkuntza-ordezkapenen logika» «elikatzen» dute, eta ez dute balio hizkuntza-aniztasuna bermatzeko (60. or.). Lurralde-ereduari dagokionez, egia da estatuaren lurraldea hizkuntza-eremuka antolatzean datzala, barruti bakoitzeko hizkuntza ofizial bakarra ezarriz (156. or.). Hortik, ordea, ez da eratortzen ahal lurralde-ereduak herritar elebarrak sortzen dituela, eredu hori indarrean dagoen herrialdeetako biztanleen hizkuntza-ezagutzei buruzko datuek frogatu dutenez. Errate baterako, Suitzako biztanleen hizkuntza-ezagutzen inguruan 2008an plazaraturiko inkestaren emaitzen arabera, 18 urtetik goitiko populazioak, bere lehen hizkuntzaz gain, batez bertze bi hizkuntza gehiago dakizki (2,2 alemaneko zein italiarako kantoietan, eta 1,7 frantsesekoan). Ikerketaren zuzendariak nabarmendu bezala, «nur Luxemburg mit 3.0 und Holland mit 2.2 Fremdsprachen liegen noch vor der Schweiz». «Die Schweiz liegt ausserdem signifikant über dem EU15-Durchschnitt von 1.14 Fremdsprachen»¹ (Werlen, 2008: 4). Alabaina, hizkuntza-erkidegoen arteko eskubide-berdintasuna ezartzea da lurralde-ereduaren meriturik behinena. Espainiako marko juridiko-linguistikoak, aldiz, espainolaz bertzeiko hizkuntza-erkidegoak diskriminatu egiten ditu, espainola baino ez duelako jartzen «Estatuaren hizkuntza ofizial» (EK Espainiako Konstituzioaren 3.1 art.). Espainolaren ofizialtasuna Espainiako lurralde

osora hedatzeaz gain, gainontzeko hizkuntzen ofizialtasuna zein bere lurralde-eremura mugatzen du 1978ko Espainiako Konstituzioak (3.2 art.). Horrek espainolaren lurralde-eremu historikoko biztanleen elebakartasuna finkatu du, eta bertze erkidegoei, aldiz, elebitasuna inposatu die. Horrez gainera, espainolaren eta gainontzeko hizkuntzen ofizialtasunaren edukia bera ez da parekoa. Izan ere, Espainiako markoak Erresumako meneko guztiei espainola jakiteko betebeharrak ezartzen die (EKren 3.1 art.), baina bertze edozein hizkuntza ofizial jakiteko betebeharrak orokortua jartzeko aukera debekatu egiten du (82/1986 KAE Konstituzio Auzitegiaren epaia, ekainaren 26koa, 10. ZO zuzenbide-oinarria; 84/1986 KAE, ekainaren 26koa, 2. ZO; eta 31/2010 KAE, ekainaren 28koa, 14.a ZO). Horrenbertzez, marko juridiko-linguistiko horren gibelean dauden helburu soziolinguistikoak nahiko argiak dira: espainolak jakin beharreko hizkuntza izaten jarraitzea Estatuko lurralde orotan, eta gainerako hizkuntza ofizialek, berriz, hautazko izaerari eustea, eta zeinek bere lurralde-eremuan baino ez. Horren aitzinean, 1978ko Espainiako Konstituziotik eratorririko marko juridiko-linguistikoak ezarritako mugak eta zabalduko aukerak arakatu beharrean, saio apologetikoari lotu zaio Baztarrika. Sailburuordearen aburuz, Espainiako Erresumako Konstituzioa ez da «euskararentzat harresi izan, leiho eta arnasbide baizik» (144. or.). Argudia liteke espainolaz bertzeko «Espainiako hizkuntzak» ere ofizialak izatea aurreikusten duela Konstituzioak (3.2 art.), eta autonomia-legegileren bat jatorrizko hizkuntzaren partekaturiko ofizialtasun hori ahalik eta modurik aldekoenean garatzen ahalegindu dela, behe-mailako arauen bitartez. *Berezko hizkuntza* kontzeptuaz Kataluniako legegileak egindako garapena dugu horren lekuko, katalan hutsez zein «katalanez, bederen» erabiltzeko agintzen duen arau-xedapen orok berezkotasunean baitu oinarri, eta horrek Kataluniako erakundeek hizkuntza-politika lurralde-eredurantz aitzineratzen laguntzen du (Solé i Durany, 1996: 108-118; Puig Salellas, 2009 [1998]: 221-226).

EAEEn, bai autonomia-estatutuari buruzko abenduaren 18ko 3/1979 Lege organikoaren 6. artikulua, baita Eusko Legebiltzarraren euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 oinarrizko Legearen 2.ak ere berezkotasun-kontzeptua jaso dute, eta euskarari baino ez diote aitortu. Tamalez, EAeko legegileak ez du kontzeptua garatu, eta udal-mailan baizik ez dituzte garapen-saioak egin. Izan ere, 1989ko otsailaren 1ean Lasarte-Oriako (Gipuzkoa) Udaltzak onetsiriko Udal-arauak, udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko xedea zuenak, ezin argiago adierazi zuen berezko hizkuntza-kontzeptuaren muina lehentasunezko hizkuntza izatean datzala: «Lasartearrok geure herriko hizkuntza propioa euskara dugunez, Lasarte-Oriako Udaletxean hizkuntza normalena eta erabiliena euskarak izan behar du». 2005eko abenduaren 1ean Azpeitiko (Gipuzkoa) Udaltzak onarturiko Ordenantzak, Udalean eta udalerrian euskararen erabileraren sustapena eta normalizazioa bermatzea helburu zuenak, «Udal-organo guztietako ohiko lan-hizkuntza euskara» izanzen zela xedatzen zuen, «udalerriko berezko hizkuntza» dela oinarriturik (18.1 art.). EAeko Auzitegi Nagusiak (74/2007 epaia, otsailaren 12koa) arau hori indargabetu eta Espainiako Auzitegi Gorenak (6997/2009 epaia, ekainaren 3koa) epaia berretsi ostean, 2009ko abenduaren 3an Udaltzak onetsiriko arau berriak, Azpeitiko Udalean eta udalerrian euskararen normalizazioa eraginkorki bermatzeko Udal-ordenantzak, eutsi egin dio aitzineko arauaren edukiari. Horrez gain, arau berriak berezkotasunaren aitortza eta haren arau-ondorioak ez ditu Azpeitiko errealitate soziolinguistikoan agortzen. Aitzitik, aipatu xedapenaren oinarria honakoa da: euskara «*Euskal Herriaren* berezko hizkuntza» dela (18.1 art., azpimarra gurea da). Erakunde publikoen zein haien menpe dauden enpresen hizkuntza-erabilerak arautzean, tokiko egoera soziolinguistikotik eratorri ez, eta autonomia-estatutuak jasotako berezkotasun-printzipiora zuzen jotzea aitzinpauso potentziala da, euskaldun gutxiagoko udalerrietan euskara hutsezko

edota euskararendako lehentasunezko erabilera-esparruak funtsatzea ahalbide lezake-eta. Nolanahi ere, sailburuordeak muzin egin dio horri guztiari, eta gutxiagoturiko hizkuntzetarako erabilera-esparru eskusiboak nahiz lehentasunezkoak oinarritzeko Espainiako hizkuntza-legedian zabalduriko zirrikitu bakarra itxi egin du berezkotasuna honako hona murrizturik: «Euskararen Legean hizkuntza propiotzat euskara hartzearekin adierazi nahi den gauza bakarra da hizkuntza hori dela Euskal Autonomia Erkidegoko gizarteak berak bakarrik —Nafarroako eta Iparraldeko gizarteekin partekatuta, noski— eta beste inork ez duen identitate- eta identifikazio-zeinua, eta lokarri historikoa» (152. or.). Berezkotasunaren ikuskera folkloriko hori Espainiako Konstituzio Auzitegiak berak onarturiko helmenetik beheiti dago. Izan ere, Kataluniako Parlamentuaren apirilaren 18ko hizkuntza-normalkuntzari buruzko 7/1983 Legearen 20. artikulua (Kataluniako ikastetxeek «han de fer de la llengua catalana vehicle d'expressió normal, tant en les activitats internes, incloent-hi les de caràcter administratiu, com en les de projecció externes» xedatzen zuena) ontzat eman zuen Auzitegiak zera argudiatu: katalana Kataluniako berezko hizkuntza dela (337/1994 KAE, abenduaren 23koa, 21. ZO).² Berezkotasunaz Baztarrikak zer ikuspegi murrizta duen oharaturik, ordea, kontzeptuak enbarazu egiten diola ematen du. Izan ere, sailburuordeak zera argi du: «Euskarak munduko hizkuntzen artean behar du[ela] lekua aurkitu, eta hemen gaztelaniaren ondoan eraiki behar zaio[la] behar besteko babesa edo aterpea. 'Gaztelaniaren ondoan' esan dugu; ez, beraz, gaztelaniarik gabe» (254.-255. or.). Espainiako marko juridiko-linguistikoak euskararendako aukera handiagoak ematen ahal baditu, Baztarrikari bortz; uko egiten die hasieratik. Alde horretatik, ohartarazi behar dugu Espainiako Konstituzioak ez dakarrela erakunde publikoen hizkuntza-erabileren gaineko preskripziorik. Eusko Legebiltzarraren 10/1982 aipatu legeak, ordea, EAEn «kokatutako herri-aginteek emandako arau-xedapen zein ebazpen ofizial oro» bi hizkuntza

ofizialetan zabaltzera derrigortzen du (8.1 art.).³ Arau horri salbuespen moduan, eta ez berezkotasunaren ondorioz, Legeak «botere publikoek toki Administrazioaren eremuan euskara bakarrik» erabiltzea baimentzen zuen, betiere bertako errealitate soziolinguistikoa aintzat harturik (8.3 art.). Alta, Espainiako Konstituzio Auzitegiaren ekainaren 26ko 82/1986 epaiak bertan beheiti utzi zuen artikulua hori.⁴ Iñaki Agirreazkuenaga administrazio-zuzenbide katedradunak ohartarazi bezala, epai horrek eta EAEko legegileak 8.3 artikulua il-doko arau berririk garatu ez izanak «euskara lehentasunez erabili nahi duten toki-korporazioak» lege-heldulekurik gabe utzi dituzte euren hizkuntza-erabilerak oinarritze aldera. EAEko Auzitegi Nagusiak nahiz Espainiako Auzitegi Gorenak hizkuntza-erabilerari buruzko hainbat udal-ordenantza indargabetzen lagundu du horrek guztiak (Agirreazkuenaga, 2005: 9-13). Baztarrikaren arabera, ordea, «munduan ezagutzen diren lege-babes gorenetakoa» du euskarak EAEn (166.-167. or.), eta «euskal hiztunen komunitateak egin nahi izan dezakeen ezer ere ez dago, Euskal Autonomia Erkidegoan, legeriak galarazten edota oztopatzen duena» (208.-209. or.). Dena den, noiz eta 1974an hedabide frankistek eurek «nunca lengua y costumbres vascas gozaron de tan amplia libertad» aldarrikaturik («Iglesia y Estado», editoriala, *Abc*, 1974-03-06, 22. or.), are gehiago erranen dute gaur egungo Eusko Jaurlaritzako zein Nafarroako Gobernuako arduradunek.

Sailburuordearen aburuz, «esperientzia arrakastatsuenetakoa eta eredugarrienetakoa da euskararena, Europan ez ezik mundu zabalenean ere» (150. or.), eta «[e]gin dugun bidea eredugarritzat hartu eta aztertzen dute mundu zabaleko toki askotan» (183.-184. or.). EAEko euskara-ezagutzaren bilakara argudiatu du horren lekuko; Baztarrikaren datuen arabera, biztanleen %22k «ongi» zekien euskaraz «duela hogeita bost urte», eta %37,5ek «gaur egun» (176. or.). Bistan da euskararen ezagutzak goiti egin duela, datuak oraino apalak badira ere.⁵ Hala ere, Jaurlaritzaren hizkuntza-politika goreste-ko argudio nahiko kaxkarra da hori, ezagutza-datuak Nafa-

rroan ere hazi baitira.⁶ Horrek erran nahi du Hego Euskal Herrian euskararen nolabaiteko berpizkundea gertatu bada, batik bat 60ko hamarralditik herri-mugimendu euskaltzaleak garaturiko lan erraldoiari zein herritarren engaiamenduari esker izan dela. Bertzenaz, euskararen ezagutzaren Nafarroako gorakada Foru Gobernuaren hizkuntza-politikari zor diogula uste ote du Baztarririk?

Euskararen egoeraren hobekuntzez aritzean, Jaurlaritzaren jarduera nabarmendu ohi du sailburuordeak; menpeko egoerak darraien kontu gogaikarriaren berri ematean, aldiz, herritarren «borondateari» eta «atxikimenduari» —legediak «ordezkatu» ezin omen duenari (208., 225. or.)— edota «gizarteak» ezarririko «mugei» (161., 419. or.) heltzen die. Hizkuntza-ikastereduen sistemaren bilakaeraren interpretazioa aipatuko dugu horren lekuko. Espainol hutsezko ereduari eusteko nazioarteko zuzenbideak zein Espainiako Konstituzio Auzitegiak berak onartu ez duten «seme-alaben irakas-hizkuntza aukeratzeko» sasieskubidera jotzen du Baztarririk (396., 237., 375. or.).⁷ 10/1982 Legeak berak ez du preseski eskubide hori aitortzen (2.b eta 15. art.); eta, aldiz, zera agintzen dio Jaurlaritzari: derrigorrezko ikasketak burutzean ikasleek bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko ezagutza-maila nahikoa izatea bermatzeko hartu beharreko neurriak hartzeko (17. art.). Dena den, Jaurlaritzaren Hezkuntza eta Kultura Saileko uztailaren 11ko 138/1983 Dekretuak hiru ikastereduko sistema ezarri zuen, eta lege-maila eman zion Legebiltzarraren EAEko eskola publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legeak (10. xedapen gehigarria).⁸ Horren arabera, ikasleek eskolak zer hizkuntza ofizialetan jasoko dituzten erabakitzea gurasoen esku da. Sistema horrek, beraz, erantzukizun handia jartzen du herritarren bizkar gainean, euskararen berreskuratze-prozesuari dagokionez. Hala ere, D ereduaren etengabeko gorakadak zein A ereduaren urtez urteko jaitsierak erakusten du herritar gehienek «atxikimendu» handia dutela euskararekiko. Bada hala eta guztiz ere, sailburuordeak berriz ere meritu eurena dela sinestarazi nahi digu, adore handia behar bai-

ta euskararen «hazkundera ulertzeko giltzarri nagusia hizkuntza-ereduen sistemaren» balizko baliagarritasunean datzala aldarrikatzeko (179. or.), Jaurlaritzak ikasleen %0 euskalduntzen duen ereduari eutsirik.⁹ Horrez gain, «70eko hamarkadaren erdialdetik gaur arte», 350.000 ikasle inguru aritu direla EAEko euskaltegietan jakinarazi du Baztarrikak, eta «nekez ikus daiteke[ela] beste inon heldutan eta irakaskuntza araututik kanpo hizkuntza ikasteko halako ahalegin sendoa» nabarmendu du (261. or.). Horri zera baino ez diogu erantsi nahi: euskararekiko herritarren «atxikimendu» handiaren bertze erakusle bat dela, erakundeek oraino ez baitute doan eskaintzen oinarrizko mailako ikastaldirik. Hori dela-eta ezin harrigarriago deritzogu honako baieztapen honi: «Urteotako ibilbidean are gehiago aurreratu ez bada, ez da izan baliabiderik ezagatik» (229. or.). Sailburuordeak berak bere burua gezurtatu du, 10/1982 Legea onetsi eta 27 urtera, «elebidun pabilaren mailara arteko euskara ikasketak ikasle heldu guzientzat doan izateko aukera aztertu eta bideragarri den neurrian ahalbidetzea» proposaturik (290. or.).

Gobernu-erakundeek euskalduntzeari dagokionez, Jaurlaritzak jarraituriko irizpidea «proportziozkoa, arrazoizkoa eta progresiboa» izan dela dio Baztarrikak. Bere datuen arabera, 2007an EAEko erakundeetako beharginen %44k hizkuntza-eskakizunen bat egiaztatua zuen. Datu horren eskasia zuritze aldera «herritarren %37» baizik ez dela elebidun argudiatu du (111. or.). Hala ere, euskararen «behar besteko» ezagutza erakundeetako langileek egiaztaturiko aipatu ehunekoaren baitan gutxieneko erabilera ahalbidetzen ez duten 1. zein 2. hizkuntza-eskakizunak ere badira. Horrez gain, euskara-ezagutzaren derrigortasun-mailak errealitate soziolinguistikoaren arabera jartzeko irizpide murriztailea ez dator bat inkestetan herritarrek emandako iritziekin.¹⁰ Dena dela, «denbora luzea beharko d[el]a osasun-zerbitzuak proportzio altuan euskaraz ere jaso ahal izatera iristeko» iragarri du sailburuordeak (236 or.). Hori zuritzeko herritarren hizkuntza-eskubideak «ez direla absolutuak» argudiatu du,

eta «hizkuntzagatik diskriminatuak ez izateko eskubidea» (303. or.) kontrajarri du. Testuinguru horretan, enplegu publikoa eskuratzeko hizkuntza ofizialetako bat ez jakitea zer eta eskubide bihurtzea erran nahi du horrek. Horregatik guztiagatik zaila da erretolika-kutsurik ez atzematea Baztarririk Espainiako Gobernuari aurpegiaturiko zenbait kexutan. Jaurlaritzako arduradunak, bertzeak bertze, honako egitate hauek txarretsi ditu: «Eleanitza d[el]a Espainiako gizartea, baina erakunde zentralen praktika herrialde elebakar baten praktika d[el]a» (119. or.); Espainiako Justizia Ministerioak «oztopoak jartzen dizkio[la] legeriaren barruan eta bere eskumenen esparruan euskararen erabilera bultzatzen saiatzen denari» (110. or.); edota «bai Estatuko Administrazio periferikoak, bai Justizia Administrazioak, oro har, salbuespenak salbuespen, utzikieriaz jokatu dute[la] eta bizkarrak erakutsi diote[la] praktikan elebitasunari» (324.-325. or.). Halako salaketen bidez sinesgarritasuna lortzeko, ordea, sailburuordeak galdera honi erantzun beharko lioke aitzinetik: noiz izan dira gai horiek «EAEko eta Estatuko gobernuen arteko negoziazio mahairen batean» (Basabe, d/g: 5)?¹¹

Azkenik, herri-mugimendu euskaltzalearekiko Jaurlaritzak betidanik izan duen mesfidantza Baztarrikaren liburuan ere agertzen da nabarmen. Iñaki Zabaleta kazetaritza-katedradunak ohartarazi bezala (2008: 76-77), Jaurlaritzak kontrolatzen ez dituen erakunde euskaltzaleen «indarrak eta ekimenak» «sumindura» itzela eragiten diete Kultura Saileko arduradunei. Sumindura horrek jota, akaso, leporatu dio sailburuordeak mugimendu euskaltzaleari «instituzio paraleloen dinamika bultzatu eta ezker abertzale tradizionalari bere estrategia politikorako bazka ematea» (278. or.). Halako erasoak are ulergaitzagoak dira honakoa aintzat harturik: AEK Alfabetatze eta Euskalduntze Koordinakundea edota Hizkuntza Eskubideen Behatokia sortu zirela gobernu-erakundeek deus egiten ez zutelako helduak euskalduntzeko eta hizkuntza-eskubideak babesteko, hurrenez hurren. Herri-mugimenduak erakunde horiek eratu ostean baino ez ditu Jaur-

laritzak eginkizun bereko erakunde publikoak sortu, jardue-
ra-esparrua EAera mugaturik dutenak. Sailburuordeak be-
gitan harturiko erakundeak, aldiz, Euskal Herri osoan ari-
tzen dira. Inplikazioz, halako erasoek erakusten dute Nafa-
rroan eta Iparraldean euskara berreskuratzeari nolako ga-
rrantzia ematen dion Baztarririkak. Horrez gain, herritarren
«kontzientzian», «borondatean» nahiz euskararekiko «atxi-
kimenduan» sailburuordeak jarririko enfasia ez dator bat
herritarrak bere kontroletik kanpo antolatzen direnean ager-
turiko mesfidantza-jarrerarekin.¶

-
1. «Luxenburgo, 3,0 atzerriko hizkuntzaren batez bertzekoa duela, eta Her-
behereak, 2,2koa dutela, baizik ez daude Suitzatik goiti. Horrez gain, Sui-
tza Europar Batasuneko 15eko 1,14 atzerriko hizkuntzaren batez bertze-
kotik nabarmen goiti dago.»
 2. «[E]l catalán, lengua propia de Cataluña, es lengua oficial en el territorio
de la Comunidad Autónoma en virtud del art. 3.2 C.E. y el art. 3 del
E.A.C. y, en lo que aquí interesa, es también la lengua de la Generalidad
y de la Administración territorial catalana, de la Administración local y
de las demás corporaciones públicas dependientes de la Generalidad (art.
5.1 de la Ley 7/1983). Lo que indudablemente incluye a la Administra-
ción educativa». Dena den, berezkotasunaz Baztarririkak duen ikuspegia
bat dator Espainiako Konstituzio Auzitegiaren ekainaren 28ko 31/2010
epaiak dakarrenarekin (14.a ZO). Konstituzio Auzitegiak, baina, berezko-
tasunetik ondorio juridiko bat eratorri du, baina kontrako noranzkoan,
hots, espainolaz bertzeko hizkuntza ofizialen aldeko neurriak hartzeko
lege-tartea gehiago murrizteko norabidean. Magistratuen erranetan, «[e]l
carácter propio de una lengua española distinta del castellano es, por tan-
to, la condición inexcusable para su reconocimiento como lengua oficial
por un Estatuto de Autonomía». Bistan da, ordea, berrinterpretazio teleo-
logiko horrek, Auzitegi beraren 337/1994 epaiaren doktrina iraultzeaz
gain, talka egiten duela Espainiako konstituzionalitate-blokearekin be-
rekin. Izan ere, Espainiako Konstituzioaren 3.2 artikulua arabera, «Es-
painiako beste hizkuntzak ere ofizialak» izanen dira, eta inon ez da berez-
kotasun-kontzeptuari aipamenik. Ildo beretik, Nafarroako foru eraentza
berrezartzeari eta hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege or-
ganikoaren 9.2 artikulua «Nafarroako eskualde euskaldunetan» euska-
rak ere «hizkuntza ofizialaren maila» izanen duela dio, berezkotasuna ai-
patu gabe. Horregatik guztiagatik, Eva Pons (2010) konstituzio-zuzenbi-
de irakasleak nabarmendu bezala, berezkotasun-kontzeptuaren erran-
nahia, orain arte aski argia zena, ilundu baino ez du egin 31/2010 epaiak.

3. Arlo sozioekonomikoan, EAEko erabiltzaileen eta kontsumitzaileen estatutua arautzen duen Legebiltzarraren abenduaren 22ko 6/2003 Legeak hizkuntza-xedapenak ere baditu (38.-40. art.), Jaurlearitzaileen uztailaren 1eko 123/2008 Dekretuak, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza-eskubideei buruzkoak, garatzen dituena. Agindu horiek, baina, ofizialtasunetik baizik ez dira eratorri, eta horrek ere elebiz aritzeko inposatzea dakar. Arau-teknika hori «Kataluniako Hizkuntza Politikaren Legean arlo sozioekonomikorako finkatutakoaren bide beretik» doala baieztatu du sailburuordeak (334. or.). Hala ere, Kataluniako Parlamentuaren urtarrilaren 7ko 1/1998 Legeak norbanako eskubideen aitortza baino ez du eratorri ofizialtasun-kontzeptutik; hizkuntza-erabilera generikoei buruzko preskripzioei dagokienez, aldiz, berezkotasunari heldu dio. Horri esker, xedapen horietan «katalanez, bederen» erabiltzeko baizik ez du agintzen Kataluniako legediak.
4. Epai horretaz sailburuordeak eginiko iruzkinean (301.-302. or.), 8.3 artikulua gaineko ebazpena aipatu ere ez du egin, eta Auzitegiak ontzat emaniko artikuluei buruzkoak baizik ez ditu jorratu.
5. Inkestatuek adieraziriko ezagutzatik behaturiko erabileretara jotzen badugu, are apalagoak dira datuak. Izan ere, Euskal Herriko V. Kale Erabileraren Neurketak, 2006koak, honako ehuneko hauek eman ditu EAEko herrialdeei dagokienez: 32,7 Gipuzkoan, 10,4 Bizkaian, eta 4,7 Araban (Amonarriz, 2007: 36). Horrez gain, Baztarririk berak ahulgune larriak badirela ohartarazi du, hala nola, euskaldun zaharren hizkuntza-portaeraren (235.-236. or.) edota ekonomiaren «esparru pribatuan» (203. or.). Baztarririk ohartarazi du euskarak erabilera ia eksklusiboa zuten esparruetan ere sartu dela espainola (197., 208. or.), eta «etxeko erabilera» «mantendu» baino ez dela egin «azken hamabost urteotan» (200.-201. or.).
6. 1986ko erroldako datuen arabera, Nafarroako bi urtetik goitiko biztanleen %15,4k euskarazko trebeziaren bat bazuen eta %10,2 ongi mintzatzeko gai bazen. 2001eko erroldan, ehuneko horiek 20,9n eta 18,8n ziren, hurrenez hurren, eta 15 urtetik beheitiko biztanleen artean, 34,9n eta 21,3n (Gros i Lladós, 2007: 220-221, 232).
7. Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren arabera, bazterketa-eza printzipioa jasotzen duen giza-eskubideen eta oinarriko libertateen Europako Hitzarmenaren 14. artikulua (hezkuntza-eskubidea ukatzea debekatzen duen zein estatuei hezkuntza-arloan gurasoen filosofia- zein erlijio-sinesmenak errespetatzeko agintzen dien Hitzarmenaren Protokoloaren gehigarriaren 2. artikulua erekin uztarturik ere), «n'a pas pour effet de garantir aux enfants ou à leurs parents le droit à une instruction dispensée dans la langue de leur choix». Aitzitik, epaileek nabarmendu bezala, «interpréter ces deux dispositions comme reconnaissant à toute personne placée sous la juridiction d'un État un droit à être instruite dans la langue de son choix conduirait à des résultats absurdes, car chacun pourrait ainsi revendiquer une instruction donnée dans n'importe quelle langue dans l'un quelconque des territoires des Parties Contractantes» (Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia, 1968ko uztailaren 23koa, «Affaire 'relative

- à certains aspects du régime linguistique de l'enseignement en Belgique», 32. or.). Espainiako Konstituzio Auzitegiari dagokionez, ez onartzeaz gain, ukatu egin du, berariaz, halako eskubiderik dagoenik: «el contenido del deber constitucional de conocimiento del castellano —que este Tribunal ha precisado en la STC 82/1986— no puede generar un pretendido derecho a recibir la enseñanza única y exclusivamente en castellano» (337/1994 KAE, abenduaren 23koa, 9.b ZO).
8. Baztarririk *Euskararen aldeko hitzarmen politiko eta sozial* deritzanak «euskal gizartea hizkuntzaren arabera gizaldetan zatitzea eta bereiztea» saihesteko xedea omen zuen (157. or.). Bistan da, ordea, horretan datzala, preseski, hizkuntza-ereduen sistema. Horrez gain, sailburuordeak «gizarte-» zein «lurralde-kohesiora» jotzen badu ere, ikasleek bi hizkuntza ofizialak jakitea galarazten duen ikasteredua ezartzeak ikasleen lan-aukerak murriztu egiten ditu, eta, oro har, gizarte-ezberdintasunak areagotu egiten ditu, gehiengo sindikalak behin eta berriz salatu bezala.
9. A ereduaren erabateko porrotaren aitzinean ikasleen euskalduntze alde- ra, eredu hori ezabatu egin behar dela aitortu beharrean, dedukziozko logika-irakaspenak emateari ekin dio sailburuordeak. Baztarririkaren iritziz, hiru faktorek eragiten diote ikasleen euskalduntzeari: (a) zer eredu auke- ratzen den; (b) familia-hizkuntza zein den; eta (c) ikaslearen ingurunea euskalduna denetz (384. or.). Sailburuordearen datuen arabera, D eredu- ko ikasleen %32k ez du behar bertzeiko euskara-ezagutza derrigorrezko hezkuntza amaitzean, eta ehuneko hori 52,4 da euskara familia-hizkuntza ez duten ikasleen kasuan (383.-384. or.). Nahiz eta premisa horietatik soi- lik ondorioztatzen den A eredia kentzea ez dela baldintza nahikoa ikas- leak euskalduntzeko, Baztarririk eratorri nahi izan du «gutxienez urte- o- tako sistemak izan duen adinako adostasunik gabe, hobe aldaketa estru- k- turalik ez aurrera ateratzea» (393. or.). Horrek erran nahi du, EAJk eta PSEk kontrakoa adosten ez duten bitartean, %100eko portzentajez erdal elebakarrak «prestatzen» dituzten eskolak izan behar direla EAEn. Na- barmentu beharrekoa da kritikak indargabetzeko «interes politiko jakin batzuen» mamua inarrosi ohi duen sailburuordeak (186., 264., 268., 277.- 278., 418.-419. or.) alderdi politikoetako buruzagien borondate zein inte- res aldakorren menpe utzi duela euskalduntze-prozesua. Horrez gain, ez du- gu entelegatzen ahal zertan eragiten dion lege baten aldeko botoa ema- ten duen legebiltzarkide kopuruak lege horretatik eratorririko zeinahi hizkuntza-eredutako ikasleen euskara-ezagutza mailari.
10. 2010eko abenduan EAeko 15 urtetik goitiko herritarrei eginiko inkesta- ren emaitzen arabera, populazioaren %72 bat dator *ezinbestekoa da jendea- ren aurrean lan egiten duten funtzionarioek euskaraz hitz egitea* iritziare- kin. Ildo beretik, inkestatuen %69k uste du «EAEn lan egiten duten fun- tzionario guztiak euskara ikasi beharko luketela» (Eusko Jaurlaritzaren Le- hendakaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetea, 2011: 15 eta 12).
11. Bertzalde, sailburuordea Jaurlaritzaren hizkuntza-politikaren kritikak «ezker abertzale tradizionalaren» amarru gisa salatzen ahalegintzen bada ere, Aralarreko koordinatzaileordea zen Basabe galdera hori plazaratzean.

Bibliografia

- Agirreazkuenaga, Iñaki (2005): «Euskararen ofizialtasuna. EAEko kontsumitzaile eta erabiltzaileen Estatutuaren aplikazio juridikoa», 2005eko martxoaren 16an eta 17an merkataritzan eta zerbitzugintzan hizkuntza-normalizazioari buruz Oñatin (Gipuzkoa) Debagoieneko Mankomunitateak antolatutako jardunaldietan eskainiriko hitzaldia (www.ieuskaraz.net/jarduerak/iker/merkataritza/agirreazku.pdf).
- Amonarriz, Kike (2007): «2006ko hizkuntzen kale-erabileraren neurketa: aurreikuspenak eta emaitzak», *Bat. Soziolinguistika Aldizkaria* 64.
- Basabe, Mikel (datarik gabe): «Euskara 21», Euskararen Aholku Batzordearen XXI. mendeko hizkuntza politikaren oinarriak dokumentuari eginiko ekarpena (http://blog.euskara21.euskadi.net/uploads/file/Batzordekideen%20ekarpenak/mikel-basabe_eus.pdf).
- Bastarrika, Patxi (2009): *Babeli gorazarre. Bizikidetzarako hizkuntza politika zilegi eta eraginkorra*, Alberdania, Irun.
- Eusko Jaurlaritzaren Lehendakariitzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetea (2011): *Euskara: erabilera, jarrerak, politikak* (www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/contenidos/informe_estudio/o_10tef3_euskera/eu_10tef3_adjuntos/10tef3_euskera_eu.pdf).
- Gros i Lladós, Miquel (2007): *Recuperación del euskera en Navarra*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Murgades, Josep (1996): «Debats sobre la llengua del 1968 ençà» (1993), in *id.: Llengua i discriminació*, Curial, Bartzelona.
- Pons, Eva (2010): «La llengua (en la sentència de 28 de gener [sic] de 2010)», *Revista Catalana de Dret Públic*, Espainiako Konstituzio Auzitegiaren 31/2010 epaiari buruzko zenbaki berezia (www10.gencat.net/eapc_revista_dret/recursos_interes/especial%20estatut/documents%20especial%20estatut/pdfs/06_Pons_llengua_vo_ca.pdf).
- Puig Salellas, Josep Maria (2009): «Els grans conceptes de la doble oficialitat en la Llei 1/1998, de política lingüística» (1998), in *id.: Doble oficialitat i llengua pròpia: dues llengües i un territori*, Marcial Pons, Madril, Ester Franquesak eta Lluís Jouk prestatuturiko edizioa.
- Solé i Durany, Joan Ramon (1996): «El concepte de llengua pròpia en el dret i en la normalització de l'idioma a Catalunya», *Revista de Llengua i Dret* 26.
- Werlen, Iwar (2008): «Schlussbericht. Sprachkompetenz der erwachsenen Bevölkerung in der Schweiz». «Sprachvielfalt und Sprachkompetenz in der Schweiz, Nationales Forschungsprogramm 56» egitasmoaren baitan garaturiko ikerketaren amaierako txostena (http://nfp56.ch/f_projekt.cfm?Projects.Command=details&get=13&kati=2).
- Zabaleta, Iñaki (2008): «Bat bitan beti», *Jakin* 169.

Postmodernitatea, gaurko mundurako filosofia berria

IRAITZ URKULO

Euskal literaturan doktoregiaia

Sarrera

«Postmoderno» terminoa literatura eta arte kritikaren esparruan agertzen da 70eko hamarkadako Estatu Batuetan; ondoren, filosofiaren esparruan, Lyotarden (1979) obraren izenburuan agertu eta gero, bere erabilera normaltzen hasi zen.¹

Hainbat postmodernistak ustearen ideian (hau da, susmoaren teorian) oinarritutako erlatibismo bortitzari eusten dio gaur egun, usteak eztabaida sortzeko duen alferrikakotasuna, ezintasuna adieraziz. Erlatibismoaren ikuspegi zorrotz horrek, bestalde, kritika ugari izan ditu. Nire aldetik, ez nuke inolaz ere azterketa hau axolagabetasunaren putzurik sakonenean erortzea nahi.

Horrexegatik, ezkortasun eta oztopo guztien gainetik, postmodernitateak paisaia filosofiko orokorrari alderdi eta eztabaidagai interesgarri asko eskaini dizkiolakoan nago; hona hemen horietako batzuk: kontzeptuen ahuldadea, aipatutako erlatibitatea, arrazoimen hutsaren ordeztarrazoia emateko jardueraren tolerantzia proposatzea... Azken batean,

gure mundua ezagutzeko arrazoiketa forma berriak agerian geratu dira, «gauzak ikusteko modua» da aldatu dena; ez es-
 trukturalismo formalaren erara, baizik eta tokian tokiko au-
 zi praktikoen bitartez ondorioztatutakoak.

Ildo beretik ekin diot nik ere postmodernitatea aztertzea-
 ri. Hasteko, terminoa historian kokatzeko ahalegina egin
 dut. Ondoren, bizi dugun garaiari postmoderno deitzeko
 arrazoi sendoak daudela azaltzen saiatu naiz. Zenbait filoso-
 foren ekarpenak bildu ditut gero, bai postmodernitatean
 jardun direnenak, baita horretan eragina izan dutenenak
 ere. Ikerlanaren azken lerroak postmodernitatearen etorki-
 zuneko irauteaz zerbait esateko gorde ditut, ausardia barka-
 tuko zaidalakoan.

Eta sarrera hau amaitu baino lehen, ohar bat: korronte
 postmodernoaren ikuspegi osoagoa eskaintzeko asmoz, al-
 dizkariaren hurrengo zenbaki batek euskal postmodernita-
 te literarioari buruzko artikulua ekarriko du, honakoaren
 jarraipen gisa. «Postmodernitatea euskal narratiban: subjek-
 tuaren krisiaz» izenburua daraman artikulua horretan, be-
 raz, egungo euskal literaturari eragiten dion postmodernita-
 teaz hausnartzeko aukera egongo da. Era berean, maila teo-
 rikoa gaindituz, Gonzalo Etxagueren *Ahots bilduma* (Alber-
 dania, 2003) eta Jon Martinen *Ero* (Elkar, 2008) liburuen
 azterketa kritikoa burutuko dut, subjektu postmodernoaren
 krisian murgilduz, pertsonaia eroak abiapuntutzat hartuta.

Postmodernitatearen kontzeptua ainguratzen

Modernitatetik postmodernitaterantz

Postmodernitateak bere egiten dituen ikusmolde ezberdi-
 nak aurkeztu baino lehen, sorburura joko dut. Azter ditza-
 gun, bada, zein izan ziren modernitatearen bilakaeran gain-
 behera ekarri zuten faktore historikoak.

Modernitatea, Erdi Aroan hasitako pentsamendu-korrone-
 ta izanik, batez ere Descartes-en filosofiarekin (razionalis-

moarekin hain zuzen) garatu zen, eta XVII-XVIII. mendeetan arrakasta itzela lortu zuen. Modernitatea zerbaitek ezaugarritzen badu, horixe existentziaren razionalizazioa da. Arrazoimena Jainko berria bilakatu zen. Momentu zehatz horretatik aurrera finkatzen hasi ziren gizarte utopiko baterako oinarriak, postmodernitateak erabat deuseztatuko dituenak.

Erdi Aroko gizarte komertzialetan, pixkanaka-pixkanaka, burgesia, estamentu bezala, gero eta botere handiagoa eskuratzuz joan zen. Harreman ekonomikoen bidezko sistema horrek, denborarekin, kapitalismoaren agerpena bideratuko zuen. Mundua ezagutzeko, zientifikoki aztertzeo..., azken batean, errealitatera hurbiltzeko nahia zen garai horretako gizakiaren ezaugarri nabarmenena.

Erljioari dagokionez, Eliza kristauaren islapen subjektiboa goiz hasi zen, XV. mendean jada, Lutero eta Calvinoren erreforma protestanteak bultzaturik. Bibliaren irakurketa askeak, bitxia badirudi ere, Descartes proposamenera itzularazten gaitu. Hau da, egia norberak aurki zezakeen, arrazoimenaren laguntzaz, edonori suposatzen zitzaion-eta Jainkoaren Hitza egoki interpretatzeko gaitasuna. Gogora bedi arrazoimen cartesiarraren leloa: *pentsatzen dut, beraz existitzen naiz*; hauxe izango da garaiko egia nagusia.

Kristautasunaren beldurraren erreinuak, haize berriek hala beharturik, ez zuen jarraipenik izan. Aitzitik, Eliza garai berrietan bere proiektua bideratzen saiatu zen (XVI. mendean, Trentoko Kontzilioa motor garrantzitsua izan zen), eta bidean ez zegokion botere sozio-politikoa bereganatzea lortu zuen. Hala ere, onartu behar dugu aukera bakarra izatetik urrun dagoela gaur, gizakiaren askatasuna onartuz gero munduan ehunka erlijio jaio baitziren; egun gizarte laikoen ugaltzeaz ohartzea besterik ez dago.

XVII. mendean zientzia naturalen arloak aurrerapauso azkar eta sakonak jasan zituen, besteak beste, Bacon eta Galileo bezalako ikerlari enpirista eta iluministen eskutik. Arrazoimen eta zientziaren arrakasta berehala hedatu zen bizitzaren arlo guztietara, ezagutzaren erregimena ezarriz. Eta

hori ez da harritzekoa, dagoeneko XV. mendean, Errenazimendu eta Humanismoaren garaian, Jainkoa pentsamenduaren erdigunetik behartuta aldendua baitzen, gizakiari lekua utziz. Gizakia munduaren egile eta onuradun bakarra bihurtu zen momentu horretatik aurrera. Bilakaera horretan gorputzaren gozamina eta bestelako desira lurtar ugari arimaren salbazioaren kontzeptu erlijiosoaren parean jarriko dira. Goiz da oraindik sekularizazio-prozesuaz hitz egiteko, baina ukazina da giza kontzientziak esnatuz joan zirela. Etorkizunaren eraikitze-lana Antzinate Klasikoan oinarritzea erabaki zuten, lan erraldoi perfektu horiekin aseko zen izpiritu berria.

Esan bezala, mugarik gabeko aurrerakuntzan aritzea ahalbidetzen zuen tresna arrazoimena zen, gizakiari berez zegokion gaitasuna, hain zuzen. Horren bidez norbanakoaren esperientzia antola zitekeen, munduko egitura razionala mantentzeko legeak sortzearekin batera. Arrazoimenaren boterea ez zen inolaz ere zalantzan jartzen; areago, bere aginduak era arrunt, logiko eta naturalean onartzen ziren. Indibiduo postmodernoa, aldiz, arrazoibide ugari erabiliko ditu, betiere bere interesetara moldatuz. Horrexegatik, maiz subjektu kontrajarria izango da, pertsonalitate asko izango balitu bezala jokatu du. Modernitatean tentsioan eta borroka etengabe sentitzen zen egunerokoa, drama eta pasio barik biziko da postmodernitatean.

Kanten ekarpena arrazoimenean oinarritutako etika unibertsal baterako proposamena izan zen. Berarentzat beharrak bultzaturiko edozein ekintza ona zen. Ideia horretatik abiatuz, behar laiko behar erlijiosoari gailentzen zitzaion. Moralki gaitzesgarria omen zen, ordea, besteek egin ditzaten nahi ez ditugun ekintzak geuk burutzea. Moralaren alde onarekin egia unibertsalak eraiki zitezkeen, eta horietaz baliatu zen filosofoa, hain zuzen, bere etika famatua sortzeko.

Demokraziaren unibertsala XVIII. mende bukaeran gauzatu zela esan dezakegu, eta Frantziako Iraultza izan zuen bultzatzaile nagusi. Bizimodu horren bertsio liberalak zen-

tzua eman zion modernitateko gizarte politikoaren proiektuari. Azken batean, Rousseau, Voltaire eta Montesquieuren askatasuna eta berdintasuna aldarrikatzen zuten. Baina, aldiz, ez zuten kontuan hartu demokrazia beste gobernu-era bat baino ez zela, monarkia edo noblezia bezalakoxea, eta, ondorioz, gizakia sistemara makurtzea, askatasuna murriztea zekarrela ezinbestez.

Hauxe da modernitatearen sistemak praktikan agertzen duen zailtasun nagusia: nola da posible aniztasunaren ordezkioak diren nahi indibidualak, printzipioz mugagabeak, definizioz mugak ezarri behar dituen nahi kolektiboan uztartzea? Aniztasunaren neutralizazioa da, hain zuzen, demokraziaren funtzioa. Gizartearen berezko heterogeneotasuna herriaren subiranotasunari suposatzen zaion homogeneotasunarekin kontrajartzen da.

Estatuen zentralismoak zanpaturiko nazio-kontzientziak esnatzen hasi ziren, mugimendu periferikotan biltzeko beste aukerarik eskura ez bazeukaten ere. Zenbait herrik (euskalduna, serbiarra, palestinarra, kurdua, kroaziarra...), globalizazioaren hastapenetan, ideal abertzaleari eutsi zioten (eskakizunetan arrakasta izan zuten ala ez beste kontu bat litzateke), historian mantentzeko modurik eraginkorra izan zitekeelakoan.

Horregatik guztiagatik, demokrazian oinarritutako bizimoduak, fenomeno global gisa, ez zuen aurrera egin, eta antolaketa politikoan, laster, kapitalismo liberalaren eremutik kanpo zeuden eredu batzuk sendotu ziren. Industri Iraultzak lana eta harreman laboralak ulertzeko ikuspegi berriak zabaldu zituen. Produkzioaren kateak jasandako mekanizazioa dela-eta atera zen Marx langileen eskubideen aldeko defentsan. Alienazioaren eta burgesiaren botere zapaltzailearen aurkako borroka eztanda egin zuen. Hala ere, marxismoaren langile-iraultzak, gizakiaren gainontzeko ideal askatzailleen bide beretik, ez zuen fruiturik eman. Kapitalismo ekonomikoaren izpirituak bere horretan dirau, baina gero eta nabarmenagoa da merkatuak herri kolonizatuetan eragiten

duen sarraskia, garatu gabeko gizarte horiek gero eta gehiago txirotuz eta marjinaltasunik sakonenean lurperatuz.

Ideal handi horiek guztiak, lehenago edo geroago, porrota sufritzera kondenaturik zeuden, ez hainbeste gaurko ikuspegi postmodernotik egiten zaien kritikaren erruz, baidetik eta bere aplikazio praktikoan azaleratu zituzten ondorio kontrajarriengatik. Mugarik gabeko zientziaren aurrerakuntza omen zenak azkenean betidanik aurrean zeukan horma jo zuen. Nolabait adieraztearren, *Frankenstein*en fikzioa ezin errealago bilakatu zitzairen orduko zientzialariei. Moralaren eta teknikaren arteko banaketa progresiboa gertatu zen, oraindik argitu barik jarraitzen duten eztabaida latzak sortuz. Hain esfortzu erraldoia burutu eta gero, konturatzen hasi ziren lanak, helburuak helburu, ez zekarrela inongo zoriontasunik, alienazio eta produkzioaren gatibu egiteaz gain. Heideggerrek honela adierazi zuen: *objektu teknikoak erabil ditzakegu, egoki baliatuz, baina haietatik aske mantenduz betiere*.

Aldaketa arlo erlijiosoan, zientifikoan, teknologikoan, politikoan, ekonomikoan, sozialean, kulturean... modernitatearen sistema osoan zehar hedatu zen. Tradizioak finkatutako guztiarekin haustea suposatzen zuen dinamika berriak. Gizakia munduaren, existentziaren erdigune bihurtu zen. Era honetan, ezagutza lantzen hasi zen eta orduan iritsi zitzaion inguratzen zuen errealitatearekiko desengainua. Max Weberrek aurreratu bezala, momentu hori helduta, gizakiak ilusioa galduko luke eta jada ez legoke ezer berririk ezagutzeko.

Dena kontrolatzen zuen Arrazoimen nagusi hori ere mito bihurtu zuten postmodernitatearen aitzindari deitu izan direnek: Freud eta Nietzsche. Freudek giza-ekintza bakoitzaren atzean, arrazoimena ez, inkontzientzia zegoela aldarrikatu zuen. Nietzschek, bere aldetik, moral tradizionalaren aurka mantendu zuen borrokan irrazionaltasunaren menpe gaudela gogotsu defendatu zuen. Naturaz kontrakoa zen *esklabo*en moral horrek mina, txikitasuna, umiltasuna, ontasuna, objektibitatea, maitasuna goratzen zituen *jauntxo*en

moralaren ordez, zeinak bizitza, boterea, handitasuna, plazera eta gizontasuna islatzen zituen. Horrela, erlijioak zabalduko *artalde-balioak* sutsu kritikatu ziren. Ulergarria den bezala, eraso horiekin arrazoimenaren zutabe modernoak ezin izan zuen zutik iraun eta bere idealak lurpean gorde behar izan ziren.

Krisia eremu guztietara hedatuta, ez dago zalantzarik garai berri baten jaiotza dela hori. Gizakiaren, munduaren eta, oro har, arazoen ikuspegi oso, orokor bat ematea ez da posible gaur egun. Nahasmena da nagusi. Behin-behineko interpretazioekin, errealitatearen ulermen-prozesu subjektiboekin etsi beharko dugu. Gizakiak, berriz ere historian zehar, bere buruaz galdetu beharko du, baina oraingoan, Jainko edo botere gorenaren baten babesik ezean, bere baitan bilatu beharko du esentzia galdua ordezka dezakeenik. Ez da erraza izango, baina ez zaio beste irtenbiderik geratzen behingoz beregaina izan nahi badu.

Kapitalismoaren besoak

Desengainu postmodernoa

Iluministentzat, modernitatea bateratasun eta ezberdintasunaren arteko tentsioak definitzen zuen, harmonia gisakoa bilatzen zuen aldi historiko baten barnean kokatzen zuten. Ikuspegi baikor hori desagertu egin da gaur; inork ez luke sinetsiko jada zientzia, moral eta artearen loturaren bidez aurrerapen soziala eta naturaren kontrola lor daitezkeenik. Ontasuna, egia edo edertasuna modernitatearen ilusioari zegozkion kontzeptuak dira. Ilusio horren gainbeherak desengainu postmodernoa eragin du: razionalitate ezberdinen bereizketan erabateko hausketa atzematen da. Horregatik, modernitatearekiko apurketa horretan, osotasun-erreferentzia guztiei uko egiten zaie automatikoki. Desengainuak bi aurpegi erakusten ditu: ilusioa galtzea eta errealitatearen berinterpretazioa.

Postmodernitatea zail aplikatu daiteke garatu gabeko herrialdeetan; neokolonialismo ekonomikotik salbu dauden herrialde garatuetan gertatzen den fenomeno eksklusiboa da. Herrialde txiroak noizbait zulotik irteteko itxaropenez bizi dira, izpiritu iraultzailea mantentzen dute; baina lehenengo munduan, ongizate-gizartearen etorrerarekin batera utopiak alde egin du, gizakia inoiz baino erosoago bizitzera ohitu baita.

Mundu garatuan, historia irakurtzeko orduan, identitate bakarra eta lineala ukatu eta mendeetan zehar homogeneizatutako identitate ideal asmatu eta faltsuaren aurka jotzen da. Aspektu horren oinarrian aurki daiteke estatuen arteko gorroto historikoa, gizartei egokitzen zaien herritar/atzeritar eta lagun/arerio kontrajarpenak direla eta. Testuinguru horretan, politikaren zatikatzearen eta identitateen aldarrikapenaren (etniko edo soziokulturala) arteko harreman estuak berebiziko garrantzia hartzen du. Osagaiak, hortaz, aldatu egin dira: ordena eta integraziotik ezberdintasun eta berezitasunera pasatu dira. Mutur bien arteko tentsioak postmodernitatearen aberastasuna gordetzen du.

Izpiritu dekadentea. Irrealitatearen aurpegi iluna

Mundua baso itzaltsu eta beldurgarri bihurtu da gizaki postmodernoarentzat. Ezinezkoa zaigu bide argitsuak aurkitzea bertan, eta ezin dugu ezer egin sortarazten dizkigun ikara eta itxaropen ezaren aurka. Irtenbide bakarra norbanakoa subjektu gisa aztertzea da, iluntasunean argi txiki bat piztu nahian, edo, beste barik, beste alde batera zuzentzea begirada, irrealtasunean sustraituz. Jainkoaren babesik gabeko baso hori gaur egungo gizarte postmodernoaren metafora litzateke. Irudi beldurgarri horrek jada fantasia apokaliptikoaren mugak iragan ditu, errealitatearen eremuan kokatzeko. Zibilizazio berria hurrengo balioen gainean erakita dago: individualismoa, *mass media*, moralaren desagertzea, itxura gordetzea, nartzisismoa, hedonismoa, intimitatearen eta gorputzaren kultuak...

Mundu berri batean, humanitatearen historian hurrengo aldiaren atarian gaude, beraz, non zentzu barik bizitzea posible den; helburu handiak eustearen konpromisoa bukatu egin da. Haizeak markatzen duen norabideari adi egotea tokatu zaigu. Fenomeno sozialekiko axolagabetasuna nagusitu da eta denboraren iragaiteak ez du funtzio antolatzailekik berehalako momentuaren aurrean. Oraina bizitzeak zalantza aldentzen du. Telebistarena da botererik iraunkorrena, nahiz eta bere aginduak minutu gutxiren buruan desegiten diren.

Hala ere, postmodernitatea moda hutsa baino askoz gehiago da, axolagabetasunaren konnotazio txarretatik harago, gustu eta jokabide guztiak elkarrekin, gertu bizi daitezkeelako, batak bestea gaitzetsi barik. Era honetan, subjektuak nolabaiteko sinkretismo indibiduala esperimintatzen du, aldi berean jakintza eta azalkearen artean, ezker eta eskuinaren artean, ongi eta gaizkiaren artean mugituz, hautu bakoitzaren ondorioez hausnartzera edo sailkapenak egitera gelditu barik betiere. Itxurakeriaren erreinuan, subjektuak egunero milaka identitate ezberdin har ditzake, edozer izatera jolastuz, ezer ez izanez. Paradoxikoki, originaltasuna harribitxi bat baltz bezala jotzen den garaian, itxura besteekin parekatzeko balio zaigu, hainbeste beldurtzen gaituzten aldeak ezabatzeke. «Lagun», «maitasun» edo «normal» bezalako terminoen berrikuspena eskatzen du postmodernitateak, tradizio modernoan oinarritutako sistematik hartutako guztia krisian dagoelako, zalantzan jartzeko prest. Bizitza tragikomedia bilakatu zaigu, handiuste eta errukiaren artean garatzen dena.

Subjektu postmodernoa Nietzschek amestutako supergizonarengandik oso urrun geratu da. Gizaki hori ez da gai balio berriak aplikatzeko, ez zaio perfekzio klasikoa ukitzeke ahaleginik nabari, ziurtasun txikien babesa lortzeko beharrezkoak diren balioen faltan dago. Ardura historikoak onartzea pentsaezina iruditzen zaio, eta erabaki larrietan parte hartzeko ezintasun erabat ziurra atzematen da. Moral nagusirik ezean, uste ezberdinen joan-etorriak ugariak dira, eta horretan oinarritzen du, hain zuzen ere, benetakoa ez

den askatasun sentrazioa. Azken finean, hori guztia dela eta, gizakiak bere deuseztapena bilatzen du, adostutako suizidio kolektibo baten antzera.

Soilik mass mediak, komunikabideek ateratzen gaituzte loguratik, haiena baita giza kontzientzia menperatzeko metodo eragingarria. Heltzen zaigun informazio guztia, iragarriak barne, aurretik bere eskuetatik pasatu da. Informazioaren bonbardaketa etengabeak ez digu pentsatzeko astirik uzten. Izan ere, postmodernitatearen axolagabetasuna ez da gabeziaren emaitza, baizik eta gehiegizko informazioarena. Informazio hutsalek gainezka egiten dute gure burmuinean, eta oroimenak, irudi eta eszena krudelenak izanik ere, laster ahazten ditu. Eta espiral batean harrapatu aurkitzen gara, hurrengo moda noiz etorriko, zirkuaren antzeko espektakulu batean bizi bagina bezala.

Horrela, ez da batere zaila balioen trukagarritasunaren fenomeno ulertzea. Estetikaren menpe egotera, marketinaren aginduak betetzera ohitu gara. Ezin dugu inguratzen gaituen azakeria gainditu, besteen sufrimenduaz ohartzeko gaitasuna dagoeneko atrofiaturik daukagu. Baina deskribatzen ari naizen paisaia horren dekadentziak ez gaitzala nahastu, gizakiak etsipenetik libratzeko modua aurkitu baitu: errealitatetik alde egitea, balioa objektu galkorretan finkatuz, subjektuak erraz ordezkari ditzakeen objektu absurduak baino ez direnak.

Aipa ditzagun jarrera aldaketa hori eragin duten faktoreak. Kapitalismoak eta bere beso luzeek subjektibotasun berri baterako bidea ireki dute, axolagabetasuna nagusi den egoera sortuz. Apatia nabarmentzen da sozializazio modu gisa. Balio kapitalistek, noski, ez dute bere interesak suspertzeko aukera galtzen. Esperimentazio garaia dela esan dezakegu, guztia probatu nahi omen delako susturriak inon botatzeko beharra sentitu barik. Ezerezak duela segundo bat «guztia» zenarekin akaba dezake.

Erakunde kapitalistek axolagabetasuna bultzatzen dute, subjektua kontrolpean mantentzeko estrategia paregabea

baita berea. Subjektuari esaten diote edozer izan dezakeela, dirua duen bitartean noski, besteak baino gehiago izateko edo, berdina dena, edukitzeko. Teknologia erostea —ordenagailua jar dezagun adibidetzat— gizakia subjektu bihurtzearen prozesuarekin, alienazioarekin eta ongizate-estatua-rekin lotuta dago.

Baina dena eskura duen gizaki hori, kontsumitu bezain pronto, azkar aspertzen da. Horrek gogora dakarkit Heraklitoren esaldi xelebrea: *ezerk ez du irauten*. Gizaki axolagabeak ziurtasun absolutuei ihes egiten die, ez da sekula harrituko, eta iritziz aldatzen benetan iaioa da.

Gogoeta filosofikoa: postmodernitatearen kontzeptua definitzeko zailtasunak

Azken urteotan, postmodernitatearen kontzeptua ase dezakeen definizio bat aurkitzea jarduera eztabaidagarria bihurtu da. Horretarako arrazoirik azpimarragarriena korronteak berez agertzen duen sailkapeneterako ezintasuna litzateke. Postmodernitatea aztertzerakoan, mugatu ezin den terminologiarekin lanean ari gara, inongo sistematizaziorik onartzen ez duen eremua baita hori. Zailtasun horien atzean, oinarri gisa betiere, bizi dugun mendearen gaitza ezkututzen da: ordena, sistema, osotasun, unibertsaltasun... bateratasun baten falta.

Ezberdintasuna da nagusi. Izaera postmodernoa, gizakiok hartzen ditugun identitateak, identitate ezberdin anitz horiek guztiak biltzen dituen modua da; izateko modua, sentitzeko modua, pentsatzeko modua, jokatzeko modua, bizitzeko modua...

Gizaki postmodernoak ezin du bere burua definitu gizaki modernoak egin zuen bezala. Horrek zientziaren garapenean sinetsi zuen zorionaren mesedetan, arrazoimenaren garaipena aldarrikatu zuen, Erdi Aroa eta erlijioa gaitzetsi zituen atzerapen onartezinaren sinbolo gisa. Aitzitik, lehenengo begiratuan behintzat, gizaki postmodernoak nabarmendua iza-

teko ezer ez dauka, dena onargarria den garaietan jaio izanagatik, erlatibitate absolutura kondenatuta balego bezala.

Bada, noski, postmodernitatearen ikuspegi askoz ere «atseginagoa», nolabait adieraztearren; orain arte ikusitako bertsio ezkor eta nihilistatik nahiko urrun geratzen dena, bide batez. Konbentziturik nago «postmodernitate» terminoak, bere erabilerarik toleranteena aintzat hartuta, asko lagundu gaitzakeela modernitateak ondarean utzi zigun mundu konplexu hau hobeto konprenitzen eta gizakioi hainbeste sufriarazten diguten diferentziak eta gainerako topiko aburdu guztiak askatasunetik zapuzten.

Argudio horiek direla eta, agerikoa da nekez aurki daitekeela postmodernitatea azertu dutenen arteko bat etortzerik definizio zehatz bat proposatzeko orduan. Agian askoz emankorragoa izango zaigu, beraz, filosofoek erakusten dituzten zenbait iritziren bidez gaian pixkanaka-pixkanaka murgiltzea. Momentuz, nonbaitetik hasteko, azter ditzagun guk «positibo» deituko dugun postmodernitatearen bertsioaren muinean dauden ezaugarri oinarritzkoenak: *ezberdintasuna, aniztasuna, pertsonalitatea...* Azalckeria eta gainbehera kontzeptuak, interpretazio apokaliptikoari badagozkio ere, zerrendan tartekatzea erabaki dut, korronte horren gaineko ikuspegi osoagoa eskaintzen lagunduko dutelakoan. Aurre-rago izango dugu alor horretako hainbat filosofo garrantzitsuk postmodernitateari eginiko ekarpenaz aritzeko aukera.

Postmodernitatearen ezaugarri nagusiak lantzen

Ezberdintasuna

Gehien nabarmentzen den ezaugarrietako bat, zalantza barik, ezberdintasunarena da. Subjektuaren identitate egonkorra ezbaian jartzen den aro honetan, agerian geratzen dira indibiduo bakoitzaren ezaugarriak, gainerakoengandik bereizten dituztenak hain zuzen. Zentzu honetan, kapitalismoak bultzatzen duen kontsumo pertsonalizatuarekin lotu-

ra handia erakusten du terminoak. Bestetik, aniztasun kulturalaren fenomenoak ere presente dago, komunitate txikietan mundu osoko ordezkariak atzematea gero eta ohikoa goa bihurtu zaigu. Eta hurbiltasun hori fisikoa ez bada ere, komunikazio-baliabideek etengabe ematen digute haien existentziaren berri. Horrela, mundu mailako harreman boteretsua sortzen da. Bestearekiko kontaktuak, aldi berean, giza komunitate bakoitzaren kultur nortasuna azalaraztea dakar. Eta egoera hori hurrengo kontzeptuarekin lotzen da estuki: aniztasuna.

Aniztasuna

Ezberdintasunarekin batera sailka zitekeen, bata bestearen ondorio direlako. Aniztasunak ezberdintasuna gainditzen du, hau da, aniztasuna bizitzaren aurrean hartzen den jarrera da, ezberdina dena errespetatuz berarekin esperientzia anitza partekatuz igaro dena. Elkarbizitzak mundu bereko gizakitzat identifikatuz bultzatu gaitu; bestearengandik jasotzen den informazioa jada ez da pasiboki gordetzen, barneratze-prozesu baten bidez pentsamolde globalean integratzen baizik. Eta, bide beretik, aniztasunak arrazoimenaren erreinu absolutuari gerra deklaratu dio. Arrazoimen unibertsal eta bateratzailearen garaia bukatu da, eta arrazoimen anitzek bere lekua hartuko dute, mundua ikusi eta sentitzeko aukera agortezinak eskainiz.

Pertsonalitatea

Norbanakoaren pertsonalitatea propietate estruktural eta dinamikoek osatzen dute, egoera zehatzei emandako erantzunetan islatuko direnak. Eskuarki, pertsonalitatearen araberak, pertsonak sailkatu eta, aldi berean, ezberdinu daitezke. Pertsonalitate postmodernoa bitxia da zentzu honetan, nahiko independente erakusten den arren (gogora dezagun subjektu postmodernoak inguruko eraginetatik at mantendu nahiko lukeela), gustatzen ez zaion errealitatearen al-

derdi guzti-guztiak kritikatzeko eskubidea bere egiten duelako. Beraz, besteen iritzi eta jarrerarekin bat datorrenean badirudi postmodernitateak egokitzen omen dion axolagabetasuna ez dela erabatekoa eta, isolamenduaz harago, besteen interesekiko loturarik badagoela. Hau da, helburu komun eta sendo baten atzetik abiatzean, gure subjektua gai da indibidualtasuna gaindituz koalizioan aritzeko, hori estrategia hutsa bada ere.

Erlatibitatea

Arrazoimen egituratzaile bakarrik gabeko gizarte plural honetan, saihestezina gertatuko da erlatibitatea nagusitzea. Bakoitzak bere arrazoa izango du, eta besteenak ere zein baino zein onargarriago bihurtuko dira. Moralaren arauak mendebaleko ideal klasikotik ihes egingo dute, giza balioen eskala erotzearekin batera. Hala ere, gizartea erabat anarkikoa izateko arriskuan bizi bada ere, kulturaren indar tradizionalak (ohituraren poderioz) ez dute hutsik egingo botere-erlazioak finkatzeko momentuan. Vattimok esan bezala, «ziurtasun erlatiboak» nagusituko dira.

Gainbeheraren kontzeptua

Asko eztabaidatu da garai postmodernoaren inguruan, bartzuen ustez hori Nietzsche, Marx eta Freudek sortutako *susmoaren teoriak* eragindako pentsamendua da. Nietzschek *Jainkoa hil da* esatean, gizakia bakarrik geratu da eta horrek bere nortasuna berreraikitzeak aukera ematen dio. Edonola ere, ezkorrenen iritziz, ziurtasunarekiko hausturak gizartearen gainbehera ekarri du. Kultura modernoa, sekularizazioa bizi duena, nihilismo sakonenean erori da: helbururik ez dauka, ez da ordura arte Jainkoak eta Elizaren fedea estali dituzten zergatien erantzuteko gai. Jarrera hori bereziki nabarmenduko da Bigarren Mundu Gerra eta gero.

Subjektu postmodernoak ispiluan bere buruaren isla aurkitzen du, bai, baina irudiak ez dio itxaropenari lekurik uz-

ten, ispilua mila zatitan aspaldidanik baitago hautsita. Gizakia hutsik sentitzen da, eta bilaketa hasten duen bakoitzean berdin bukatzen du, erantzunik gabe. Baina hutsuneak betetzeko sortuak direnez, gizakiak mila eta bat objektu eskuratzen ditu, epe labur batez bere ilusioa aseko dutenak, hutsunea itzuli baino lehen. Diskurtsoek, irudiek, objektuek gizaki postmodernoa nahasten dute, ez dago berez denaren eta dirudienaren arteko egokitzapenik. Gizakia subjektu bihurtu da, eta azken hori bizitza den antzoki erraldoiaren pertsonaia, bigarren mailakoa maiz. Idealik, balio finkorik eta batasunik gabeko munduan zehar ibiltzeko, gizakiak maskarak behar ditu, bere aurpegian islatzen den zalantza, beldurra, kaosa ezkutatzeko.

Azalkeria (balioen galera)

Erakunde, botere edo zientziarekiko fedea galdu da, eta, horrekin batera, baita iraganean izan zuten indar sozio-politiko ere. Bestalde, ideal propio baten bilaketari esfortzua suposatzen zaio, eta gaur egun bizitza gure begirada axolagabearen aurretik pasatzen da, badirudi ez dagoela arreta merezi duenik. Helbururik gabe bizi gara, zentzurik gabe.

Azalkeriaren azpian asperduraren forma berriak hazten dira, depresio edo historiaren ildokoak, baina Freudek dibanean tratatu zituenak ez bezalakoak. Sentipena, kasu honetan, ezin zaio subjektuaren gaitasun psikiko murrizari leporatu, baizik eta bere baldintza sozialari edo estatusari. Gaixotasuna dator subjektuaren sozializazio modu bakarra *asozializazioa* denean, hau da, bizitza publikotik aldentzen denean, eremu pribatua bere eginez. Gizakiak munduarekiko fedea galdu duenez, jada ez du gizarte bizitzan sinesten, eta maitasun edo gorrotoaren balio kontrajarriak ez bairik gabe onartzen ditu. Bortxakeria edo delitugintza bezalako fenomeno ohikoak bere baitan integratzen ikasi du.

Maitasunaren bidezko zorientasunaren bilaketan, Freudek bi alderdi atzematen zituen: alde batetik, desira fisikoa ase

beharra legoke, eta, bestetik, *maitasun platonikoa* edo bestearreko menpekotasuna. Teoria modernoa bada ere, gure garaian nahiko berdintsu dirau. Hala ere, postmodernitateak ñabardura maltzur zenbait gehitu dizkio. Maitasuna pasioaren menpe sentitzen dugu orain, besteak proiektatzen duen irudiaz maitemintzen gara eta harreman pertsonalak Foucaulten erara ulerturiko botere-erlazioak dira, bestea menperatzea helburu dutenak. *Bestetasunaren* onarpena eta norbanakoaren indibidualismoaren arteko borroka da hemen azaltzen zaiguna. Horrela maitatzen duenak ez du berdintasunik eskaintzen ezta eskatzen ere, ez du justizia aldarrikatzen, plazera ez bada; gizaki horrek ez du askatasuna nahi, elkarrekiko jabetza baizik. Harreman asko eta asko kapitalismoak indartutako indibidualtasun edo independentzia faltsu baten ideala galtzeko beldurrari leporatu behar zaizkio. Kierkegaardek esan bezala, *gizakiak orgasmo absolutua emango dion harreman sexuala bilatzen du*, baina ez dirudi azalkeria irtenbidea denik, amaitu bezain laster, errealtatearen kontra jotzen baitu: bakarrik eta hutsik dago berriro.

Identitate nazionala

Herialde-identitatea (nazio-sentimendua) homogeneousatze-prozesua jasaten ari da, kultura estandarizatu bateranzko norabidean. Prozesu hori kontsumoa bultzatzen duen boterearen esku dago, komunikabideak eta eskaintzaren ekoizpena kontrolpean dituenak. Identitatea ez da jaiotzetik daramagun zerbait, eraiki, ikasi eta garatzea ezinbestekoa da. Identitatearen arazoa gure kulturaren arazo nagusia dela esan daiteke. Hori oso presente egon da modernitatean, eta postmodernitateara heldu garelarik, bere horretan dirau, gainditu gabeko trauma balitz bezala.

Talde-pertenentziaren irudikapen ezberdinek agerian jarritzen dute postmodernitatearen sendotasun falta, alderdi honi dagokionez. Izan ere, postmodernitateak zuzenean gizakiaren deuseztatpena jotzen duen bitartean, munduan ba-

rrena nazio-mailako aldarrikapenak entzuten dira oraindik. Sistema modernoa aplikatzen jarraitu da, baina ñabardurekin, globalizazioak sortutako identitateak ezegonkor bihurtzen baititu. Identitatea gero eta lotuago dago objektu komertzialekin, hazi garen lekuaren koordenatuekin baino. Arrazoimenaren ahuldadea agerian geratu ondoren, oinarri kulturalak galdu dira; subjektuak bere identitate propioa eraikitzeke aukera anitz dauzka eskura, historiaren zentzuaz ez da fio, eta ez du egia bilatzeko barne-zirrarak sentitzen.

Hortaz, teoria eta errealitatearen arteko tentsioa nabari da puntu honetan. Erromantizismoari eustea al da gure erabakia? Modernitatearen aztarna ote? Ala, beste barik, postmodernitatea gurean gauzatu ez delako seinaleztat hartu behar genuke? Gorka Merceroren (2008: 286) erantzuna iruditzen zait egokiena korapiloa askatzeko. Gure kulturaren, euskaldunok ezin gara axolagabeak izan euskal *berezitasunaren* aurrean. «Postmodernitatea ez zaigu oraindik iritsi, edo hobe esanda, ez gara oraindik postmoderno bihurtu. Izpi postmoderno batzuk baino ezin ditugu oraindik sumatu».

Filosofoen ekarpena

Bigarren Mundu Gerra eta gero, 60ko hamarkadatik aurrera, modernitatea salatzeari ekin zioten filosofoen artean hiru jarrera postmoderno bereiz daitezke.

Lehenengoa Frankfurtoko Eskola neomarxistaren atzetik doazenek osatzen dute. Habermas, Eco edo Adorno bezalakoek modernitateari kritika egiten diote, horrek Argien Mendeko filosofoen proiektua amaiera arte burutu ez izanagatik. Laburtuz, modernitatea bukatu gabeko proiektutzat dute autore horiek. Ilustrazioaren ideoletara makurturik jarraitzen dute, beraz; horien ustez, krisia zuzentzeko, modernitate gaurkotu baten proposamen bati ekin behar zaio lehenbailehen.

Bigarren jarrerak barne hartuko lituzke *pentsamendu ahularen* ordezkariak: Lyotard, Vattimo, Lipovetsky... Autore

horiek, modernitatea jada igarotako momentu historikotzat onartzen duten heinean, postmodernitatean kokatu ohi dira. Itxaropenak etsipena gailentzen badu ere, modernitatearen gaizki eginek ez diete arrazoimen gidari horren idealei bidezketasuna kentzen. Lipovetskyren (1994: 19) hitzetan, «Prometeoren arrazoibidearen maltzurkeriengatik ezin da bere esentzia gaitzetsi. Arrazoimen moralari helduz gero, soilik arrazoimen ilustratuak lagun gaitzake».

Oztopoak oztopo, modernitatearen desengainuaz harago, pentsamendu ahularen baitan bi abantaila garrantzitsu biltzen dira: batetik, bizitzaren zentzu bakarraren bilaketari uko egiteak etsipenaren iturrietako batekin amaitzea ahalbidetzen du; bestetik, utopia-proiektu politiko erraldoiak totalitarismoaz baliatu izan dira, beraz, horietan fedea galtzean indarkeriaren bidezko aginduez libratu gara.

Baina postmodernitatearen estrategia globalak ez gaitu menpekotasun sozialetik askatzen, kontrola ezartzeko metodoz aldatzen duen arren. Ildo beretik uler daitezela Mikhail Bulgakoven hitzak: *Botere oro jendearengan eragindako indarkeria da*. Boterearen jokoak ez du gizakia bere intentzioengatik neurtzen, baizik eta burututako ekintzen ondorioengatik. Garrantzizkoa da mass mediaren kulturara makurtzea eta besteei justu, azkar eta atsegín «iruditzea».

Kontzepzio horren meritua gaurko gizakiak xurgatzen dituen errealitate alienatzailearen deskribapenean datza, non komunikabideek erakusten duten bizitzari zentzua eskaintzeko gaitasuna nabarmentzen den. Berria denarekiko edo, hobe esanda, dirudienarekiko lilura egiarekin trukutzen da maiz. Iragarkien botereak izatea bera salmentan jartzen du. Teknikak askatasun osoz natura manipulatzeko du, etika faltu bat argudiatuz.

Bi jarrera ezberdin dira orain artekoak, baina biek modernitatearen kritika egitea dute helburu, krisia gainditzeko proposamena bigarren maila batean utzita.

Azkenik, hirugarren jarrera legoke, Ricoeur edo Locchi bezalako pentsalariak defendatutakoa. Horientzat ez dago mo-

dernitatean sinesterik, postmodernitate bortitzenetik ukatzen baitute. Jarrera hori etsipenaren sentsazioaz harago doa, oposizio absolutuaren forma hartzen du, eta, gainera, egoera gainditzeko ahaleginak eginez, etapa historiko berri bat has-teko proposamena egiten du.

Postmodernitate mota horrek, hiruren artean gogorrena izanik, Nietzsche eta neo-paganismoaren eragin nabarmena jasotzen du. Bestalde, garrantzi itzela hartzen du globalizazioaren aurkako kritikak, herrien eta giza komunitate txiki-ien identitatearen defentsa sutsuan datzana. Orokorrean, modernitatearen kritika helburu bateratzaile eta unibertsala erakusten duten diskurtsoen gainean eraikita dago. Ar-buiatzen diren ideal handien artean hauexek dira aipaga-rrienak: aurrerakuntza amaigabea, arrazoimenaren boterea, demokrazia ahula, kristautasuna, kapitalismoa eta natura-ren menderakuntza teknikoa.

Theodor Adorno (1903-1969) eta Max Horkheimer (1895-1973)

Postmodernitate goiztiarrean, Frankfurtoko Eskolako bi kide nabarmendu ziren: Adorno eta Horkheimer. Filosofo horiek *Ilustrazioaren Dialektikan* azaldutako pentsamendua mundu-mailako krisiaren ondoriotzat hartu behar da.

Juduen aurkako lehen masakreak hasi zirenean, Adornok [Horkheimerri] ikusarazi zion egiazko arazoa ez zela iraultza marxistaren porrota, baizik eta zibilizazioaren beraren deskalabrua. Basakeria naziaren garaipenak, sozialismoaren galbideratzeak Stalinen agintepean, kultura kapitalistaren integrazio ahalmen harrigarriak AEBko gizarte aurreratuan... norabidez aldarazi zituzten Horkheimer eta Adorno. Frankfurteko Eskolak, Kantek zabaldutako tradizio ilustratuaren ildotik, arrazoi unibertsal eta kritikoaren ahaltsun emantzipatzailea berreskuratu nahi izan zuen. Baina mende hone-tako tragediek eta, bereziki, giza arrazionaltasunaren paradigma den Auschwitzek hasierako asmotik urrunarazi zituzten. Arrazoiak ez du mundu ilustratu eta librea ekarri, ezin sinetsizko basakeria baizik («erabat argiztaturiko lurak alde guztietan garaitzen duten zoritxarren zeinupean dirdiratzten du»). (Sudupe, 2008: 50)

Esan bezala, pentsalari horien kritika gogorrari eszeptizismo sakonak jarraitu zion. Totalitarismoak, gerrak, hondamendi ekologikoa... kaosaren izpiritua nagusitzen ari den momentuan, Teoria Kritikoak Ilustrazioaren ezintasuna salatzen du. Baina Adorno eta Horkheimer ez dira egoera horretatik irteteko aukerak aztertzeraz geratzen. Horixe leporatuko die Habermasek hain zuzen, ukapen sistematikoak jarri ezkorra baino ez zuela ekarriko, *Ilustrazioak ez bestek senda baititzake Ilustrazioak berak eragindako zauriak*.

Marc Augé (1935)

Laburpen modura, Augé antropologo frantsesak postmodernitatea gehiegikeriaren irudi gisa definitzen du, hurrengo hiru arrazoiengatik:

- Garaiko munduan gure burmuinek jasan ditzaketenak baino gertakizun gehiagoren berri ematen zaigu, eta horrek gure ulermen eta asimilazio-gaitasun murrizta agerian jartzen du.
- Herri globalean bizi garelako kontzientzia dugu, teknologiak eta komunikabideek urruntasun espazialaren arazo fisikoa eraginkortasunez konpondu dute. Kapitalismoaren estrategia den neokolonialismoarekin batera, hainbeste goraiapatutako kultura *lighta* herrialde isolatueneraino iritsi da.
- Indibidualizazio-prozesua martxan dago eta subjektuak balio propioak hautatzen ditu (moral, ideologiko, kulturalak...), identitate bereizi bat eratzeko asmoz.

Norbert Lechner (1939-2004)

Lechnerrek desengainu postmodernoa inbultso kritikoa berritzeko eta modernitatearen proiektu-krisia erreformatzeko balio duela defendatzen du. Subjektuek bizi duten errealtatea zalantzan jartzeko eskubidea aldarrikatzen du, munduaren interpretazio marjinal eta irrazionalak barne hartuz. Formalismo eta razionalismoen gainetik, indibiduen subjektu-

botasunari eta, orokorrean, pluralismoari adi dagoen sistema demokratiko baten alde agertzen da. Ildo horretatik, postmodernitateak konpondu beharreko bi alderdi aipatzen ditu:

- Modernitatearen proiektua birpentsatzea.
- Arreta berezia jartzea ezberdintasun sozialen artikulazioan.

Jürgen Habermas (1929)

Postmodernitatea, kultura-aro gisa, modernitateari egiten dion erreferentziagatik ulertzen da, berdin da batak bestea jarraitu, gainditu edo kontrajartzen duen. Adibide bat jartzearren, Habermasek pentsamendu postmodernoarene muina modernitatearen ideia nagusiei —unibertsaltasuna, razionalitatea, egia, aurrerapena— eginiko kritika dela defendatzen du. Hortaz, desagokia iruditzen zaio «post-» aurritzia, modernitatearen kontrako erasoia baita gauzatzen ari dena. Bestetik, filosofo horrek arrazoimenaren eta menderapenaren ideien nahasmenaz ohartzen du, arrazoimenaren desagerpenak askatasuna ekarriko duen ustean. Foucault postestrukturalista frantsesak ere ideia bera zerabilen buruan honako hau esatean: *lehenbizi subjektuaren kontzientzia irabazten jakin behar da, eta hori lortzen denerako, bere gorputza eta ekintzak jada kontrolpean izango dira.*

Gilles Lipovetsky (1944)

Lipovetskyrentzat postmodernitatea muturreko kultura da, modernitatearen logika muga zeharkatzeraino eramaten duena. Filosofo horrek haren agerpena XX. mendeko azken laurdenean izandako hainbat gertakizunekin lotzen du: drogen arrakastaren ondorioz sortutako kontzientziaren nahasmena, askatasun-sentipena, plazer eta sexuaren lehenetasuna, irudi eta itxuraren garrantzia, komunikabideek eragindako giza identitatearen deuseztapena. Laburtuz, postmodernitatea modernitatearen porrotari buruzko galderak erantzuten saiatzen da.

Gizakia goratzen zuten ideal handien proiektuak desegin dira, hurbila eta txikia denak ordezkatu ditu, pertsonala eta lokala denak hain zuzen. Postmodernitateak, ikuspegi baikor batetik aztertuz gero, guztiontzat onuragarri bihur daitezkeen aspektuetan sakontzen du: tolerantzia, bestetasunaren aurreko errespetua, estamentu hierarkikoen eta boterearen aplikazioaren parodia, espezializazioaren curriculum bultzatzen duen jakintzaren zatikatze progresiboa... Hala ere, orekatik urrun gabilta, oraindik ere subjektua ez baita gizartean kokatzeko gai, ez da eroso sentitzen gizarteak egokitzen dion rolarekin eta horrek krisira bultzatzen du; ezinbestean, etsipena eta ezinegona zabaltzen da indibiduo moderno horiengan.

Balioen krisi horren erdian, *Nartziso postmodernoa* —Lipovestkyren terminoa erabiliz— gailentzen da, egolatriaren mugak isolamendurik latzeneraino hedatzen dituena. Nartzisismoa bestearekiko axolagabetasunean eta norbanakoaren despertsonalizazioan atzematen den prozesua da, eta kausa eta helburu sozialen uztea inplikatzeko du. Esate baterako, herrialde garatuenetan delituen eta, zehatzago, hilketen kopurua mantendu edo igo egin da progresio kezagarrian. Gizarteak nekez adieraz dezake axolagabetasuna edo mesprezua ez denik, eta hoztasun mota horretan mass mediaren eragina handia da; gure buruak irudi bortitzekin behin eta berriz bonbardatu eta gero, errealtatea dagoeneko irreal bihurtu zaigu. Ezerk ez digu minik egiten, haxe da krisian dagoen gizarte bati kontra egiteko aukeratu dugun modua: kexuen aurrean itsu eta entzungor egotea. Egoeira horren bestaldean, txanpona osatuz, suizidioen tasa altua legoke, modernitatea gainditzeko ezintasunarekin lotuko genukeena.

Mass mediak pertsonaia perfektuak, zeharo irrealak aurkezten dizkio, eta gure subjektu ahulak eredutzat hartzen ditu; berak ere gorputz eta estetika perfektuaren jabe izan nahi du. Baina ideal hori gero eta handiagoa izan, subjektuarentzat eskuraezinagoa; bion arteko distantzia areagotu

orduko, bere buruarekiko iraintzea eta mesprezua agertuko da, gizakia bere ezintasunarekin aurrez aurre jartzean. Horrela, gizaki soziala pixkanaka-pixkanaka desagertuz doa, *psi diskurtso* deitutakoari bidea emanez.

Sigmund Freud (1856-1939) eta Jacques E. Lacan (1901-1981)

Psi diskurtsoa Goetheren Faustorengan biltzen da, eta gaurko gizakia erakusten duen azaleko jakingurari dago. Izan ere, jakiteko irrika hori ez da batere intelektuala, espermentazioan oinarritutako barne-garapenari egiten dio erreferentzia eta kontzientziaren mugimendu gisa ulertzen da. Subjektuak dena izateko, edukitzeko beharra sentitzen du, eta kontrolik gabeko kontsumismo horrek bulimia antzeko batera bultzatzen du ezinbestez. Baina, diskurtso honetan, itxaropenari ez zaizkio ateak erabat ixten; aitzitik, Freud, bere teoriari eustean, subjektuaren inkontzientzian gorde den Nia aska daitekeela planteatzen ari da; egiazko Niaren berreraiketa gauzatzeko, errepresioak jo ez duen inkontzientziaren desirez balia gaitzkeelakoan.

Eta ideia bera da psikologia postmodernoren ordeko nagusizat hartu den Lacanen Eskolak defendatzen duena. Psikoanalistaren funtzioa gaixoa ezkutan daukan Niarekin komunikazioan jartzea litzateke Lacanen arabera, hizkuntzaren bidez gauzatzen dena. Nia —eta Niaren Teoria horretan Slavoj Zizek bat dator Lacanekin— besteen irudiarekiko definitzen da, hau da, norbanakoaren identitatea bestearen ereduarekin parekatuz, ezberdinduz edo, beste barik, konparatuz osatzen da.

Michel Foucault (1926-1984)

Pentsalari postmoderno handien artean Foucault dago, azalpen aurremugatuekin konformatzen ez direnetakoa baitugu. Bere genealogiaren helburua historiari atxikia dirudien trinkotasun kontzeptua gainditzea da, horren orde historia botere-erlazioen arteko tentsioek eraikia delako

planteamendua eginik. Subjektua bizi duen garaia ren ondortzat ulertzea, horrenbestez, gizalegearen mugak zalan-tzan jartzea da.

Ehun eta laurogeita zazpi milioi pertsona hil dira XX. mendean indarkeriaren ondorioz. Gehienak krudelak edo bereziki bortitzak ez ziren pertsonen eskuetan hil dira, bai ordea fanatikoak. Auschwitz eta Guantanamo txanpon bereko bi aldeak dira: fanatismoaren txanpona hain zuzen, integritatea azken batean. Eta gaitz horren aurka ezagutzen dugun txerto bakarra Foucaultek aldarrikatutako *pentsamendu kritikoa* da, hausnartzera bultzatzen gaituen pentsamendu bizia, egia absolutuetatik ihes egiteko aproposa. Egiaren jabe izatearen hurrengo pausoa besteei ezartzea da. Beldurrak fanatismora hurbiltzen gaituen era berean, pentsamendu kritikoa hartatik urruntzen gaitu.

Mundu kaotiko batean bizi gara, gure bizitza kontrolaezina da. Eta ez zaigu hain larria iruditzen egoera. Zentzu honetan, kaos postmodernoa ziurtasun modernoa baino askoz hertsagarriagoa da, postmodernitatea bera dogmatismo eta autoritarismoaren aurkako mugimendu erraldoia izanik. Soilik gizarte postmodernoa uler daiteke ezberdintasunarekiko jarrera axolagabea, modernitatearen ordena unibertsalal sistematikoki baztertuko zukeena.

Jean Baudrillard (1929-2007)

Baudrillard filosofo postmodernoa *hipererrealitatea* iker-tu du, AEBetako gizartean batez ere. Bere tesiaren arabera, Estatu Batuetan gainontzeko herrialdeetatik aparte bizi den mundu bat eraiki dute. Biztanleak perfekzioaren ideiarekin, denboraren iragaitzarekin eta izatearen objektibizazioarekin obsesionaturik daude. Are gehiago, benetakotasuna kopiak ordezkatu du, horrela errealitatearen ordezkapen progresi-boa burutzen ari da; ezer ez da erreal, baina fikziozko errealitate horren barruko gizartea ez da *simulakroan* bizi dela nabaritzeko gai.

Gianni Vattimo (1936)

Vattimo italiar filosofoa da, ziur aski, postmodernitatearen pentsalarien artean lanik sendoena burutu duena. Bere emaitza nabarmenenak lan honetara ekarriko ditugu, labur bada ere, egunerokoan postmodernitateak duen indarra atzeman ahal izateko balio dutelako. Ondoko zerrendan gizarte eta subjektu postmodernoen norabide berria irudikatzen da:

- Ideal zein osotasun-nahi ororen ukazio bortitza
- Erakunde publiko eta sozializazio moduen ukazioa
- Orainaren ikuspegi bakarra, horizonte historikoarekiko kezka ahaztea
- Gizakiaren alderdi guztien garapena, bereziki fisikoari dagokionez
- Bateratasuna edo harmonia unibertsala helburu duen utopiaren ukazioa
- Kontzeptu serio eta arduratsuen aurrean, jarrera alaia, irekia eta dibertigarria hobestea
- Moralitatea nahietara makurtzea, norbanakoaren aginduak kontuan hartuz. Moralitate-iturria gizakia bera da.
- Umore biguna edo irribarre faltsua agertzea
- Indibidualismo ontologikoaren estetika. Errealitate bakarra gizakiaren baitan biltzen da, gainontzeko guztia bigarren maila batean utziz.
- Diskurtso handiekiko konfiantza eza
- Prozesatu ezin daitekeen informazioak gainezka egiten du.
- Bizitza dramatismo barik aurkeztea, espektakulu huts bihurtuz
- Plazer eta hedonismoaren erregimena
- Gizarteak indibiduo heterodoxoak sortzen ditu.
- Kaosa, sakabanatzea eta eklektizismo artistikoa
- Ez dago irizpide finkorik, erlatibismoa baizik
- Erljio *light*aren kultua
- Depresioa, nahasmena, nihilismoa, izpiritualtasun hutsa

Vattimorentzat kontzepturik garrantzitsuena interpretazioarena da, nahiz eta jarrera horri *pentsamendu ahul* terminoa

egokitzen dion. Ekintzak ez zaizkio axola, interpretazioak baizik. Denbora ikuslearen posizio erlatiboaren arabera den bezala, ziurtasuna erlatiboki interpretaturiko egia bat da, eta arrazoi berberagatik ez-ziurra. Horrela, zalantzan jartzen ditu, besteak beste, kausalitatearen eredu determinista, Hegel, Kant edo Marxen erara ulertutako subjektu indartsu baten egia eta Leibnizen denboraren planteamendu lineala.

Jean-François Lyotard (1924-1998)

Lyotardek historiako aro berri baten aurrean gaudela defendatzen du, «postmodernitatea» deitzen dena. Modernitatean nabarmendu ziren idealak (esaterako, marxismoa edo razionalismoa) erabat deuseztatu behar dira, porrotean amaitu baitzuten. Postmodernitateak globalki adierazten du jada ez gaituela Jainkoak salbatuko, ezta zientziak, are gutxiago langile-iraultzak.

Modernitatean subjektuak bi definizio posible ditu, Lyotarden iritziz: bata 1800 inguruan Kantek garatutako ideal kritikoarekin lotuta dago; besteak, aldiz, baldintza subjektibo bat hartzen du kontuan, neurosia hain zuzen. Azken definizioa Freuden subjektua litzateke, txikitatik Ediporen konplexuarekin bizitzera ikasi behar izan duena. Horrek esan nahi du gizakia bere nahiak nola zapuzten diren ikustera ohitu dela; amore ematea beste aukerarik ez du izan, onura kolektiboaren alde. Horixe da Freudek «zibilizazioa» deitu zuena. Subjektu postmodernoa, aitzitik, ez dago prest besteengatik bere deserei uko egiteko, eta, beste ezeren gainetik, bere ongizatea bilatzen du. Gizakiarengan mugak ezabatzen dituen aldaketa psikikoa txertatu da.

Postmodernitatean bi alderdiren erorketa gauzatu da: zientzia eta konpromiso soziala. Abangoardiako giroan intelektualek arrazoimen eta logikaren aurka hitz egiten dute. Batez ere, osotasuna bil dezakeen sistematizaziotik ihes egiten da. Fredric Jamesonek esan bezala, konplexutasun teknologikoak eta gehiegizko informazioak munduaren ikuspegi zatikatua

ematen dute. Literaturan eta, oro har, artean, ludikotasuna biltzen da. Aniztasuna nagusitzen da gizartean, azken finean indibidualtasunaren garatzea baino ez dena. Bakoitzak errealitatea nahi duen modura interpreta dezake, denak balio du. Berez, ez legoke errealiterik, ez baitago semantikorik; harreman sozialak pragmatika huts bihurtu dira.

Jainkoa hilda dago, baina bere lekua merkatuak hartu du; bera da orain indartsua, nonahikoa, ahalguztiduna, boteretsua... Arazoa da, Lyotarden jarraitzailea den Dany-Robert Dufour pentsalariak dioen bezala, Jainko berri horrek ez dituela bere funtzio «izpiritualak» betetzen. Hau da, merkatu globala trukean aritzeko eremu erraldoi bat besterik ez da, non dena den trukagarria, bizirik dagoena barne: umeak, organoak, bizidunen gaineko eskubideak... Indibiduoak konturatzen hasi dira jada Jainko horrek ez duela espero zuten erantzuna eman. Horrexegatik, egunero sortzen dira erlijio-modu berriak (eta arriskutsuak, sekten ugalketan pentsatuz gero); *paraerlijio* gisa aurkezten dira, kontsolamendu eman nahian subjektuen arima minduei.

Hala ere, errukirik gabeko Jainko postmoderno horren eta jainko izpiritual premodernoaren arteko tentsioa nabarmentzen da oraindik. Izan ere, 2001eko irailaren 11n World Trade Centerren gertatutakoa tentsio horren ondorioztat har daiteke; bertan aurkitzen dira islamismo premodernoa eta kapitalismo ekonomikoaren sinbolo postmodernoa, aurrez aurre, heriotza arteko borrokan.

Azken hitza: etorkizunaren zalantza, irtenbiderik bai?

Edmund Husserl filosofoak ziurtasuna bilatzea proposatu zuen, mendebaleko kulturaren gainbehera hurbil zegoela aurreikusirik. Ziurtasunaren muinera iristeko, lehenbizi itxurazko ziurtasunekin amaitu beharra dago: *dena zalantzan jarri, zalantzaz askatzeko*. Subjektu postmodernoak esaldi hori maiz munduarekiko axolagabetasunean, nihilis-

morik suntsigarrienean kokatzeko erabili badu ere, nire us-tez bigarren interpretazio askoz baikorrago bat ezar dakio-ke. Itxaropenari eutsiz, zergatik ez dugu gure baitan araka-tzen, izaki sozialak izatera bultzatzen gaituzten arrazoiak, helburuak, desirak deskubritu arte?

Baliteke jarrera horren emaitza solipsismo eta berekoike-ria izatea; baina, norberaren nahiak direnak direla, erabate-ko askatasuna ezinezkoa da, gizartea indibiduen arteko harremanetan (botere-mailaketa, edozein motatako menpe-kotasuna...) oinarritzen delako hain zuzen. Balio globalak, amets utopikoak galtzear daudela onartzeko prest dagoen subjektu horrek enpresetan lan egiten du, bankuarekin bizi-tza osorako lotuko duen kontratu bat sinatuta dauka, gaue-ro etxera itzultzeko beharra sentitzen du bikoteaz gozatze-ko... Maitasuna deitutakoa, azken batean, ez al da interesak, dela fisikoa dela psikikoa, eragindako menpekotasun modu bat, arriskutsuena agian?

Kultura aldaketa sakon baten faltan dela nabari dut. Sub-jektuak berez dagokion pertsona izendapena berreskura-tzen saiatu beharko luke. Horretarako ideia ona deritzot norberaren autoestimu hautsia berregitetik hasteari. Bizitza behar eta menpekotasun ikasien eskuetan utzi ordez, oso garrantzitsua da bakoitza bere buruarekin ados jar dadila, pentsamendua lasaitasunak har dezan. Filosofia iraultzailea errotu orduko, besteekiko erlazioetan ere islatzen hasiko da eta, pixkanaka-pixkanaka, garai berri baterako oinarriak sendotuz joango dira kontzientzia kolektiboan.

Bide horrek, neurri batean, gertagaitza dirudi. Norbaitek idealismoen absurduan eroria naizela kritika dezake. Eta arrazoi osoa emango nioke, baina irtenbiderik bilatzen ez duen gizartea alde aurretik porrotera kondenatuta dago. Bizitza, kausa-ondoriozko egitura automatikoa baino gehia-go, utopia-indiferentzia segida dela esango nuke. Bizirautea ez da bizitzeko modu duina, inolaz ere.

Postmodernitatearen akatsa, munduko lurralde txiki ho-netara iritsi zaigun bertsioarena behintzat, hurrengoan atze-

maten dut: ez du filosofiak bete beharko lukeen lekua betetzen gizakien buruan, zentzuan, nortasunean... ezin baitzaio «bizi-filosofia» deitu bizitzeko jarrera oro axolagabeki arbuatzen duen planteamenduari. Inguruaren azterketa etengabeak eta guztiari kritika sutua egiteak ez du ezertarako balio jarraian gauzak konpontzeko ahalegina egitea merezi ez duela uste bada. Honaino ekarri gintuzten arrazoiak ezagututa, horiek mundua hobetzeko ez erabiltzea pena handia litzateke benetan. Modernitateko bidean gaizki eginak bilatu eta aztertu beharko dira horren idealen aurka matxinatu diren gizarteen barnean, esaten den moduan, akats horietatik ikasi ahal izateko, etorkizunean errepika ez daitezen.

Demokratizazio-prozesuan ondorio latz bat dago agerian, sinesmenak eta balioak banaketa osagarrian kontrajartzen direla alegia, bata bestearen lekua hartzeko lehian. Postmodernitatean argi dagoen gauza bakarrenetakoa da subjektua ez datorrela bat sistemaren inposaketekin. Modernitatetik jasotako arazo larria dugu hori, eta postmodernitateak era kontrajarrien bidez erantzungo dio. Alde batetik, balioak erlatibizatzen tartar individual, pribatu bat dagoela oharturik, nihilismoak lagundutako alderdi ezberdinetako ideologiaren erradikalizatzea gertatzen da. Bestaldetik, indiferenteek, irtenbiderik aurkitu ezean, sistemara moldatzeko esfortzua egiten dute. Talde horretan leudeke indibidualtasun hedonista bizi dutenak, ideologiaren axolagabetasunean bizi diren horiek. Ikusten denez, indibidualtasuna gaintzeko saio txikiak tarteko, ez dirudi gizarte-iraultza planteatu daitekeenik oraingoz.

Utopiekiko gehiegizko konfiantzak frustrazioa, engainatu gintuztelako sentipena ekarri zuen, eta hori zail ezaba daiteke gizartearen memoriatik. Baina, kasuak kasu, gizakia ezin da inolaz ere hondoan egokitu, areago, hondoan uztea premiazkoa zaio. Hortik irteten nola edo hala saiatu behar du. Interpretazioak sortzeko makina boteretsua den korrante kultural berriak mundua aztertzeko baliatzen genituen erreferente sinbolikoekin haustera bultzatu gaitu. Historia, kul-

tura eta jakintza nagusia ukatu eta gero, ez dago zutik mantenduko gaituen proiektu kolektibo batean sinesterik. Demokrazia ahulak galdutako subjektuaren konfiantza berreskuratzen saiatu behar du. Modernitatea eta oztopo guztiak atzean utziz gizartean benetako elkarbizitza aldarrikatzera irits gintezkeela pentsatu nahi dut.

Nik defendatzen dudana proiektu postmodernoa erlatibismo-rik tolerantetean sustraitzen da. Atal hau Husserlen esaldiarekin hasi dugu, zalantzaren inguruan hausnartuz. Bide horretatik, egia historiko nagusiak zalantzan jartzea praktika osasuntsu gisa onartu beharko genuke. Baina argi dago existentzia honetan nolabaiteko ziurtasunak aurkitu behar ditugula, subjektuok euts gaitzaketen sinesmen minimo batzuen beharra baitugu. Nire ikuspuntutik, izenburuari erantzun emanez, irtenbidea aniztasuna litzateke. Mundua ulertzeko modu bateraturik ez dagoenez, orain arte periferian, jakintza nagusi horren itzalera ezinbestean, kokatu diren pentsamendu-era alternatiboei iritsi zaie azkenik kontuan hartuak izateko aukera. Izan ere, arrazoia nor duen edo nor dabilen zuzen/oker erabakitzea ezinezko bihurtu bazaigu, horrek denok berdintzen (eta, aldi berean, ezberdintzen) gaitu. Zalantza partekatzen dugu.

Merceroren (2008) planteamendua bereganatuta, zuzena zer den zehazteko ezintasunak ez du esan nahi zuzentasuna existitzen ez denik; alderantziz, bakoitzaren ardura da zuzena den eta ez denaren arteko muga ezartzea, kasuan kasuko esperientziak behin-behineko muga hori mugitzera behartzen bagaitu ere. Horrela, etika anitzekin egiten dugu topo egunerokoan. Eta egia bada kontrako iritzien bidez aberasten dela gure mundu-ikuspegia, orduan postmodernitateari eskerrak emateko moduan geundeke, horren laguntzaz erdiguneko/periferiko bikoteak modernitatean utzi zigun trauma sendatzea lortu dugulako.

Postmodernitatea axolagabekeria eta sakontasunik ezaren erreinua dela konbentzitu nahi gaituztenei esango nieke ez dagoela egia(k) norberaren baitan bilatzea baino ariketa

arretatsuagorik, indibiduoaren aldetik konpromiso handiagoa eskatzen duenik. Munduak biztanle adina arrazoi dituenan, «marjinaltasuna» eta «menpekotasuna» bezalako termino mingarriek zentzu osoa galtzen dute. Desoreka modernoak amaitu dira, geure ekintzak gidatzen dituen erlatibismoak behin eta berriz aukera guztiak onargarriak direla gogoratzen digulako. Ezberdintasun-aniztasun-aberastasun segida errealtate bihurtu zaigu, herrialdeen arteko jendezein informazio-jarioa fenomeno arrunta bilakatu... Beraz, ez gaitzen konformatu subjektu postmodernoa indiferentea eta azaleko hedonista dela sinetsarazi nahi digutenen bertsioarekin, jo dezagun muinera eta konbentzi gaitzen bestean aurrean jarrera irekiagoa hartzeak ekar diezazkigutkeen onurez, hemendik aurrera gure bizitzaren maila guztietan islatu ahal izateko.¶

-
1. Ikerlan hau Eusko Ikaskuntzak emandako dirulaguntzari esker burutu da. Egilea Euskal Filologian lizentziatua da EHUUn. Literatura Konparatua eta Ikasketa Literarioak masterra egin ondoren, egun euskal literatura garaikideari buruzko tesia idazten ari da. *El Correo* egunkariko «Territorios» gehigarri kulturalen kolaboratzen du.

Bibliografia

- Augé, Marc (1998): *Los no lugares. Espacios del anonimato*. Bartzelona: Gedisa.
 — (2001): *Ficciones de fin de siglo*. Bartzelona: Gedisa.
 Baudrillard, Jean (1998): *Cultura y simulacro*. Bartzelona: Kairós.
 Camus, Albert (2003): *El extranjero*. Madril: Alianza.
 Cioran, Emil (1991): *En las cimas de la desesperación*. Bartzelona: Tusquets.
 Foster, Hal (arg.) (1998): *La posmodernidad*. Bartzelona: Kairós.
 Foucault, Michel (1982): *Vigilar y castigar*. Madril: Siglo XXI.
 — (1989): *Las palabras y las cosas*. Madril: Siglo XXI.
 Giddens, Anthony (1996): *Las consecuencias perversas de la modernidad*. Bartzelona: Anthropos.
 Habermas, Jürgen (1980): «La modernidad, un proyecto incompleto», in Foster (1998).
 — (1987): *Teoría de la acción comunicativa*. Madril: Taurus.

- (1989): *El discurso filosófico de la modernidad*. Madril: Taurus.
- (1991): *Conciencia moral y acción comunicativa*. Bartzelona: Península.
- Iturbide, Amaia (2008): «Jean-Paul Sartre eta Albert Camusen ekarpenaz», *Egan* 3-4.
- Jameson, Fredric (1982): «Posmodernismo y sociedad de consumo», in Foster (1998).
- (1991): *El posmodernismo o la lógica cultural del capitalismo avanzado*. Bartzelona: Paidós.
- (1996): *Teoría de la posmodernidad*. Madril: Trotta.
- Kolakowski, Leszek (1983): *Husserl y la búsqueda de la certeza*. Madril: Alianza.
- Lechner, Norbert (1990): *Los patios interiores de la democracia: subjetividad y política*. Txileko Santiago: FCE.
- Lipovetsky, Gilles (1994): *El crepúsculo del deber*. Bartzelona: Anagrama.
- (2000): *La era del vacío. Ensayos sobre el individualismo contemporáneo*. Bartzelona: Anagrama.
- Liotard, Jean-François (1983): *La condición posmoderna*. Madril: Cátedra. [Originala: *La condition postmoderne: rapport sur le savoir*. Paris: Les Editions de Minuit, 1979].
- (2001): *La posmodernidad (explicada a los niños)*. Bartzelona: Gedisa.
- Mercero, Gorka (2008): «Postmodernitatea ez da axolagabekeria, ezta azalakeria ere», *Egan* 1-2.
- Nietzsche, Friedrich (1988): *Consideraciones intempestivas*. Madril: Alianza.
- (1997): *Más allá del bien y del mal*. Madril: EDAF.
- (2000): *El nacimiento de la tragedia*. Madril: Alianza.
- (2006): *Nihilismo: escritos póstumos*. Bartzelona: Península.
- Sartre, Jean-Paul (1984): *El ser y la nada: ensayo de ontología fenomenológica*. Madril: Alianza.
- (2004): *Goragalea*. Irun-Donostia: Alberdania-Elkar.
- Sudupe, Jon (2008): «Ilustrazioaren kriseilupean», *Egan* 1-2.
- Vattimo, Gianni (1989a): *La sociedad transparente*. Bartzelona: Paidós.
- (1989b): *El sujeto y la máscara: Nietzsche y el problema de la liberación*. Bartzelona: Península.
- *et al.* (1990): *En torno a la posmodernidad*. Bartzelona: Anthropos.
- (1998): *El fin de la modernidad. Nihilismo y hermenéutica en la cultura posmoderna*. Bartzelona: Gedisa.



ARTEA 93

Jus primae noctis
Memoria hautaketa
Publiko guztientzat

HAIZEA BARCENILLA

TEKNOZIENTZIA 99

Internet eta hizkuntzak
Elgorria
Pasahitzak
Mugarik gabeko zientzia

INAKI IRAZABALBEITIA

LITERATURA 106

Sakelarako liburuak
Erromantikoa eta arrosa literaturan

GOIZALDE LANDABASO

SOZIOLINGUISTIKA 112

Udako ikastaroak
Informazio soziolinguistikoa sarean
Ikasturte berria eta ikerketa soziolinguistikoak

LIONEL JOLY

GLOKALIA 118

Haserrea, amorrua eta herra (eta zenbait har)
KEHGak (Krak Egiteko HandieGiak) nonahi
Desordenaren eztanda

JOSU LARRINAGA

Jus primae noctis

Hitz hauek idaztera jartzen naizen honetan, argi dago Dominique Strauss-Kahn ez dela kartzelara joango. Aurrekoan irratian entzun nuen bezala, arrazoi nahiko dauzkagu gizon honek etikaren kontrako zerbait egin duela sinesteko, baina gutxi legearen kontrako zerbait egin duela frogatzeko. Kasu honetan, gainera, eragin gehiegizkoa izan du inplikaturako bi pertsonen desberdintasun sozial eta ekonomikoak, eta Diallo Nafissatou Sofitel hoteleko garbitzailea prentsan gezurtizat hartua izan da lehen momentutik. Bortxatutako emakume askok pairatu behar duten egoera, bide batez.

Poztu gaitezen behintzat DSK deritzotena ez dugulako Frantziako lehendakari izango, eskandalu honen aurretik Sarkozyri zaplazteko ederra emateko aukera zuela zirudielako. Batzuek diote konplot bat izan dela; hala bada, Frantziako emakume azkarren batek planeatu du seguruenik kolpea.

Beldugarriak dira, alegia, kasu hau eta gero berpizten ari diren kontuak, orain arte Frantzian anekdota txiki edo bertako «idiosinkrasia ireki eta sutsuaren» erakusle legez etiketatu zirenak. Strauss-Kahnek publikoki aldarrikatu du emakumeak gustatzen zaizkiola; gehiegi, beharbada. Piroška Nagy, 2008an Strauss-Kahnekin gau bateko afera izan eta gero bat-batean lana utzi eta Londresera joandako NDFko ekonomistak, egunkariei zuzendutako eskutitz batean nagusiaren presioa indartsua eta ez-aproposa izan zela zioen; berea da esaldi argigarria: «Gizon honek arazo bat du, eta arazo horrek emakumeak bere barne dituen antolakuntza baten buru izatea eragozten diola uste dut».

Eskutitz hori batzorde batek egindako ikerketa itxi eta gero bidali zuen Nagy. Ez zien ikertzaileei gehiegi lagundu,

ez baitzen komiteaz fidatzen (izan ere, DSKren kontrako kargurik ez zen izan), eta gainera, bere bizitza pertsonalaren onerako alde egitea nahiago izan zuela onartu zuen. Ikusita Nafissatou andrea nola tratatu duten, erabaki gogorra baina ulergarria. Are gogorragoa, ordea, Tristane Banon 23 urteko kazetari gazteak hartu zuena 2002an: DSK handia bera bortxatzen saiatu omen zen, baina Banonek ez zuen denuntziatu. Alde batetik, afera izan zuen neskatila ernaia bezala ezagutua izan nahi ez zuelako; eta bestetik, bere amak, Anne Mansouret diputatu sozialistak, gizonaren familia zein karrerari egin ahal zion kaltea irizpide, ez egiteko gomendatu ziolako. Bizarrak tente jartzeko moduko ama ulerkorra.

2007an telebistako programa batean Banonek istorioa kontatu zuen, baina ez zitzaion arreta gehiegirik eskaini. Egun, ordea, New Yorkeko kasuaren eraginez, denuntzia jartzea erabaki du. Irabaziko ez duen arren (bortxaketa kasuak epaitegian irabaztea, testigurik gabe, ia ezinezkoa da), agian benetako gaia ekarriko du mahai gainera: instituzio garrantzitsuetan esku duen gizon batek emakumeekiko duen harreman gaixoa. Izan al daiteke frantziar lehendakari emakume batengan abentura baten aukera besterik ikusten ez duen pertsona, edozein testuinguru eta momentu aproposa ikusten duena maitakeriatan ibiltzeko, bere inguruko emakumezko langileak deseroso sentiarazten dituen? Esaterako, Aurélie Filippetti diputatu sozialistak, Strauss-Kahnekin «esperientzia ezatsegin» bat izan eta gero, berarekin espazio itxietan egotea saihesten zuela onartu du. Horrelako norbaitek defenda al ditzake akaso estatu bateko emakumeen beharrak, emakumeengan lehen gaueko eskubidea besterik ikusi ezin badu?

Memoria hautaketa

Alaitasunez aurkeztu ditu Bilboko Arte Ederretako Museoak azken hamar urteetan BBVAk emandako gordailu bati esker erositako artelan berriak. 269 dira guztira, garai ez-

berdinetakoak, nahiz eta bi ildotan zentratzen diren nagusi-ki: arte garaikidea eta euskal artea. Ezin da ahaztu, 1945ean Arte Ederretako eta Arte Modernoko Museoak gaur ezagutzen dugun instituzioa sortzeko elkartu zirenetik, horren eginkizuna dela Euskal Herriko arte bilduma publikoa osatzea. Azkeneko urteetan bere politikak nahiko tradizionalistak izan diren arren, arte garaikidea beti egon da presente Bilboko museoan. Erosketa berri horiek gure memoria kolektibo ofiziala osatuko dute, beraz, gure arteari buruz erai- kiko den irudia. Ez baitezagun ahaztu artista batentzako horrelako bilduma publiko batean sartzeak onspena eta legiti- mazioa suposatzen duela.

Nola osatu du beraz museoak gure irudi garaikide hori? Bada, 1945 eta 2000 bitarteko 52 lan daude, eta 2000tik aurrerako beste 14. Horietatik, hiru lan dira emakumezkoenak: Mari Puri Herreroen bi margo eta Susana Talayeroren bat. Horiei gehitzen zaie Juan Luis Moraza eta Marisa Fernándezek osatutako CVA kolektiboaren beste lan bat.

Agian, irakurle maite hori, zenbaki horiek harritzen zaituzte. Agian arreta deitzen dizu hiru emakumeren lanak bakarrik erosi izanak azken hamar urteetan. Eta baduzu zertan harritzerik, Arte Ederretako Museoak eta bere gain dau- den instituzioek erantzukizun falta izugarria erakutsi baitu- te erosketa politikak zehazterakoan. Dirudenez, gustu per- tsonaletan eta idiosinkrasia kontserbadore batean besterik ez dituzte oinarritu haien erosketak, emakumeentzako dis- kriminazio positibozko politikak ez bultzatzeaz gain, zuzen- ki negatiboki diskriminatu dituztelako.

Museoak ez du, adibidez, Esther Ferrerren lanik, nahiz eta artista euskaldun horrek Venezian erakutsi eta Espainiako Arteen Sari Nazionalea jaso duen; Elena Asinsen lan bakarra du, orain dela horrenbeste erositakoa ezen webguneko kata- logoan ez den ezta agertzen ere, artista horrek momentu honetan Reina Sofía museoan bakarkako erakusketa bat duen arren. Berdina gertatzen da Mari Paz Jiménezzen lana- rekin: bi daude, biltegietan galduak, katalogoan desager-

tuak. Ez du Marisa Gonzálezen lanik, mundu mailan arte elektronikoaren aurrendari onartu eta ezaguna bada ere; ezta Begoña Zuberoren argazkirik, nahiz eta Gure Artea, Pilar Citoler argazkigintza sari internazionala eta Botín beka bat irabazi dituen; ezta, noski, Itziar Okarizen lanik, ezta Begoña Intxaustegirenak, ezta Ana Laura Alaezenak, ezta Dora Salazarrenak, ezta Juncal Ballestínenak. Ezta beste asko eta askorenak. Ez lotsatu izen horiek ezagunak ez badituzu: normala da. Inoiz haiei buruz entzuten ez baduzu, nola jakingo duzu zein diren? Chillida, Oteiza, Basterretxea eta Zumetak monopolizatutako irudi publikoan ez dago beste inorentzako lekurik. Laburbiltzeko, esan dezagun Euskal Herriko eta Espainiako artistarik inportanteenetarikoak direla, haietako zenbait, gainera, mundu mailan ezagunak.

Museoak, errealitate horren aurrean defendatzeko, hiru erakusketa aipatzen ditu: 2001ean egindako *Emakume inpresionistak*; 2006ko *Kiss Kiss Bang Bang*, arte feministaren ingurukoa; eta aurtengo *Gehiago dago zugaran*, Erdi Aroko emakumeen errepresentazioari buruzkoa. Hamar urtetan egindako hiru erakusketekin, azkena emakumea ez subjektu baizik eta objektu zuena (bodegoiak balira bezala) bete nahi du kupoa museoak. Irainaren maila ikusteko agian ondo legoke bakarkako erakusketekin konparatzea: 2001etik, 1924-1961 artean jaiotako euskal artisten 12 mostra indibidual. Garai bereko artista eta arkitekto internazionalen beste 12 erakusketa. Denak, 24ak, gizonaekoa.

Agian Bilboko Arte Ederretako Museoa begitazioduna da. Beharbada konturatu da, bera eta bere gain erresposabilitatea duten politikariak, beste munduko museo guztiak hanka sartzan ari direla emakumeen lanak erosten, oinarrizko irizpidea kalitateak izan behar duelako, eta emakume baten lanak, dirudienez, oso gutxitan izan baitezake kalitaterik. Zeinek daki, agian hogeitau urte barru beste bilduma guztiak damutuko dira egindako akatsaz, emakumeoi mantala zintzilikatuko digute eta sukaldera bidaliko gaituzte berriz, inoiz utzi behar izan ez genuen espaziora, alegia (hori bai,

ez lehen mailako sukaldarienera: hor ere ez dugu zer eginik); eta Arte Ederretako fakultatetik ateratzen den ehuneko hirurogeita hamarrari, hots, emakumeei, lizentziatura deuseztatuko zaie, zeren, azken finean, zertarako balio die?

Hau da, ene irakurle maitea, geure diru publikoarekin sortzen ari den bilduma publikoak duen oinarrizko politika. Publikoa. Hori bai, 578.000 euroko Chillidarik ez dadila falta.

Publiko guztientzat

Horrela deitu zen Xabier Arakistain Montehermosoko zuzendariak 2007an Rekalde Aretoan antolatutako erakusketa handi eta mamitsua. Ironikoa da, horiek izan baitira Encina Serranok, Arakistainen programa Gasteizko zentrorako hautatu zuen zinegotzi berak, esan dizkion hitzak. Ez badu bere programa «zabaltzen», urtarrilean kalera doa. Eta ziur, panorama horren aurrean, burua altu kalera doala.

Arakistainek proposatutako programak ezaugarri nagusi bat zuen: feminismoan oinarritzen zen forman zein gaietan. Batetik, erakusketa guztien partaideen erdia behintzat emakumezkoak izango ziren. Bestetik, artearen eta feminismoaren inguruko harremana lantzen zuen erakusketa serie bat irekiko zen, hala nola horrekin lotutako konferentziak eta aurkezpenak.

Hala ere, emakumeok pairatutakoak ez ezik, bestelako desberdintasunak, bidegabekeriak, errealitate politiko eta sozial konplexuak ere erakutsi nahi izan ditu Montehermosok bere programazioaren bidez. Esan dezakegu zentroa ez dela kontenplazio estetikorako gunea izan: ikuslearen konpromisoa suspertu nahi izan du beti, gogoeta bultzatuz. Esaterako, Catalina Lozanok komisariatutako *Inoren lurrak?* mostra munduko lurraren pribatizazio sistemen erakusle izan da. Edo *Living Together* erakusketan, elkarbizitzari, komunitateari eta gizakien arteko harremanei buruz gogoeta egiten zen artelan bikainen bidez.

Horretaz gain, izen propio nabarmenak izan dira Montehermoson azken hiru urteetan. Susan Hillerrek bertan egin du penintsulako bere lehen erakusketa indibiduala; jarraian Tate Modernekoa ireki du. Dora García, aurtengo Veneziako Bienaleko artistak, bitan izan du lana zentroan ikusgai, eta hitzaldia ematera ere etorri da. Artur Zmijewskyren *Them* bideoa ikusi ahal izan da, Documentarako ekoiztua eta Ordway sari garrantzitsuaren irabazlea. Banan-banan aztertuko bagenu kalitatezko artelan eta hitzaldi guztiak, bost artikulu beharko genituzke behintzat.

Baina Montehermosok arazo bat du: ez omen du denontzako programazio bat aurkezten. Politikariek ez dituzte horren aurrean Guggenheimeko ilarak ikusten. Ez da «demokratizatzailea», futbola bezala. Serranok dioenez, ez da «publiko guztiei» zuzendutako lekua, guztion interesak ukitzen dituena. Logika horri jarraituz, ez dezagun Somaliara laguntzarik bidali. Azken finean, gosetea haien arazoa da, feminismoa emakumeona den bezala, eta ez «denona».

Dirudienez, berdintasuna iritsi da Euskal Herriko kulturara eta emakumeok ez gara konturatu: jada ez da beharrezkoa arte bildumatan emakumeak izatea, ezta desberdintasunari buruz hitz egiten duten erakusketak egitea. Gobernuen erdiak emakumeak direnean eta langile bihurtzen garenean, gaiak xarma galtzen du eta gustu txarrekoa bihurtzen da. Baina errealitatea da Montehermoso bezalako lekuek atek ixten dituztela, Museoak dinastia patriarkal formalistak ezartzen dituen bitartean, emakume liberatu, langile, artista eta batez ere ez ikusiak kanpoan utziz.¶

Internet eta hizkuntzak

Udaberrian argitaratutako txosten batean Eurobarometroak europarrok Interneten nabigatzeko ditugun hizkuntza-ohiturez bildutako datuak jakinarazi ditu. *User Language Preferences online* deritzo txostenari (ikus: www.eubusiness.com/topics/internet/languages-1). Hainbat esparrutako Internet erabilera aztertzen da: prentsa leitzea, informazioa bilatzea, komunikatzea, erosketak egitea edo eragiketa finantzarioak egitea. Datu jakingarriak ematen ditu inkestak. Beste inkesta batzuetan erakutsitako joerak berresten ditu hala ere.

Europako Batasuneko estatuetako 10 Internet-erabiltzailetatik 9k bere berezko hizkuntzan nabigatzea nahiago dute aukera hori eskaintzen bada. Erdiak, ordea (%53k), onartuko luke ingelesezko bertsioa bere hizkuntzakerik egongo ez balitz.

Bere estatuko webgune guztiak hizkuntza ofizial guztietan egon beharko luketen galdetzen denean, %88k baiezkoa erantzuten du eta gainera %81ek beste hizkuntza batzuetan ere egon beharko luketela erantzuten du.

EBko internauten %19k bakarrik esaten du bere berezko hizkuntzan bakarrik nabigatzen duela, baina portzentaje hori %42ra igotzen da erosketak egin behar baditu eta %76ra eragiketa finantzarioren bat tartean denean.

Inkestaren emaitzak estatuz estatu analizatzen badira nabarmentzeko joera bat dager. Interneten eduki handia duten hizkuntzen hiztunek tolerantzia txikiagoa dute beste hizkuntzetan dagoen edukiarekiko edo, modu batean esanda, Interneten eduki gutxi duten hizkuntzen hiztunek beste hizkuntza batean dauden edukiak onartzeko joera handiagoa dute. Hori Zipren, Maltaan edo Eslovenian nabarmen ikusten da.

Europako Batasunean ofizialak ez diren berezko hizkuntzak, euskarak edo katalanak kasu, izan duten trataera ez dago garbi. *'Mother tongue'* (ama hizkuntza) edo *'own language'* (berezko hizkuntza) bezain kontzeptu labainak erabiltzen dira. Kontzeptu subjektiboa da eta jakina da egoera soziolinguistiko batzuetan pertsonak gurasoengandik jasotako hizkuntza ezkutatu egiten dutela hizkuntza ofizial nagusiaren mesedetan. Bestalde, *'Zein da zure ama hizkuntza edo zure berezko hizkuntza?'* itauna egiten denean zerrenda itxi bat eskaini ei da, txostenean adierazten ez dena. Sobra ere, ofizialak ez diren berezko hizkuntzak eskaini egin dira, Espainiako datuetan katalanari buruzko datuak ageri direlako. Alta bada, Espainian egin diren 501 inkestetan galdera horren erantzunek harridura-puntua sortzen dute. Izan ere, %87,2k gaztelania esaten du, %6,6k katalana, %2,4k beste hizkuntza bat, %0,4k errusiera (?) eta %0,2k suediera (?). Horretaz aparte, Espainian galdetzen denean ea 'berezko hizkuntzan' ez den batean nabigatzen denean zein den, %12k gaztelania erantzuten du.

Horrek guztiak bi ondorio argi uzten ditu. Jendeak askoz ere nahiago du bere berezko hizkuntzan aritzea baita Interneten ere eta hori sarearen hizkuntza dibertsitatearen mesederako da. Hortaz, Internet bidez 'merkatura' iritsi nahi duenak informazioa ahalik eta hizkuntza gehienetan eskaini behar du. Helburu merkatuaren hizkuntzan jardun behar du, eta ingelesa lagungarria bada ere, ez da aski.

Dibertsitate linguistiko hori kudeatzean hizkuntzaren teknologiak makulu ezinbestekoak dira prozesuen eraginkortasuna hobetzea eta kostuak doitzea ekartzen dutelako besteak beste.

Elgorria

Ekainaren hasieran jakin genuen. Lehen aldiz azken 10 urteotan elgorri kasuak izan ditugu Gipuzkoan. Negu-udaberrian izan da. Hogeita bat gaztek sufritu dute. Gazte horietatik 18 txertatu gabekoak ziren.

Gipuzkoako egoera herrialde garatuetan gertatzen ari denaren isla da. Espainian 2 elgorri kasu egon ziren 2004an; 2011ren lehen seihilekoan 1.300etik gora izan dira. Epe berean Frantzian 5.000 kasu egon dira eta 6 heriotza. Iaz Kalifornian 10 lagun hil ziren.

Zergatik ari da gurean desagertuzat jotako eritasuna itzultzen? Txertatu gabeko haurren proportzioa igotzen ari delako. Umeek 12-15 hilabete dituztelarik hirukoitz biriko izeneko txertoa hartzen dute. Ondorioz elgorriaren, errubeolaren eta hazizurriaren kontra txertatuta gertatzen dira. Azken urteotan guraso gazteen artean txertoak eragin kaltegarria izan dezakeela zabaldu da. Hortaz, gero eta gehiago dira beren seme-alabei hirukoitz birikoa txertatzen ez dietenak. Hori elgorriaren birusaz babestuta ez dauden umeen eta gazteen poltsa bat sortzen ari da, eritasunaren erasoak gertatzea errazten duena. Elgorri-erasoek ez diete soilik txertatu gabekoei eragiten. Txertatutakoek ere paira dezakete eritasuna. Beraz, gizartea jartzen da arriskutan. Gurean umeen %5 baino ez dago egoera horretan. Herrialde anglosaxoietan txertatu gabekoen portzentajea adierazgarria izan daiteke hainbat eskualdetan. AEBetan 1.500 gurasoen artean egin berri den azterketa batek aditzera eman du horietatik laurden batek uste duela txertoek autismoa eragin diezaieketela ume osasuntsuei. Halaber, hamarretik batek ez zituen seme-alabak txertatu.

Nola iritsi dira guraso horiek ondorio horretara? Internet bide izugarria da jendea informatzeko eta hezteko, baina baita informazio okerra eta ustekeriak zabaltzeko. Interneten makina bat gune aurki daiteke txertoak eta autismoa lotzen dituen informazioa zabaltzen dutenak. Informazio erratu horri jantzi zientifikoa erantsi diote. Andrew Wakefield mediku ingelesak 1998an publikatutako lan bat dute erreferentzia. 11 umeren autismoa hirukoitz birikoarekin lotu zuen. Gerora lan hori iruzurra dela frogatu da (ikus: http://en.wikipedia.org/wiki/MMR_vaccine_controversy). Dena dela sustrai luzeak utzi ditu.

Elgorria osasun-arazo bihurtzear egon liteke. Nola egin aurre umeak ez txertatzeko joera hazkor horri? Gurasoak egoki informatzea, auziaren benetako neurria ematea eta jarrerera horrek hirugarrenengan eragin dezakeen kaltea age-rian jartzea arazoa bideratzeko oinarriak dira. Osasun-sistemaren eta profesionalen lana izan daiteke hori. Prest al dago sistema horretarako? Esaterako, umeak artatzen dituzten pediatrek denborarik ba al dute hori egiteko? Prestatuta al daude ezezko jarrerara duten gurasoak konbentzitzeko? Prebentzio-lana izan daiteke hau guzti hau, baina krisi-garai honetan non osasun-aurrekontuak murriztu nahi diren, aukerarik ba al dago?

Toki batzuetan legearen pisua usatzea deliberatu dute. Uztailean Andaluziako gobernuak onartu duen Osasun Publikoaren legeak seme-alabak txertatzera behartuko ditu herritarrak. Ez daukat oso garbi bide hau momentuko adabakia ez ote den. Txertatzea nahi ez dutenek baliatzen dituzten argudioen artean ‘norbanakoaren askatasunarena’ dago. Kasu honetan nabarmena da ‘askatasun’ horrek hirugarrenei eragiten diela, eritasun-poltsak sortarazten dituelako. Beraz legea erabiltzeak zilegitasun etikoa badu. Nago, ordea, ideien eta usteen esparruan informazio ona eta egokia epe luzera eraginkorragoa dela. Interneten eta bestelako foroetan dabilen informazio okerra borrokatzetik eta gurasoak konbentzitzetik eman ahalko zaio buelta joerari. Dena dela, gure sozietate honetan erraz asko jotzen dugu debekuaren bidetik, informazioa bigarren mailan lagata.

Pasahitzak

Aitortu behar dizuet gero eta nekatuagoa nagoela edozein eragiketa egiteko eskatzen dizkiguten pasahitz eta enparauekin. Nire lehen harremana pasahitzekin kutxazainak abian jarri zirenean izan zen. Entenditzen dut beste inor nire diruetan eskua ez sartzeko kontrolen eta iragazkien beharra. Segurtasuna legea da kasu horretan. Alabaina, segurta-

suna konplikazio eta lan bihurtzen denean zerbaitek huts egiten du.

Hortaz, *Scientific American* aldizkariaren atzen alean David Pogue zutabegilearen artikulua leitu nuenean gustura gelditu nintzen. ‘Segurtasun-betebehar absurdoetan itotzen ari den mundua’ azpтитulatzten du zutabea.

‘Ados!’ oihu egin nuen nire golkorako. Bere alabaren eskolan gertatutakoa kontatzen du. Izan ere, ikasleek, segurtasunaren izenean, 8 karaktereko pasahitzak erabili behar dituzte eta letrak, zenbakiak eta puntuazio-zeinuak baliatu behar dituzte eta segidak ezin du tartean ingelesezko hitzik izan. Gainera, pasahitza 30 egunez behin aldatu behar dute. Ez da gauza berria, gero eta ohikoago bihurtzen ari da enpresa-munduan. LHko 5. mailako ikasleei eskolako webgunetik etxeko lanak deskargatzeko ezartzea, aitzitik, absurdoaren mugetan dago.

Segurtasun informatikoaren adituei jaramon egingo bagenie, usatzen dugun webgune bakoitzeko 32 karaktereko pasahitza baliatu beharko genuke non letrak, zenbakiak eta puntuazio-zeinuak nahastu beharko genituzkeen. Eta bi astean behin aldatu! Ezin dut imajinatu horiek guztiak gogoratzearen amesgaiztoaren tamaina!

Hortaz, gehienok errazetik jotzen dugu, pasahitz ia bera egoera guztietan baliatuz. Bekatu larria, jakina! Hala ere, gutxienez maila bereko bekatua da, segurtasun-neurri heretsi horiek baliatzen dituzten erakundeetan, enplegatuek gero pasahitza *post-it* batean badute ordenadorearen ondoan itsatsita. Horrelakoak ikusten dira, gero!

Pasahitzen auzi horren beste modalitate gogaikarria webguneetan erregistratu behar izate hori. Are gogaikarriagoa gertatzen zait erregistratu behar hori baten batek dokumentu bat helarazi nahi didanean agiriak konpartitzeko webgune horietako batean jartzen duenean. Ezin dut eraman! Gero eta sarriago jazotzen ari zait, ordea. Errebelatu eta izenik ez ematea deliberatu dut. Hortaz, horrelako sistemak baliatzen dituztenei dokumentua mesedez posta elektronikoz bidaltzea eskatzen diet. Nekatuta bainago nire arrastoa nonahi uzteaz!

Mugarik gabeko zientzia

Espainia aldera Aita Santuak eginiko bisitak hautsak harrotu ditu hamaika motibo medio. Zientziaren mugei buruz eginiko aipamena ekarriko dut hona. Hala ere, gustura arituko nintzatekeen bisitak sortu dituen beste eztabaida batzuez, estatuaren laikotasunaz kasu.

Prentsatik izan nuen berri. Atentzioa erakarri zidan. Titular gehienek honelako zerbait zioten: *‘Aita Santuak mugarik gabeko zientzia salatu du’*. Berrien testuan argibide gehiago ez. San Lorenzo del Escorialen unibertsitario katolikoei eginiko hitzaldi baten zatia zen aipamena. Hortik aurrera ezer gutxi. Zer esan nahi izan du Ratzingerrek ‘mugarik gabeko zientzia’ esapidarekin. Hitzaldiaren testua ere eskuratu dut. Honatx duzue jatorrizko hizkuntzan:

Sabemos que cuando la sola utilidad y el pragmatismo inmediato se erigen como criterio principal, las pérdidas pueden ser dramáticas: desde los abusos de una ciencia sin límites, más allá de ella misma, hasta el totalitarismo político que se aviva fácilmente cuando se elimina toda referencia superior al mero cálculo de poder. En cambio, la genuina idea de Universidad es precisamente lo que nos preserva de esa visión reduccionista y sesgada de lo humano.

Hara! Lengoia kriptiko horrek ez dit gauza handirik esaten, nahiz eta suma dezakedan zientzia hutsaren arrazoia kritikatzan ari dela, hots, zientzian nagusiki oinarritutako munduaren ikuspena. Mugarik gabeko zientzia salatzeak kontraesana du bere baitan, definizioz ez baitauka zientziak, jakintza zientifikoak, mugarik. Beste enbor bateko ezpala da zientziaren izenean egin daitezkeen gehiegikeriez aritzea. Erljioaz ere gauza bera egin baitaiteke. Eliza katolikoak berak kondoiari egiten dion gerra HIESa arrapaladan ari den herrietan.

Egia esan, niri pertsonalki eliza katolikoaren kargurik gorenak izan ditzakeen iritzia ez zaizkit inporta urliak edo sendiak izan ditzakeenak baino gehiago. Arazoa da kasu honetan milioi asko jenderentzat, Madrilen bildu ziren horientzat etsenplurako, Benedikto XVI.aren esana egia ber-

dadero errebelatua dela; horrek eragin ditzakeen ondorio guztiekin, gorago aipatu dudan adibidea kasu.

Interneten xerkan aritu naiz Ratzingerren pentsamenduan zientziaren mugez zer agertzen den. 2006an Zientzien Akademia Pontifizioaren kideen aurrean emaniko diskurtsoa aurkitu dut. Izenburu adierazgarria du: *Zientziaren aukerak eta mugak* (ikus: www.zenit.org/article-21655?l=spanish). Nire irudiko desegokiak diren esaldi bat baino gehiago leitu daitezke testuan, baina ikuspegi orokorraren muina honetan egon daiteke:

Gizakiak ezin du zientzia eta teknologian horren konfiantza irrazionala eta baldintzarik gabekoa jarri, uste izateko zientzia eta teknologiaren aurrerabideak dena esplika dezakeela eta bere behar existentzialak eta izpiritualak osorik beteko dituela. Zientziak ezin ditu filosofia eta errebelazioa ordezkatu. Ezin die erantzun erabatekorik eman gizakiaren oinarrizko galderei, hala nola bizitzaren eta heriotzaren zentzuari, balio oinarrizkoei eta aurrerabidearen izaerari dagozkienak.

Errebelazioa da gako hitza. Zientziak munduaren eta uni-bertsoaren funtzionamenduaren ikuspegi damaigu, alegia, nola dabilen, zeintzuk diren gobernatzen duten oinarrizko legeak, nola egitaratuta dagoen. Etengabeko galderak eta erantzunak. Erantzun guztiek beste galdera batzuk planteatzen dituzte. Peskiza etengabea. Modu globalean hartuta bizitzak eta heriotzak zentzurik ba al dute, prozesu fisiko-kimiko antientropiko baten bilakaeraren ondorio izateaz aparte. Maila pertsonalean beste kontu bat da, norberak bilatuko baitio bizitzari zentzua. Filosofiak lagun diezaioke horretan urliari. Erlijioari helduko dio sendiak. Dena dela, bi-biak giza pentsamenduaren konstruktua baino ez dira, eta hori bezala anitzak eta, sarri, kontrajarriak eta kontraesankorrak dira. Zientziak agerian uzten dizkigun naturaren le-geak, aitzitik, unibertsalak eta bakarrak dira.

Sobra ere, errebelazioaren mugak tenkatzen dituzten zientziaren ondorioak dirateke abusu horiek. Edo beste modu batera esanda, arrazoimenak giza konstruktua agerian uzten dituen gaitzen dituzten zientziak mugak.¶

Sakelarako liburuak

Lehengoan liburu denda batera abiatu nintzen lagun batekin. Irakurle amorratua da bera eta maiz egiten ditugu horrelako topaldiak. Sartu eta berehala banatu ziren gure bideak, berak sakelako liburuen txokora jo baitzuen (bide batez esanda, gero eta handiagoa dena). Azaldu zidanez, merkeagoak dira (*of course*), baina berak erosotasunagatik egiten du. Eta espazioagatik. Eta pisuagatik ere bai. Zorroan ederto sartzen zaio, baina horrez gain, etxeko apaletan liberazioa sentitzen du. Nire lagun horren ohitura literarioak bitxiak dira. Izugarri gustatzen bazaio liburua (gutxitan gertatzen zaio) azal gogorrekoa erosten du eta etxeko apalategian utzi ohi du hautsa batzen. Bestela, edozein tokitan bazterreratzen du liburu txikia; taberna batean, autobusean edota lantokian. Parisen bizi zenean ikasitako lezioa bide da. Izan ere, sake-lako liburuak ohitura handikoak dira Frantzia, Ingalaterra edota Estatu Batuetan.

Sakelako liburu tipikoa deskribatu beharko bagenu, argi eta garbi salneurriari begiratu beharko genioke. 6 eta 10 euro artekoak izan ohi dira. Azala, jakina, biguna, tolesgarria. Orriak, sarri birziklatutakoak eta meharrak, Askao eta Sendeja arteko esperantzaren antzekoak. Eta azala arin-arin egindakoa begitantzen zait beti. Gutxi gorabehera horiek dira ezaugarri nagusiak. Ez beti, hori ere esan behar da; izan ere, Europako zenbait herrialdetan kaleratzen dituzten poltiko liburuen argitalpen kalitatea handia da.

Sakelako liburuen hastapena kontatzeko *Once upon a time* esaldiarekin hasi beharko genuke. Badirudi 1935ean izan zela. Urte hartako egun buruzuri batean Ingalaterrako Exeter-eko tren geltokian zain zegoen Allen Lane, Bodley Head

argitaletxekoa. Londresera itzultzeko zain zegoen. Zain eta aspertuta. Eta burua buelta-bueltaka hasi zitzaion. Edozein lekutan sar litekeen liburua banu esku artean... tabako pakete baten prezio eta neurrian... istorioa luzeagoa da, baina utz dezagun laburrean: Londresera itzuli eta tren geltoki galdu hartako ideia gorpuzten hasi zen. Bodley Head argitaletxekoei zorakeria galanta begitandu zitzaien Lane jaunarena. Ez zuten ikusi (miopeak, nonbait). Allen Lanek bere-bereza zen diruarekin gauzatu zuen pentsatutakoa. Argitaletxe berri batean. Penguin izena eman zion, idazkariak aholkatu-rik, antza. Lehenengo sakelako liburua laguna zuen Agatha Christie idazlearen liburu bat izan zen: *The mysterious affair at styles*. Ondoren etorriko ziren, hala nola: Ernest Hemingway-ren *A farewell to arms* edota Dorothy Sayers-en *The unpleasantness at the Bellona Club*. Baita arrakastarekin etorri ere.

Euskal Herriko literaturak liburu txikietan ahaleginik izan du. Esaterako, sakelako liburutzat har genitzake Gaztelupeko Hotsak argitaletxeak kaleratutako «Bosgarren haria» bildumakoak. Bertan musikaren gainekoak kaleratu zituzten. *Bap. Bai horixe, Elliot Murphy. Amerikarra Parisen, Itoiz. Hari xingle bat, Jotakie. Urolan pop, Morrissey (& The Smiths). Hildakoan izango naiz famatua, Ramones. Familia maitagarria, The Clash. Punk, rock'n'roll and reggae matxinada, Public Enemy. Beltzegi, indartsuegi, edota Rory Gallagher. Kementa eta leialtasuna*. 10 eta 12 euro artean saldu ziren liburuxkak. Hortaz, batez besteko salneurritik apur bat gora bazegoen ere, formatuari dagokionez ezin ukatu sakelako liburuak zirela.

1994an Erein argitaletxeak sortu zuen Milabidai bilduma. Bi urteko iraupena izan zuen (1994-1996), eta neurri txikian beste hizkuntzetako idazle ezagunak gureganatu zituen. Edgar Allan Poe, Gustave Flaubert edota William Conrad besteak beste. Itzulpen horiekin batera bertoko idazleen lanek argia ikusi zuten bilduma horren barruan. Joseba Sarrionandiaren *Miopeak, bizikletak eta beste langa-*

betu batzuk, Bernardo Atxagaren *Zeruak*, edota Harkaitz Canoren *Pauloven txakurak*. Gazteak erakarri nahi zituen bildumak, eta bere bide laburrean lorratza utzi zuen.

Sakelako liburuen atalean murgildurik euskarazko literaturara gutxi ikusi dut. Euskaraz kaleratzen duten hiru idazleren lanak aurkitu ditut (gazteleraz): Bernardo Atxaga, Unai Eloorriaga eta Kirmen Uribe. Egia da (neuk ikusi dudalako, *parce que moi je l'ai vu*) euskaraz kaleratzen den oro apal berean dagoela. Berdin dio zer. Euskaldunak denok batera. Ez dakit apalategietarako irizpiderik egokiena den. Baina hori, iruditzen bazaizu, beste eztabaida baterako utziko dugu.

Esan dizudan legez, Europako herri batzuetan oso-oso arrakasta handia dute mota honetako liburuek. Ingalaterran bertan oso ohikoak dira neurri txikiko liburuak, baina zenbaiten aburuz (ez ditut nik Ingalaterran kaleratzen dituzten sakelakoak ikusi, eta hau bi lagunen iritzien isla da) «papera oso txarra da eta apurtuta amaitzen du beti liburuak». Alemanian, berriz, zoragarriak bide dira egiten dituzten bildumak. Izan ere, garrantzitsuak diren argitaletxeek (Suhrkamp, Reclam, Fink, Meiner) kalitate handiko liburu txikiak egiten dituzte. Esaterako, Suhrkamp argitaletxeak poltsiko-liburuen bilduman badu klasikoen sorta. Badu baita egile modernoagoena. Badu saiakera zientifikotzat har litekeena, eta baita itzulpenak ere. Frantzian «Folio» bilduma dago 1972az geroztik. «Idées» 1960aren inguruan poltsiko-liburuak kalera-tzeko bilduma da, eta 1966an «Poésie Gallimard» sortu zuten. Katalunian, esaterako, zazpi argitaletzek (Angle, Base, Bromera, Cossetània, Meteora, Símbol eta Vienak) bat egin zuten «Portàtil» izena duen bilduma sortzeko. 9 eta 15 euro arteko liburuak saltzen dituzte, poltsikokoak. Urtean 30 liburu berri kaleratzeko asmoa du sortu berriak. Bada, hala ere, sakelakoak katalunieraz saltzen dituen «Labutxaca» bilduma, Grup 62 taldearena. Espainian, «Compactos de Anagrama»; eta Ediciones B argitaletxeak ere edozein tokitan gordetzeko liburuetan ikusi du etorkizuna. «Librinos» bilduma atera zuen. Ondo omen dihoakio.

Izan ere, poltsiko liburuen etorkizuna garbia da, eta luzea, nonbait; laburtu eta lohitzten ez den bitartean, behintzat. Itzal bakarra dauka: teknologia. Estatu Batuetan, antza, iaz lehenengoz gehiago saldu ziren liburu elektronikoak sakelakoak baino. Aldea ez da oso handia, sakelako 100 liburuko 115 kindle saldu omen dira. Diru kopurutan esan genezake: liburu elektronikoaren salmenta 90,3 milioi dolarrekoa izan zen, eta sakelako liburuena 85 milioi dolarrekoa. Baina sakelakoak badu eremu indartsua Europan. Eta krisiak mota honetako liburuen salmenta hazi egin omen du, liburuen salmenta oro har jaitsi bada ere. Herrien arabera da ehunekoa; edozelan ere %20tik gora dabilta, zenbait tokitan gehixeago, gutxiago bestetsuetan. Hala ere, ez dira sasoirik onenak sakelakoentzat ere, eta liburu dendatako apalak poltsiko liburuz beteta daude nork erosiko zain.

Erromantikoa eta arrosa literaturan

Liburu dendatan jabetu naiz literatura erromantikoak gero eta apal gehiago betetzen duela. Gero, metroko bitxikeria, hau da: koloretako paperarekin forratzen dituzte liburuak. Era honetara inork ez du jakiten ahal zer irakurtzen ote duen. Lantokira ailegatzera argitu zidaten: eleberri erromantikoak irakurtzen dituzten askok egiten dute, beste paper batekin batu azala ikus ez dadin. Bai, azalak ikusgarriak izan ohi dira: emakume pinpirin eta lirainak beti gizon eder eta bular zabalen besoetan gordeak. Eta txiri-txiri saltseatzen hasi, eta unibertso oso bat zabaldu zait.

Eleberri erromantikoa ardatz duen webgune batean (www.rnovelaromantica.com), 2011ko udagoienerako berrogeita hamarretik gora liburu berri datoz. Erromantikoak denak. Ikusi dudanagatik, Eskoziako highlanderrak eta bikingoak oso maite dituzte irakurleek. Eta gero banpiroak, otso-gizonak eta enparauak; baina hori irakurle gazteagoak maite du.

Honetaz asko dakien bati galdetu diot ea mota honetako literatura asko saltzen ote den. Baietz esan dit. Hego Korean

izugarritzko arrakasta du eleberri erromantikoak, antza, eta urtean kaleratzen dituzten eleberri berriak asko dira. Estatu Batuetan beste. Estatu Batuetan ere itzelezko arrakasta baitu genero honek. Argentinan gehien saltzen duten liburuen zerrendan lehendabizikoa erromantikoa da, Florencia Bonelli-ren *Caballo de fuego*, eta bigarrena Cristina Bajo-ren *Territorio de penumbras*. «Eta Euskal Herrian ere bai», gehitu dit aditu erromantikoak edo erromantikoan adituak. Eleberri erromantikoak irakurtzea ez ei da aitortzeko moduko jarduera. Bekatu txikia. Lotsa edo ematen dio irakurle erromantikoari. Eta erosteak ere lotsa ematen bide dio. Horregatik saltzen da asko eta asko sarearen bidez edota etxera iristen diren katalogoen bidez.

Idazle ezagunak ditu literatura mota honek. Lehendabizikoa, ziurren, Danielle Steel da. *Forbes* aldizkariak kaleratzen duen ondoen ordaindutako idazleen zerrendan bigarrena da 35 milioi dolarrekin. Bestelakorik ere bada. Nora Roberts, Johanna Lindsey, Lisa Kleypas, Nicholas Sparks, Julie Garwood, Julia Queen, Marc Levy, Erich Segal, Robert Wallace, Shirlee Busbee, Alyssa Day. Aspaldiko garaietan ere izanak dira literatura erromantikoa idatzitakoak; D.H. Lawrence, Jane Eyre, Brönte ahizpak, Jane Austen... Anglo-saxoien istorioak omen dira jaun eta jabe. Beharbada horregatik dira idazle asko anglosaxoiak. Idazleez ari garela, beste datu bitxi bat ere eman behar da: idazleen izen asko gaitzizen dira. Eta zenbaitetan, emakumezko izen-abizen batzuen atzean gizon bat egon ohi da. Ezagun batek esan didanez, berehala igartzen da idazlea noiz den emakume eta noiz gizon. Berotasunean beroegi eta sentimenduetan hoztegi.

Literatura honetan sartu-irtena egin nahi baduzu hauxe duzu arrakastatsuenen rankinga: *Paradise* (Judith McNaught), *Ramson* (Julie Garwood), *Again the magic* (Lisa Kleypas), *Gentley rogue* (Johanna Lindsey), *After the night* (Linda Howard), *Kiss of the highlander* (Karen Marie Moning), *Perfect* (Judith McNaught), *Dreaming of you* (Lisa Kleypas),

It had to be you (Susan Elizabeth Phillips), *Then came you* (Lisa Kleypas), *See Jane score* (Rachel Gibson).

Dena den, baliteke horien artean gustukorik ez aurkitzea, klasikoagoa zarelako, edo, beste barik, ingurumari historikoa duten eleberriak maite dituzulako. Beste zerrendatxo bat: *The bride* (Julie Garwood), *The secret* (Julie Garwood), *A kingdom of dream* (Judith McNaught), *Saving Grace* (Julie Garwood), *Untamed* (Elizabeth Lowell), *The wolf and the dove* (Kathleen Wooddiwis), *The prize* (Julie Garwood), *Enchanted* (Elizabeth Lowell), *Forbidden* (Elizabeth Lowell), *This is all I ask* (Lynn Kurland).

Nik esan behar dut inoiz irakurri izan dudala era honetako libururik, *I confess you*. Baina aspertzen naute. Eskema berdina jarraitzen du beti. Emakume babesgabe bat. Gizon indartsu, kementsu eta boteretsua. Erakarpena. Oztopoak. Maitasunaren garaipena. Saltseatze lanetan, ika-mika sortu duen liburu batekin egin dut topo. Shirley Busbee-k idatzitako *Lady Vixen* liburua, hain zuzen ere. Istorioa: emakume gazte eta babesgabe bat bahitzen omen du pirata kapitain batek. Bortxaketak, sexu gehiegikeriak eta indarkeria zantzuak ikusi ditu irakurle askok. Topagune birtual honetan eztabaidak liburuko pasarteekin hornitzen dira. Gizonezkoak emakumeari esaten dio: «Ez dizut berriz ere mindu nahi... horretara behartzen ez nauzun bitartean». Edota, «Ixo, Nicole. Nire babespean zauden bitartean inor ez dadila zu jotzen ausartu. Agian nik egin nezake, horretara behartzen banauzu, baina ez diot zantar horri utziko». Ez da tratu txarrak ahalbidetzen omen dituelako salatua izan den liburu erromantiko bakarra. Johanna Lindseyk idatzitako *Captive bride* eta Jude Deveraux-en *The velvet promise* liburuei berdina egozten diete.

Kontua da izugarri saltzen ei dela eleberri erromantikoa. Sarearen bidez asko. Euskal Herrian ere asko saltzen da. Baina dena gazteleraz eta frantsesez. Euskaraz ez dago eleberri erromantikorik. Bada, jakina, maitasun istoriorik, baina aipatzen ari garen generoan sartzeko modukorik, ez.¶



Udako ikastaroak

Uda joan zaigu eta berarekin urtero antolatzen diren uda barnetegiak eta unibertsitateko uda ikastaroak. Aurten Soziolinguistika Klusterrak EHUren laguntzaz *Hizkuntza-ekologia: teoriatik praktikara* antolatu zuen uztailaren 7an eta 8an. Egitarau erakargarria osatu zuten Kataluniako eta Euskal Herriko adituak gonbidatuz. Gaia bera oso interesgarria da eta gaur egun tratatzeko oso egokia; gainera, teorietatik abiatu ez ezik maila praktikoa landu nahi izan zuten Soziolinguistika Klusterreko antolatzaileek, Euskal Herriko testuinguruan teoria ekolinguistikoak aplikagarriak diren edo ez baloratzeko. Ezin ahaztu dezakegu, ordea, Txepetx izan zela kontzeptu ekolinguistikoak Euskal Herrira zabaldu zituen aurrenetarikoa. Txepetxek, gainera, uztailan, eta aspaldiko partez, hitzaldia eman zuen udako ikastaro batean Galizian. Garaigoikoaren blogean Txepetx hitzaldiaren laburpen interesgarria irakur daiteke.

Informazio soziolinguistikoa sarean

Uda aurreko hilabeteetan, erakunde batzuek beren webguneen itxura aldatzeko aprobetxatu zuten. Euskaltzaindiaren kasua da: uztailan webgunearen (www.euskaltzaindia.net) itxura aldatu zuten, antolaketa argiagoa da orain eta errazago erabiltzen dira Euskaltzaindiak eskuragarri jartzen dituen zerbitzuak eta informazioak. Soziolinguistarentzat bereziki interesgarria da Azkue Bibliotekari eskainitako esteka; liburu bat bilatzen denean, Euskaltzaindiak argitaratua bada gehienetan dokumentua formatu elektronikoan zuzenean eskuragarri da. Gainera, Literatura atalean Auspoa bilduma

osoa kontsultatu daiteke. Auspoa bilduma Antonio Zabalak gidatutako liburu-bilduma da. 322 lan aurkitzen dira bertan, gehienbat bertsolaritzari buruzkoak baina baita literatura herrikoari buruzkoak, oroipen-liburuak edota biografiak ere.

Soziolinguistika Klusterrak ere bere webgunea berritu du (www.soziolinguistika.org). Erakundearen webgunea oso aberatsa zen, baina hainbesteko informazio artean galtzeko arriskua zegoen; orain, aldiz, Soziolinguistika Klusterrak eskaintzen dituen dokumentuak eta tresnak berdinak dira baina askoz forma argiagoan eskainiak. Azpimarratzekoa da hiru hilabetetik behin kaleratzen duten berripapera adibidez, eta bereziki txalotzekoa da Klusterrak burututako hainbat proiekturen emaitzak eskuragarri izatea webgunean. Modu horretan, Erabileraren GPSa, «Euskara sustatzeko komunikazio-ekimenak. Oinarrizko gida-lerroak» (Euskara sustatzeko komunikazio-gida dena), ERALAN proiektuaren txostenak eta beste hainbat proiektuen emaitzak kontsultatu daitezke. Gogora dezagun ere *Bat* aldizkariaren zenbaki guztiak (azken lau zenbakiak ezik) Klusterraren webgunean kontsultatu daitezkeela.

Ikasturte berria eta ikerketa soziolinguistikoak

Uda joan eta udaberriaren etorrerarekin batera ikasturte berria hasi da. Norberaren ezagutzak eta curriculum pertsonala osatzeko garaia da, interes pertsonal edo profesionalengatik erakargarriak suertatzen diren unibertsitateko kurtsoetan izena emanaz. Ezagupen soziolinguistikoak osatzeko ezin egokiagoa dirudi HIZNET hizkuntza plangintza graduondokoan izena ematea. Aldiz, jadanik Euskal Herriko egoera soziolinguistikoari buruzko gogoeta burutu eta agian idatzi ere egin duenak, garai honetan aukera du Soziolinguistika Klusterrak antolatzen duen Euskal Soziolinguistika Sarietan parte hartzeko. Iaz hiru lan saritu ziren. Luis Azpiazu Larrañagak lehenengo saria jaso zuen «Gazteak, musika eta euskara» lanarekin. Ohiz kanpoko ikerketa bat

zen Luis Azpiazurena, soziolinguistika egiteko modu ezberdina proposatzen zuen bertan. Bigarren saria Galder Unzalu Etxabek jaso zuen «Sugea dantzan: *She's in fashion*-etik Bilbao euskaraz-era» lanarekin, eta hirugarren saria Patxi Juaristi Larrinagak irabazi zuen soziolinguistikak ohikoagoa duen aztergai bat landuz: «Euskal soziolinguistika aplikatua: bilakaera metodologikoa eta teknikoa» aurkeztu zuen. Bistan da Soziolinguistika Klusterrak antolatzen dituen sariak hausnarketarako dei bat direla, eta, aurreko urteetako sari-dunak ikusirik, badirudi bereziki berritzaileak, soziolinguistikan ez ohikoak diren lanak saritzen direla. Normala dirudi, proiektu horrek soziolinguistikara ikertzaile berriak erakartzeko eta soziolinguistikaren mugak zabaltzeko helburua baitu. Soziolinguistikaren ikerketei dagokienez, HIZNET graduondokoaren webgunean ikasle ohien sakontze-lanak eskura daitezke; ia 100 dira bide horretan kontsultatu daitezkeen lanak, gai askotarikoak eta gehienbat Euskal Herriko egoerari buruzkoak.

Ikerketa soziolinguistikoeekin jarraitzeko, baina kasu honetan ez berriak diren ikertzaileen lanekin baizik eta oso eskarmentu luzea eta soziolinguistikaren munduan ezagunak diren ikertzaileekin, Blackwellek argitaratzen duen *Journal of Sociolinguistics* aldizkariaren otsaileko zenbakian, R. Y. Bouhis, M.-J. Azurmendi eta E. Montarulik burututako ikerketa baten berri ematen da («Identity, language, and ethnic relations in the Bilingual Autonomous Communities of Spain», *Journal of Sociolinguistics* 15/1, 2011, 94-121). Lanean haxe aztertzen da: identitatea, hizkuntza eta harreman etnikoak Espainiako erkidego elebidunetan. Ikerketaren helburua, beraz, nazio eta eskualde edo erregioetako identitateek nola koexistitzen duten, zein harreman duten, nola konbinatzen diren aztertzea da, eta ikustea hizkuntzaren berreskurapenean laguntzen duten prototipo esanguratsu batzuk osatzen direla.

Ikerketa EAEn, Katalunian, Galizian, Nafarroan eta Valentzian egin zen; elkarriketatuak unibertsitateko ikasleak

izan ziren, guztira 2.446 ikasle elkarrizketatu ziren. Emaizzen arabera, bederatzia identitate mota prototipiko ezberdindu daitezke: bi muturretan identitate bakarra aldarrikatzen duten pertsonak ditugu (Espainiako identitatea mutur baten aldean edo erkidegokoa bestean), eta tartean Espainiako eta erkidegoko identitateak, biak konbinatuta aldarrikatzen dituzten pertsonak ditugu. Artikuluaren arabera, bakarrik erkidegoko (laginaren %11) edo Espainiako (%13) identitatea aldarrikatzen duten pertsonak beste identitatea duten pertsonekin harreman gatazkatsuak izateko probabilitate handiagoa dute. Identitate bikoitza indartsua duten pertsonak, aldiz (%9), probabilitate handiagoa dute taldeen arteko bitartekoak izateko bai maila kulturallean eta baita linguistikoan ere. Identitate proespainiarra (%15) edo identitate bikoitz moderatua (%7) aldarrikatzen duten pertsonak, aldiz, hizkuntza autonomikoaren ikaste prozesua burutzeko eta taldeen arteko bitarteko kulturala bihurtzeko probabilitate handiagoa dute.

Journal of Sociolinguistics aldizkariko artikulua interesgarria bada, datu soziolinguistiko gehiago ematen ditu Blanca Urgellek ekainaren 13an Eusko Legebiltzarraren aurrean aurkeztu zuen txostenak. *Euskararen egoerari eta bilakaerari buruzko adierazleak* txostenean datu soziolinguistiko anitz ematen da hainbat iturritatik ateratakoak, gehienak 1996 eta 2010 urteen artekoak. Txostenak lau atal nagusi ditu. Aurreneko zatian aurkezpena egiten da eta datu soziodemografiko orokorrak ematen dira: biztanleriaren piramideak, atzeritarren bilakaera, biztanleriaren ikasketa maila eta biztanleriaren jardura sektoreka. Atal honetan, hizkuntza gaitasunari buruzko datuak ere aurkezten dira; baina ez dira berriak, Eustateko 1996-2006ko datu ezagunak dira.

Aurreneko zati orokor horren ondoren, txostenaren hiru atal nagusiak hasten dira. Lehena euskararen transmisioari buruzkoa da, hiru azpiataletan banatuta: hezkuntza, euskalduntze-alfabetatzea eta familia bidezko transmisioa. Bigarren zatia euskararen erabilerari buruzkoa da. Atal luzeena

da eta bost azpiatal oso interesgarri ditu: erabileraren datu orokorrak (ereduen bilakaera, irakasleen hizkuntza-gaitasunaren bilakaera), erabilera administrazioan (Eusko Jaurlaritza, foru aldundiak, udalak, osasun zerbitzuak, herrizaingo zerbitzuak eta justizia administrazioa), erabilera IKTn, erabilera enpresetan eta aisialdian. Hirugarren atalean, corpus plangintzari eta hedabideei buruzko informazioa dator (prentsa idatzia, liburugintza, irratia eta telebista, kulturgintza).

Bistan denez, adierazle anitz aurkezten ditu 107 orrialde dituen txosten mardul horrek. Iturri eta ikerketa ezberdin askotatik ateratakoak dira, eta, gehienak berriak ez badira ere (adibidez, ezagutzaren datuak Eustateko ikerketa ezagunetatik aterata daude, erabilerari buruzko datu orokorrak HPSk 2006an burutu zuen inkesta soziolinguistikotik aterata daude...), inkesta batzuk ez dira hain ezagunak eta lagungarria da datu horiek guztiak bateratuta eduki ahal izatea (Interneteko erabiltzaileen bilakaera erabilitako hizkuntzaren arabera adibidez, edota hizkuntza eskakizunen bilakaera eta betetze maila arloaren arabera).

Txosten osoan zehar toki handia eskaintzen zaio emandako diru-laguntzen kopuruari, eta txostenaren bukaeran hizkuntza-politikarako erabilitako diru-baliabideak aurkezten dira. Horrela ikusten da 2008an EAEko administrazioak biztanle bakoitzeko 7.127 euro gastatu zituela eta horietatik 88 izan zirela euskara sustatzeko. Interesgarria litzateke AHTak biztanle bakoitzeko zenbat suposatzen duen jakitea eta proiektu bakoitzak duen onarpen soziala konparatzea.

Euskararen eta bereziki HPSren txostenekin askotan gertatzen den moduan, ondorio batzuk ematea faltan botatzen da. Txosten osoan zehar ez da balorazio esanguratsurik egiten; lauki eta irudien alboan dauden komentarioak laukietan agertzen diren datuen deskribapen hutsak besterik ez dira, norberak atera behar ditu bere ondorioak.

Fidagarritasunari dagokionez ere, zalantzak sortzen dira; adibidez, biztanleko zenbat gastatu den zehazteko kalkulua nola egin den jakitea interesgarria litzateke, edota egiaztatu-

tako hizkuntza-eskakizunen kasuan benetan egiaztatu behar den maila lortu den edo maila apalago bat. Modu honekin, ezinbestekoa litzateke, hainbat kasutan, datuak zein metodologiaren arabera lortu diren jakitea. Egia da, noski, informazio hori izateko adierazle bakoitzaren jatorrizko ikerketa kontsultatu daitekeela. Zalantza bat dugunean eta edozein balorazio egin baino lehen, halaxe egin beharko da. Hausnarketarako materiala eta entretenimendua izango dugu txosten honekin, zalantzarik gabe...¶

Haserrea, amorrua eta herra (eta zenbait har)

Gure azken artikulua inprentara bidali bezain pronto harra hasi zitzaigun barrua jaten; Libiako egoera nahasian NATOk parte hartzea kritikatzeko zuten betiko europar ezkertiarrez trufatzea, ahopeka bada ere, nahiz eta Jugoslavia ohian gertatutako esperientzia erreferentziatza hartu, beti da arriskutsu; bakarrik geratzearen beldurrak, har horrek jan egiten dizu autoestimua hurrengo hilabetetan, batez ere Libiako gerrak, Gaddafi gotortuaren armada sasi-mertzenarioaren eta matxinoen talde desantolatuen artean, betikotzeko bidea hartzen zuenean, azkenean Frantziak eta Erresuma Batuak gidatu zuten interbentzio indarraren operazioek porrota eta sarraskia biltzen baino ez zutenean...

«Barregarri soilik ez, harroputz eta ezjakin geratuko haiz, ez al duk ikusten betiko ziurtasunak —armada inperialistak gaiztoak dituk beti, petrolio zikina kontrolatzeko ari dituk eta ezin ezer onik espero eurengatik— hobeto babesten duela, lasaiago egoten dela betiko egien artean?», arrapostu egin zuen barneko harrak, mara-mara, egunero prentsa irakurtzean. Beno, heldu da hurrengo artikulua inprentara bidaltzeko garaia eta Libian matxinoek erregimena lehertzea lortu dute; aspaldiko gerraren antza hartu duen prozesuan, NATOko bonbardaketa selektiboek (!) eta aire blokeoak ekarri dute ahulenen garaipena. Mundua leku hobea al da horri esker? Uf, auskalo! Tirano bat gorriak eta beltzak ikusten ari da eta arabiar herrialdeetan zabaldu den aldaketa uholdea ez da eten, ez behintzat eskualde horietako zenbait satrapak duen botere militarari esker, eta horrek zalantzarik gabe esperantza ematen die Sirian ari diren matxinoei. Kasu honetan airea gerratik at mantentzeaz arduratu den koaliti-

zioan ez dute parte hartu AEBetako indarrek, eta europar armadek, operazioa legitimatzeko, behar-beharrezkoa izan dute Qatar arabiar monarkiaren parte hartze sinbolikoa, NBERen babesa eta gero. Argi dago erakunde horrek gidatutako kasko urdinarenak egin duela eta geometria aldakor askotako indar *bakegileak* ikusiko ditugula hurrengo gerra ugariatetan. «Gaiztoek egin dezaketen gaizkia gorabehera, onek egiten duten gaizkia, hori da gaitz guztien artean gaiztoena», honela mintzo zen Zaratustra, Nietzsche mediante. Gaiztoek ongia egin al dute, nahiz eta ongirik hoberena ez izan?

Libian, noski, denboraldi baterako ongizate gutxi egongo da. Merkatua petrolioaren atezuan dagoela ematen du, joko zelaitik alboratua; Estatu desegin da eta, orduan, betiko legez, Senidetasunak —gizartea egituratzen duen lehenengo elementua— bere indar bateratzailea erakusten du. Leinu, klan eta tribuen momentua da eta, beraz, odol sinbolikoak egingo du berba. Eta beste odola, erreal, gorria eta beroa, nonahitik korrituko da, sortuko da Estatu sasiberria eta Merkatuak berea eskatuko du. Eta orduan betiko europar intelektual ezkertiarrek esango dute ez dela ezer aldatu eta arrazoia izango dute.

Libian eta Sirian amorrua lehertu da eta odola darie herrialde horiei. Erreboltarien asmoak azkarrago inposatu diren beste herri batzuetan —gogoratu Tunisia edo Egipto—, Herra Egunak antolatu zituzten, jendetzaren protesta bake-tsu baina indartsuak bideratzeko. Orain, emozio eta sentimenduei jendea mugiarazteko daukaten garrantzia onartzen zaiela, onartu behar da herratik, eta amorrutik, haserrea badagoela tarte (sinboliko, beraz, erreal) handi bat, eta hain zuzen ere distantzia horrek komedia, edo opereta, kutsu ekidinezina ematen diela European zehar, Madril hiriburu!, udan zabaldu diren haserretuen mugimenduei.

Haurtzaro, nerabezaro eta gaztaro oparoa bezain atsedengarria izan duen belaunaldia, sekulako formaziorik hoberena baldintza amesgarrietan —europar instituzio askoren finantziazioa, gurasoen prestasun osoarekin ordaindutako

erasmusak...— jaso duen belaunaldi horrek hauxe ikusi du: azkenez, lan egitea eta pisua eskuratzea eta eski bidaiak familiarekin antolatzea eta eztei-bidaia aurrefabrikatutako paradisu batean edo trekking bat Everesteko base-zelaira eta abar tokatzen zenean, ametsa pitzatu dela eta naturaltzat ikusi duten hori guztia desagertu dela. Eta haserretu dira, noski.

Ez da trufatzeko gaia, ez. Haserretuen artean sufrikario eta bazterketa asko dago eta euren mugimenduak politika formalaren ur uherretan zenbait zirimola sortarazi du; egoera ekonomikoa eta soziala hain petrala da, ezen haserrea erabat normala baita, eta herra eta amorru bilakatu baitaiteke. Horregatik izan da kalapita hain handia politikarien artean, eta horregatik agertzen ari dira munduan zehar aberatsak, mesedez, zerga gehiago ordaindu nahi dutela erregutuz. Ea Erresuma Batuko talde sasi-situazionista hark —ez da kasualitatea *Angry Brigade* deitzea— proposatzen zuen moduan, jendea aberatsak jaten hasten ote den.

Baina arazoa da mobilizazio horiek antolatu eta gidatu dituztela post-situazionismoak eta oro har 68ismoak, ospakizunaren postmodernismoak, konstrukzionismo antzuenak eta norberaren identitarismoak hezitako belaunaldiek; eta zaldi eta behor distiratsu eta arin horiekin ezin da asto-lanik egin, ezin da alternatiba sendorik osatu.

Ziurrenik, ez da garaia horretarako. Ziur aski orain tokatzen dena ezinegona, desordena eta kaosa da, haserrea eta sumina adieraztea, nor bere etxea utzi eta plazetara eta bi-deetara ateratzea, denboren bukaera laster datorrela adieraztera. Bai, Sol edo Bartzelonako jendetzaren irudiak ikusiz, edo, zer esanik ez, Baionan Aurore Martinen atxiloketa oztopatu zutenena, burura datorren kontzeptua Cohnek eta Aranzadik ikertutako —eta Ekok eta Vargas Llosak nobelaratutako— mugimendu milenaristena da. Hau da, klabe magikotan eta premia osoz —doazela denak, aberastasuna bana dadila...— munduaren erabateko aldaketa eskatzen duen jendetza hara eta hona mugitzen da, *aldarrikapen tau-*

la zehatz bat eratzeko ahalmenik gabe, baina bai «dena nahi dugu, eta orain» eskatzeko gauza, espazio fisiko publikoa eta birtual publikatua okupatuz. Halako mugimenduek iragarri eta piztu zuten gero modernitatea ekarri zuen munduaren aldaketa prozesu luzea eta sakona, orain dela mende batzuk: erlijioa gizartearen ardatz sinbolikoa zen garaian milenarismoak ekarri zuen Erreforma, eta horrek modernitate laikoa, asko sinplifikatuz. Bilboko haserretuen eserialdian agertzen zen frantziskanoz jantzitako gazte sarritan fotografiatuak biribiltzen du grazia puntu batez nire argudiatze hori, baina badakigu non idazten ari garen..., hemen lagako dugu bromatxoa.

KEHGak (Krak Egiteko Handiegiak) nonahi

Lehenik, krak, kiebra, porrot egiteko handiegiak ziren bankuak agertu ziren, krisi erabatekoaren hasiera sinbolikoa markatu zuen Lehman Brothers inbertsio bankuaren abailarekin, eta estatuak halakoak erreskatatzera abiatu ziren. Horrela egin zuten zuloa, berriz, ez da Merkatuaren gustukoa izan, eta orduan estatu batzuek krak egin dute; Europako estatuen artean zenbait txikiren porrota eta gero, badirudi Espainia eta Italia argi eta garbi KEHGak direla, edozein gauza egin behar dela halakoek krak egin eta erreskatatu behar izatera iritsi baino lehen. Baina kurtso berrian errealitatea inposatuko da ziurrenik eta, behin Alemaniako gobernuak nolabaiteko barne bakealdia lortu duela dirua ipintzen segitzeko, merkatuek exijituko dute PIIGSetatik salbu geratzen diren handiegi bien ordainsaria, Europako Batasunak jarria. Bitartean, Zapatero eta Berlusconiren gobernuak ahal duten guztia egiten saiatzen dira, bideragarritasun planak, zorpetze maila mugarriko aldaketa konstituzionalak. Konfiantza eman nahi zaie berez irrazionalak diren agente batzuei, eta horrekin ahuldadea baino ez dute erakusten. Eta nork erosiko du halako gauzak egiteko bezain ahul dagoen estatu bateko zorra?

Merkatuetan bere (des)konfiantza, ziurtasun, zalantza, beldur eta aurreiritziekin dabilen jendeak egiten du lan; horrelako milaka pertsonen erabaki soilen metaketa kontraesankorrari Merkatuen Ahotsa deitzen zaio orain, eta horren arabera hartzen dituzte erabakiak praktikan jadanik krak egin duten estatu txerrixo horietako politikariek. Eta hain zuzen ere unean uneko erantzun inprobisatu horietan erakusten dute ez dagoela eurekin fidatzerik. Egia esan, Alemanian boterean dauden politikariek behar dutena egiten dute, Merkel eta enparauk euren iritzi publikoaren aurrean euroarekiko fedea berretsi dezaten. Alemaniako enpresa handientzako euroa ona izan da, eta hori da arrazoi bakarra oraindik onar dezaten. Baina fakturak garestitzen segitzen duen neurrian.

Bitartean, Europako Batasunaren geroa aztertzeko eratu-tako notableen foroak jarraitzen du dataz kanpoko errezetak saltzen. Bertan du protagonismo handia Felipe Gonzálezek. Marketin politikorako haren erraztasunari esker sortu zituen Europako Batasunak aspaldian Kohesio Funtsak, teorian europar estatuen artean zeuden garapen diferentziak leuntzeko lanabesa, praktikan iparraldeko ekonomia indartsuetatik hegoaldeko herrialdeetara zerion diru iturri handi bat, gehiena porlanean eta ustelkerian xahutu dena. Hortik PIIGS izena eta gaur egungo Norvegia, Finlandia, Suedia... eta batez ere Alemaniako iritzi publikoen ozpintzea. Harekin batera, euren porrot politikoez birrindutako beste dinosauro politiko batzuk daude, oraindik eurobonoak eta betiko proposamenak errepikatuz, belaunaldi horren amets europazale, elitista, kapitalista, herriei eta jende xeheari mespretxu egiten ziena, jadanik Historiaren zabortegean dagoela konturatzeke.

Desordenaren eztanda

Bai, milenioaren kontuari beste begirada bat eman behar zaio, zer dira ba dozena bat urte gora edo behera, tempo historikoan? Maiatzean zendu zen Ramón Fernández Durán-ek

idatzita utzi zuen ordena eza eta kaosaren eztanda biziko ditugula hurrengo urteotan gailentzen ari diren joerak ez badi-ra zuzentzen, gutxi batzuen aberastasun metaketarako gosea ekidin ezean, eta bete-betean asmatzen ari da ekologista madrildarra bere profezia ilun horietan. *Statu quo* sozio-ekonomikoaren inplosioarekin, munduan zehar baina batez ere Europa zaharrear, matxinadak eta erreboltak nonahi agertzen dira. Ingalaterrako auzo baztertuetan udan piztutako sugarretan maila dezenteko gazte askok euren kontsumismorako joera kaxatik pasatu gabe ase zitekeela deskubritu zuten, eta jende asko harritu da. Argi dago ordena eza eta kaos garaiak biziko ditugula Estatuak eta Merkatuak porrot, kale egin dutelako. Baina gaztetxo ingeles horien kasuan, prentsan Patxi Juaristi soziologo eta EHUko irakasleak azpimarratu bezala, Familiak ere egin du porrot, edo kale; kasu askotan sinpleki ez dago familiarik. Eta gizartearen hiru funtsek porrot egiten dutenean, zer geratzen da?¶